



FARMAZIAKO ETA PARAFARMAZIAKO TEKNIKARIA



AURKIBIDEA

1.	TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA	Or. 4
2.	LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA	Or. 4
	2.1. Konpetentzia orokorra	
	2.2. Kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda	
	2.3. Lanbide-ingurunea	
3.	HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIAK	Or. 5
	3.1. Heziketa-zikloaren helburu orokorrak	
	3.2. Lanbide-moduluen zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa	
	3.3. Lanbide-moduluak	
	1. Produktuen antolamendua eta salmenta	
	2. Farmazia-bulegoa	
	3. Farmazia-produktuen banaketa	
	4. Parafarmazia-produktuen banaketa	
	5. Laborategiko oinarrizko lanak	
	6. Formulazio magistrala	
	7. Osasuna sustatzea	
	8. Lehen laguntzak	
	9. Oinarrizko anatomofisiologia eta patologia	
	10. Ingeles tekniko	
	11. Laneko prestakuntza eta orientabidea	
	12. Enpresa eta ekimen sortzailea	
	13. Lantokiko prestakuntza	
4.	GUTXIENEN ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK	Or. 102
	4.1. Espazioak	
	4.2. Ekipamenduak	
5.	IRAKASLEAK	Or. 103
	5.1. Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena heziketa-zikloko lanbide-moduluetan	
6.	LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK	Or. 104
7.	TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZAGARRITASUN ETA EGOKITASUN LOTURAK	Or. 105
	7.1. Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko	
	7.2. Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko	

1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA

Farmaziako eta parafarmaziako teknikari-titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Farmazia eta parafarmazia.
- Maila: Erdi-mailako Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2.000 ordu.
- Lanbide-arloa: Osasuna.
- Europako erreferentea: INSN-3 (Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua).

2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA

2.1. Konpetentzia orokorra

Titulu honen konpetentzia orokorra da farmazia-produktuak eta antzekoak banatzen eta egiten laguntzea eta parafarmazia-produktuak saltzea, betiere osasuna sustatuz, biltegia kontrolatzeko lanak eta administrazio-lanak eginez, eta kalitate, segurtasun eta ingurumen-babeseko zehaztapenak betez.

2.2. Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda:

Osatutako lanbide-kualifikazioak:

- a) SAN123_2 Farmazia (irailaren 16ko 1087/2005 Errege Dekretua). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:
- UC0363_2: Produktuak eta materialak kontrolatzea eta fakturazioa eta dokumentazioa egitea farmaziako establezimenduetan eta zerbitzuetan.
 - UC0364_2: Farmazia-produktuen banaketan laguntzea, eta erabiltzaileei produktu horien erabilerari buruz informatzea, parametro somatometriko sinpleak finkatuz, fakultatiboaren gainbegiratupean.
 - UC0365_2: Parafarmazia-produktuen eta osasun-produktuen banaketan laguntzea eta erabiltzaileei produktu horien erabilerari buruz informatzea, fakultatiboaren gainbegiratupean.
 - UC0366_2: Formula magistralak eta prestakin ofizinalak, dietetikoak eta kosmetikoak egiten laguntzea, fakultatiboaren gainbegiratupean.
 - UC0367_2: Oinarrizko eta normalizatutako analisi klinikoak egiten laguntzea, fakultatiboaren gainbegiratupean.
 - UC0368_2: Osasunaren babes eta sustapenean, gaixotasunen prebentzioan, eta osasun-hezkuntzan laguntzea, fakultatiboaren gainbegiratupean.

2.3. Lanbide-ingurunea

Irudi profesional honek farmaziako eta parafarmaziako produktuak eta, oro har, giza osasunarekin edo animalia-osasunarekin lotzen diren produktuak, kosmetikako produktuak, fitoterapiako produktuak eta antzekoak saltzen dituzten establezimenduetan egiten du lan. Era berean, farmazia-produktuak eta antzekoak egiteko laborategi txikietan egin dezake lan.

Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak hauek dira:

- Farmaziako teknikaria.
- Farmaziako teknikari laguntzailea.



- Sendagai-biltegiko teknikaria.
- Ospitale-farmaziako teknikaria.
- Parafarmazia-establezimenduetako teknikaria.

3. HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIAK

3.1. Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

1. Eskariak kudeatzeko eta jasotzeko sistemak aztertzea eta kudeaketarako programa informatikoak eta bestelako sistemak maneiatzea, farmazia eta parafarmaziako produktuen izakinak kontrolatzeko.
2. Farmazia eta parafarmaziako produktuak jaso direla egiaztatzea, izakinak kontrolatzearen.
3. Biltegitratzeko prozesua planifikatzea eta, horretarako, sailkatze-irizpideak aplikatzea eta kontserbazio-baldintzak betetzea, farmazia eta parafarmaziako produktuen antolamendua kontrolatzeko.
4. Farmazia eta parafarmaziako produktuen ezaugarriak eta aurkezpena ezagutzea, eta produktu horiek haien aplikazioekin lotzea, produktuen banaketan laguntza eskaintzeko.
5. Produktuaren erabilera egokiari buruz informatzea, eta, horretarako, farmazia eta parafarmaziako produktuak banatzeko emandako informazio teknikoa interpretatzea, kontsultei arreta eskaintzea eta argi eta garbi jakinaraztea erabiltzaileei produktuen ezaugarriak eta produktuen zentzuzko erabilera.
6. Farmazia-produktuen sortak egitea, dosifikatzea eta ontziratzea, kalitate eta segurtasuneko baldintzetan, ospitale-unitateetarako prestatu eta banatzeko.
7. Beharrezko ekipamenduak, lehengaiak eta erreaktiboak prestatzea, argibide teknikoei eta segurtasun eta kalitateko protokoloek jarraituz, betiere fakultatiboari formula magistralak, prestakin ofizinalak eta kosmetikoak prestatzen laguntzeko.
8. Laborategiko oinarrizko lanak egitea, argibide teknikoei eta segurtasun eta kalitateko protokoloek jarraituz, betiere fakultatiboari formula magistralak, prestakin ofizinalak eta kosmetikoak prestatzen laguntzeko.
9. Tratamenduari dagozkion datuak erregistratzea eta bidezko formularioak betetzea, fakultatiboari erabiltzailearen jarraipen farmako-terapeutikoa laguntzeko.
10. Somatometriako prozedurak eta bizi-konstanteak hartzeko prozedurak aplikatzea, eta, horretarako, erabiltzailearen parametro somatometrikoak eta bizi-konstanteak lortzeko protokoloak eta jarraibide teknikoak interpretatzea.
11. Analisisirako ekipamenduak eta materiala prestatzea, argibide teknikoak jarraituz eta kalitate, segurtasun eta higieneko arauak aplikatuz, eta oinarrizko analisi klinikoak egiteko prozedurak aplikatzea.
12. Zehaztapen analitikoak eta klinikoak egitea, argibide teknikoak jarraituz eta kalitate, segurtasun eta higieneko arauak aplikatuz eta oinarrizko analisi klinikoak egiteko prozedurak aplikatuz.
13. Materiala, tresneria eta ekipamenduak higienizatzea, eta hondakinak ezabatzeko arauen eta protokoloen arabera garbitzea, desinfektatzea eta esterilizatzea, erabiltzean baldintza ezin hobeetan mantentzeko.
14. Arrisku-egoerak identifikatzea, erabiltzailearengandik jasotako informazioak hautatuz, betiere bizi-ohitura osasuntsuak sustatzeko.
15. Erabiltzaileak sentsibilizatzea, haien beharren arabera informazioa hautatuz, betiere bizi-ohitura osasuntsuak sustatzeko, osasuna mantentzeko edo hobetzeko eta gaixotasunak saihesteko.

16. Administrazio-lanak egitea, eta dokumentazioa indarrean dagoen legeriaren arabera antolatzea eta betetzea, errezeten fakturazioa bideratzeko eta establezimenduan sortzen den dokumentazioa kudeatzeko.
17. Lehen laguntzetako teknikak identifikatzea, larrialdi-egoeretan hasierako eta oinarrizko laguntza emateko ezarritako jardun-protokoloen arabera.
18. Erabiltzailearen egoera psikologikoa identifikatzea eta haren beharrak eta jokabide anomaloak hautematea, haren behar psikologikoei arreta emateko.
19. Laguntza logistikoko eta komunikazioko teknikak interpretatzea, eta behar eta jokabide anomaloak hautematea, erabiltzaileen behar psikologikoei arreta emateko.
20. Iritzi-aniztasuna aberastasun-iturri gisa baloratzea, beste jardunbide, ideia edo sinesmen batzuk ezagututa, arazoei konponbidea aurkitzeko eta erabakiak hartzeko.
21. Lanbidean hobetzeko aukerak ezagutzea eta identifikatzea, informazioa biltzea eta ezagutzak eskuratzea, nork bere lanaren esparruan berritzeko eta eguneratzeko.
22. Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua aztertu ondoren, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.
23. Negozio-aukerak ezagutzea eta identifikatzea, merkatua analizatuta eta bideragarritasuna aztertuta, nork bere enplegua sortzeko.



3.2. Lanbide-moduluen zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa:

LANBIDE MODULUA		Ordu-esleipena	Kurtsoa
0099.	Produktuen antolamendua eta salmenta	105	2.a
0100.	Farmazia-bulegoa	198	1.a
0101.	Farmazia-produktuen banaketa	198	1.a
0102.	Parafarmazia-produktuen banaketa eta salmenta	165	1.a
0103.	Laborategiko oinarrizko lanak	231	1.a
0104.	Formulazio magistrala	189	2.a
0105.	Osasuna sustatzea	168	2.a
0020.	Lehen laguntzak	66	1.a
0061.	Oinarrizko anatomofisiologia eta patologia	99	1.a
E-100.	Ingeles teknikoa	33	1.a
0106.	Laneko prestakuntza eta orientabidea	105	2.a
0107.	Enpresa eta ekimen sortzailea	63	2.a
0108.	Lantokiko prestakuntza	380	2.a
Zikloa guztira		2.000	

3.3. Lanbide-moduluak: aurkezpena, ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak, edukiak eta orientabide metodologikoak

1. lanbide-modulua: PRODUKTUEN ANTOLAMENDUA ETA SALMENTA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Produktuen antolamendua eta salmenta
Kodea:	0099
Heziketa-zikloa:	Farmazia eta parafarmazia
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Osasuna
Iraupena:	105 ordu
Kurtsoa:	2.a
Irakasleen espezialitatea:	Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak. Laborategia (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Profilari lotzen zaion lanbide-modulua.
Helburu orokorrak:	4.a / 5.a / 16.a / 20.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Erabiltzaileei arreta emateko teknikak aplikatzen ditu, baita komunikaziorako prozedurak eta protokoloak ere.

Ebaluazio-irizpideak:

- Komunikazioko kontzeptuak, elementuak, oztopoak, faktore aldatzaileak eta motak identifikatu ditu.
- Komunikazio egokirako hainbat hizkuntza, teknika eta estrategia mota aztertu du.
- Erabiltzailearekiko harremanetan, gizalegaren, adeitasunaren, errespetuaren, diskrezioaren, zintotasunaren eta interesaren garrantzia baloratu du.
- Komunikazio egokia lortzeko garatu beharreko trebetasun pertsonalak eta sozialak ezarri ditu.
- Enpresak erabiltzaileentzako arreta-sail gisa duen irudia helarazteko funtsezko elementuak bereizi ditu.
- Balitzko erabiltzaileen beharrezko informazioa hainbat egoeratan lortzea simulatu du.
- Hainbat erabiltzaile motaren portaera aztertu du.
- Informazioaren ezaugarriak definitu ditu (berehalakotasuna, doitasuna), baita aholkularitzaren ezaugarriak ere (argitasuna, zuzentasuna).
- Definitutako ekintza-planaren arabera, erabiltzaileen arreta osatzen duten faseak deskribatu ditu.



2. Parafarmazia-produktuak saltzeko jarduerak egiten ditu, eta salmenta-prozesuaren faseak deskribatzen eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Saltzaileak erabiltzailearekiko eta enpresarekiko (barne-marketina) garatu behar dituen kalitateak eta jarrerak aztertu ditu.
- b) Erabiltzailearen tipologia, motibazioak eta erosteko beharrak identifikatu ditu.
- c) Saltzaileak produktuaren ezaugarriak jakitearen garrantzia deskribatu du.
- d) Salmentako jardun-ildoak finkatu ditu, betiere enpresak ezarritako ekintza-planaren arabera.
- e) Salmenta-prozesuaren faseak garatu ditu (arreta bereganatzea, interesa erakartzea, nahia piztea, erabiltzailea mugiaraztea).
- f) Marketinaren kontzeptua eta kontsumitzailearen nahiak gogobetetzea lotu ditu.
- g) Erosteko prozesua errazten duten elementu gisa baloratu ditu informazioa, aholkularitza, giro abegitsua, gizalegea, komunikazioa eta saltzailearen gizarte-trebetasunak.
- h) Leial bihurtzeko plana aplikatzean erabiltzaileen fitxategia eguneratuta izatearen garrantzia definitu du.

3. Parafarmazia-produktuak antolatzen ditu saltokian bertan, denda-marketinaren teknikak aplikatuz (merchandising).

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erabiltzailearen eta erakusgai dauden produktuen artean ezartzen den lotura libre eta pertsonala identifikatu du, antolamenduaren, kokapenaren edo apainduraren arabera.
- b) Parafarmazia-produktuak haien erabilgarritasunaren arabera sailkatu ditu, indarrean dagoen araudia errespetatuz.
- c) Sailaren mailan (altzarietan), produktuek izan beharreko kokalekua (puntu beroa) zehazten duten parametro fisikoak eta komertzialak ezarri ditu.
- d) Etiketatzeko prozedurak garatu ditu, eta produktuen informazioa osatzeko publizitate-elementuak landu ditu.
- e) Bilkina enpresak ezarritako prozeduraren arabera berritzearen garrantzia baloratu du.
- f) Lapurretaren aurkako sistemak aztertu ditu.
- g) Produktuaren araberako, haren ezaugarrien araberako eta enpresak eman nahi duen irudiaren araberako enbalatze eta paketatze motak deskribatu ditu.
- h) Balizko erabiltzaileen eskariei edo iradokizunei dagokienez bildutako informazioan oinarrituta, saltzaileak egin ditzakeen iradokizunak baloratu ditu.

4. Erabiltzaileek aurkeztutako erreklamazioei jartzen die arreta eta, horretarako, jarduteko irizpideak eta prozedurak ezagutzen eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erreklamazio eta kexen aurrean azaldu beharreko jarrera, portaera eta interesa tipifikatu du, erabiltzaileei informazioa ematean adierazpenezko estiloa erabiliz.
- b) Gatazkak eta erreklamazioak ebazteko erabiltzen diren teknikak garatu ditu.

- c) Indarrean dagoen legeriak nabarmentzen dituen erreklamazioen alderdiak aintzat hartu ditu.
- d) Erreklamazioak aurkezteko prozedura deskribatu du.
- e) Erraz konpon daitezkeen erreklamazioen aurrean erabiltzaileari eskain dakizkiokeen prozedurarako alternatibak identifikatu ditu.
- f) Informazioa antolatzen duten eskuko informazio-sistemek eta informazio-sistema informatikoez zerbitzuaren kalitate-kontrolerako duten garrantzia baloratu du.
- g) Erabiltzaileen salmenta ondoko jarraipenaren, gertakizunen, eskaeren eta erreklamazioen inguruan erregistratu beharreko informazioa ezarri du, betiere egindako zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eta erabiltzaileen leialtasuna areagotzeko adierazle gisa.

c) Edukiak

ERABILTZAILEEN ARRETA	
prozedurazkoak	- Hainbat populazio-segmentuei arreta emateko teknikak aplikatzea. - Hitzeko eta hitz gabeko komunikazioa erraztuko duten teknikak erabiltzea. - Erabiltzaileen arretarako protokoloak lantzea. - Balizko erabiltzaileei aholkuak emateko teknikak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	- Komunikazio-teknikak. Komunikazio egokirako elementuak. Faktore aldatzaileak. Komunikazio eta hizkuntza motak. - Komunikaziorako giza baliabideak. Erabiltzailearekiko harremanetarako jarrerak eta trebetasunak (gizalegea, errespetua, diskrezioa,...). - Erabiltzaileen arreta. Arreta faseak, definitutako ekintza-planen arabera. - Informazioa eta aholkuak emateko teknikak. Erabiltzaile motak eta portaerak. Erabiltzaileen fitxategiak.
jarrerazkoak	- Diskrezioa, errespetua eta adeitasuna harremanetan. - Jarrera ona eta segurtasuna erabiltzaileei eman beharreko erantzunetan edo azalpenetan. - Gainerakoekiko komunikazioa ezartzeko interesa. - Erabiltzaileen egoera zehatzekiko egokitzapena eta ulermena.

SALMENTA JARDUERAK.	
prozedurazkoak	- Salmenta-teknikak aplikatzea. Produktuen salmenta librea egitea. - Produktuen ezaugarriak identifikatzea, aholkuak eman ahal izateko. - Salmenta-prozesuan jarduteko ildoak ezartzea. - Erabiltzaileen zerrenda eguneratzea.
kontzeptuzkoak	- Produktua. Ezaugarriak. Produktuaren garrantzia. - Salmenta-teknikak. Salmentako jarduna. Salmenta-prozesuaren faseak. Kontsumitzailearen beharrak gogobetetzea. Barne- eta kanpo-marketina. - Informazioaren, aholkularitzaren eta gizarte-trebetasunen garrantzia salerosketa-prozesuan. Enpresaren jardun-plana. - Erabiltzaileak leial bihurtzeko plana. Fitxategiak eguneratzeko plana. - Araudia eta legeria.



jarrerazkoak	- Norberaren itxura edo higiena zaintzeko interesa izatea. - Zuzentasuna, adeitasuna eta tonu egokia azaltzea erabiltzaileekiko harremanetan. - Nork bere zereginaz jabetzea, beste langile batzuekin elkarlanean jardutea eta, beharrezkoa denean, kontsultak egitea. - Eman beharreko informazioa koherentea eta zuzena izatea.
--------------	--

PARAFARMAZIA PRODUKTUAK ANTOLATZEA

prozedurazkoak	- "Puntu beroak" eta "puntu hotzak" kokatzea. - Produktuak erabilgarritasunaren arabera sailkatzea eta antolatzea. - Produktuak kokatzea. - Salerosketa-prozesuan enpresaren kanpo-irudia aztertzea. - Saltzaileen iradokizunak eta merkataritza-txostenak interpretatzea. - Eskaerak eta iradokizunak bilduko dituen gertakarien erregistroa erabiltzea, ondoren berraztertzeko.
kontzeptuzkoak	- Parafarmazia-produktuen salmenta librea eta erakusketa. Establezimenduko puntu beroak eta puntu hotzak. - Produktuak. Erabilgarritasuna eta sailkapena. Indarrean dagoen araudia. - Produktuak kokatzeko teknikak. Parametro fisikoak eta komertzialak. Sailaren mailak. - Etiketatze, publizitatea egiteko eta merkataritza-txostena egiteko sistemak. - Bilkina berritzeko teknikak. Lapurretaren aurkako sistemak. - Enbalatze eta paketatze motak. Enpresaren irudia. - Saltzaileen merkataritza-txostena. Saltzaileen eta balizko erabiltzaileen iradokizunak.
jarrerazkoak	- Arreta eta metodoa lanean. - Parafarmazia-produktuen ezagutza areagotzeko interesa. - Zerbitzuaren kalitatea hobetzeko interesa. - Gaitasun kritikoa parafarmazia-produktuen erabilgarritasuna eta adierazpenak baloratzeko.

ERREKLAMAZIOEN ARRETA

prozedurazkoak	- Kexak, erreklamazioak edo itzultzeak ebazteko protokoloak interpretatzea. - Erreklamazioak eta irtenbide-aukerak ebazteko teknikak aplikatzea. - Kalitate eta etengabeko hobekuntzako sistema informatikoak erabiltzea. - Egindako zerbitzua baloratzeko gogobetetasun-formularioak egitea.
kontzeptuzkoak	- Gatazkak ebazteko teknikak. Kexen aurrean izan beharreko jarrera eta estiloa. Adierazpena. - Erreklamatzeko sistemak eta prozedurak. Alderdiak. Indarrean dagoen legeria. - Erreklamazioen aurrean dauden aukerak. - Zerbitzuaren eta establezimenduaren kalitate-kontrola. Eskuko

	informazio-sistemak eta informazio sistema informatikoak. Kalitate-kontrolerako adierazleak. - Salmenta ondokoaren, gertakarien eta erreklamazioen jarraipena egiteko teknikak. Egindako zerbitzua hobetzeko sistemak.
jarrerazkoak	- Zuhurtasuna eta adierazpena gatazkak ebaztean. - Kontingentzien aurreko protokoloak. - Egindako zerbitzua hobetzeko interesa.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honi ekiteko bi zati berezi behar dira. Lehen zatian, I., II. eta IV. multzoetako edukiak sartuko dira (Erabiltzaileen arreta, Salmenta-jarduerak eta Erreklamazioen arreta hurrenez hurren) eta bigarren zatian III. multzoko edukiak (Parafarmazia-produktuen antolamendua).

Lehen zatiari hasiera emateko, komeni da komunikazio-teknikak, hizkuntza motak, erabiltzaile motak eta salmenta-prozesuko jarrera egokiak azaltzea. Nabarmendu egin beharko da zerbitzua egiteko garaian oso garrantzitsua izango dela erabiltzailearen araberrako hizkuntza sinplea edo teknikoa erabiltzea, bezeroari entzutea eta hitzezkoa ez den komunikazioa zuzen erabiltzea.

Era berean, bezeroari aholkuak emateko jardun-ildoak garatzea proposatzen da. Erabiltzaileari eman beharreko informazioaren zuzentasunaren eta koherentziaren garrantziaz jabetu beharko dute ikasleek. Horrez gain, gertakariak edo erreklamazioak sortzen direnean, erabiltzaileen jarraipenerako eta enpresaren kalitate-eskulibururako aplikazio informatikoaren erabilera ere hartuko da aintzat. Honakoa jaso beharko da aplikazio horietan: data, produktua, kausa eta eraginpean dauden bezeroak. Hau da, zerbitzua behar bezala egiteko guztia.

Bigarren zatiari dagokionez, garrantzi handikoa da ikasleek produktua eta funtzionamendua ezagutzea, eta salmenta erraztuko duten teknikak jakitea, hala nola produktuek sailaren mailaren barruan duten kokapena, etiketatze-sistemak, enbalatzeko teknikak, eta publizitateak bete beharreko baldintzak –publizitatea bera eraginkorra izango bada–. Ildo horretan, produktuen eskaerei eta iradokizunei arreta emateko teknikak ezarri beharko dira, beti bezeroen gogobetetasuna aintzat hartuta.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, ikasleek prozeduretan eta jarreretan kalitatezko salmenta-jardun arduratsurako jarraibideak aplikatzea izango da irakasleen zeregina. Horrenbestez, suposizio sinpleak eta behar bezala zehaztuak planteatzea gomendatzen da. Suposizio horietan, ikasleek jarrera zuzenak eta adeitsuak izan beharko dituzte eta hitzezko adierazpen normalizatuak erabili beharko dituzte –establezimenduan bertan zein telefonoz; ohiko bezeroekin zein bezero bereziekin; eta abar–. Testuinguru horretan, norberaren itxura eta irudia landu beharko da, lanbidearekin lotzen den beste alderdi baten moduan, eta zein "estilo" diren egokienak argitu beharko da.



Salmenta-jardueraren simulazioak egitea iradokitzen da. Ikasleek simulazio horietan salmenta-prozesu osoa jarri beharko dute praktikan, salmentan eskatutako informazioa eta aholkularitza eta produktua kobratzea barne. Horretarako, nahitaezkoa izango da simulazioa egiteko espazio ekipatua edukitzea, hala nola farmazia edo parafarmaziako bulego edo biltegi bat.

Sor daitezkeen kexei, erreklamazioei, itzultzei edo beste gertakizunei erantzuteko gaitasuna lantzeko, aldiz, komeni da jardun-protokoloak maneiatzea. Protokolo horietan, batetik, erabiltzaileen gogobetetasuna eta, ondorioz, leialtasuna lortzeko ahalegina landuko da, eta, bestetik, enpresaren planteamendua eta indarrean dagoen legeria betetzeko ahalegina. Pertsona bakoitzak rol jakin bat bete beharko duen egoerak planteatu daitezke (adibidez, produktu akastun baten ondoriozko erreklamazio bat, edo eskaeran egindako akats baten ondoriozko erreklamazio bat), eta rol horietan hautemandako portaerak aztertu daitezke, hobekuntzak proposatzeko, teknikarik egokiena nabarmentzeko eta abar.

Azkenik, parafarmazia-produktuen antolamenduari eta kokapenari buruzko teknikak sendotzeko, eta produktuak katalogatzeko eta kokatzeko ekintzak egin daitezke, betiere honelako ezaugarriak kontuan izanik: altzariaren antolamendua, eskaria, funtzionalitateak, eta abar.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Komunikazio, azalpen eta analisi motak aplikatzea, rol-jokoen tekniken bitartez.
- ✓ Balizko erabiltzaileekin salmenta-simulazioak egitea, kobratzea barne.
- ✓ Erabiltzaileei edo bezeroei aholkularitza-zerbitzuak egitea, behar bezala zehaztutako suposizio praktikoen bitartez.
- ✓ Izan daitezkeen erreklamazioei edo kexei arreta eskaintzea, argudioak ematea eta eragozpenei erantzutea.
- ✓ Parafarmazia-produktuak sailaren mailen arabera kokatzea.
- ✓ Aplikazio informatikoak erabiltzea fitxategiak eguneratzeko datuak sartzeko, eta erabiltzaileen eta gertakarien datuak sartzeko, ondoren aztertze asmoz.
- ✓ Farmazia bati edo beste establezimendu bati bisita egitea, produktuak erakusteko moduaren ezaugarriak, kokalekuak, puntu hotzak eta beroak eta abar identifikatzeko eta aztertze.

2. lanbide-modulua: FARMAZIA BULEGOA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Farmazia-bulegoa
Kodea:	0100
Heziketa-zikloa:	Farmazia eta parafarmazia
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Osasuna
Iraupena:	198 ordu
Kurtsoa:	1.a
Irakasleen espezialitatea:	Diagnostiko klinikoko prozesuak eta produktu ortoprotesikoak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC0363_2: Produktuak eta materialak kontrolatzea eta fakturazioa eta dokumentazioa egitea farmaziako establezimenduetan eta zerbitzuetan.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 16.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Farmazia-dokumentazioa administratzen du, eta jaso behar duen informazioarekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Osasun-sistemaren funtsezko ezaugarriak definitu ditu eta asistentziako sistema publikoaren eta pribatuaren berezitasunak adierazi ditu.
- Osasun-sistemako farmaziako zerbitzuen eta establezimenduen ezaugarriak definitu ditu.
- Osasun-langileek farmazia eta parafarmaziako zerbitzuetan eta establezimenduetan dituzten funtzioak eta eskumenak deskribatu ditu.
- Farmazia-establezimenduetako zerbitzuen erregulazioari eta osasun-egiturari buruz indarrean dagoen legeria ezagutu du.
- Erabilitako euskarri informatiko eta paperezko dokumentu motak sailkatu ditu.
- Farmazia-zerbitzuetan erabilitako dokumentazioa bete du.
- Substantzia eta prestakin sendagarri psikotropikoak eta sorgorgarriak erregistratzearen eta kontabilizatzearen arloan indarrean dagoen legezko araudia interpretatu du.



2. Farmazia eta parafarmaziako produktuen biltegia kontrolatzen du eta izakinak kontrolatzeko eragiketa administratiboak deskribatzen eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Eskariaren arabera eta gutxieneko eskakizunen arabera baloratu ditu izakinak.
- b) Farmazia eta parafarmaziako produktuen aurkezpena identifikatzeko aukera ematen duten farmazia-kodeak bereizi ditu.
- c) Hainbat motatako inbentarioak egin ditu.
- d) Produktuen biltegiko mugimenduak erregistratu eta kontrolatu ditu.
- e) Biltegia kontrolatzeak farmazia eta parafarmaziako zerbitzuan duen garrantzia baloratu du.
- f) Farmazia eta parafarmaziako produktuen izakinak antolatzeko eta biltegitratzeko zona bereziak ezarri ditu.
- g) Farmazia eta parafarmaziako produktuen kontserbazio-baldintzak eta biltegitratzeko irizpideak identifikatu ditu, betiere produktu horien ezaugarriak kontuan izanik.
- h) Farmazia-produktuetan ohikoenak diren aldaketen agerpenak deskribatu ditu, eta eragiten dituzten kausekin lotu ditu.
- i) Produktuek garraioan jasan ditzaketen aldaketak identifikatu ditu.
- j) Epea amaituta duten produktuak itzultzeko erabili behar den prozedura deskribatu du.

3. Eskariak kontrolatzen ditu eta farmazia eta parafarmaziako produktuen erosketaren ezaugarriak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Salerosketako eragiketen berariazko dokumentuak deskribatu ditu.
- b) Egin daitezkeen eskarien modalitateak identifikatu ditu.
- c) Eskariak egiaztatzeko, albaranetan barne hartzen diren datuak egiaztatu ditu.
- d) Eskariak baliozkotu ditu, hornitzaileei, gaiei eta hobariei dagokienez.
- e) Substantzia sorgorgarriak eta psikotropikoak, berariazko legeriaren arabera, eskuratzeko, itzultzeko eta erregistratzeko baldintza bereziak deskribatu ditu.
- f) Programa informatiko baten bitartez egin du eskarien transmisioa eta harrera.
- g) Jasotako produktuak banaketa-biltegiara eta laborategietara itzultzearen zirkunstantziak eta kausak zehaztu ditu, horiek ordain daitezen.

4. Errezetan fakturazioa bideratzen du, eta administrazio eta legezko prozesua zehazten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Farmazia-prestaziorako emandako errezeten ezaugarriak deskribatu ditu – erregimen eta entitateen arabera–, baita bertan nahitaez jasoarazi behar diren datuak ere.
- b) Betetzen ez badira errezetak baliogabetzea eragingo duten ezaugarriak eta eskakizunak identifikatu ditu.
- c) Errezeta motak farmazia-espezialitatearen arabera eta horiek agintzeko baldintza berezien arabera bereizi ditu.
- d) Errezeta modalitateen arabera aplikatu beharreko kobratze-ekarpenak kalkulatu ditu, indarrean dagoen legezko araudiaren arabera.

- e) Produktuak biltzeko kartoiaren eta kupoiaren/zigiluaren informazioa identifikatu du.
- f) Organismo edo entitate aseguratzailearen arabera, prestazioaren onuradunaren arabera eta agindutako farmazia-espezialitatearen arabera sailkatu ditu errezetak.
- g) Errezetak fakturatzeko beharrezko inprimakiak eta izapideak likidazio ekonomikorako epe eta baldintza egokietan egin ditu.
- h) Programa informatiko baten bitartez bideratu du entitate aseguratzaileetarako fakturazioa.

5.- Aplikazio informatikoak maneiatzen ditu, eta biltegia kontrolatzeko erabilgarritasunaren arabera baloratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aplikazio informatikoak zehaztu ditu.
- b) Aplikazioaren hasierako parametroak identifikatu ditu, proposatutako datuen arabera.
- c) Produktuen, hornitzaileen eta erabiltzaileen artxiboak aldatu ditu, eta altak eta bajak egin ditu.
- d) Izakinen sarrerak eta irteerak erregistratu ditu, eta dagozkion artxiboak eguneratu ditu.
- e) Bilkina kontrolatzeko dokumentuak landu, artxibatu eta inprimatu ditu.
- f) Izakinen inbentarioa landu, artxibatu eta inprimatu du.

c) Edukiak

FARMAZIA DOKUMENTAZIOAREN ADMINISTRAZIOA	
prozedurazkoak	- Legezko araudia interpretatzea. - Dokumentuak hautatzea, eguneratzea eta sailkatzea. - Dokumentuetako datuak betetzea eta egiaztatzea. - Dokumentuak bideratzea eta artxibatzea. - Araudia aplikatzea eta kontabilitateko erregistroan eta kontrolean prestakin eta produktu psikotropikoak eta sorgorgarriak zehaztea. - Sorgorgarriak eta psikotropikoak erregistratzean errezeta-liburua erabiltzea. - Kanpo-erabilerako dokumentuak hautatzea, eguneratzea eta sailkatzea.
kontzeptuzkoak	- Osasun-sistema publikoa eta pribatua. Prestazio motak. Farmazia-prestazioak. - Farmaziako zerbitzuen eta establezimenduen ezaugarriak. Farmazia-banaketa. Farmazia-biltegiak. Farmazia-antolakundeak. - Osasun-langileek farmazia eta parafarmaziako zerbitzuetan eta establezimenduetan dituzten funtzioak eta eskumenak. - Farmazia-establezimenduetako dokumentazioa. Euskarri informatikoko eta paperezko dokumentu motak. Horiek betetzeko sistemak. - Farmako-zaintzako sistemari buruzko informazioa eta dokumentazioa. - Ospitale-farmaziako zerbitzuetako dokumentazioa. Sendagaien norbanako eskaerak eta eskaera globalak egiteko sistemak. Banaketaren kontrol-dokumentuak. Eskaera-orriak eta irteera. Ospitale-aginduen artxiboa. - Farmaziako establezimenduetako zerbitzuen erregulazioa eta



	indarrean dagoen legeria. Prestakin sendagarri, psikotropiko eta sorgorgarrien erregistroari eta kontrolari buruzko erregulazioa.
jarrerazkoak	- Ordena eta kontrola dokumentazioa bideratzean eta erregistratzean. - Lan-plana egiteko interesa eta prestasuna. - Indarrean dagoen legeriarekiko eta araudiarekiko errespetua. - Erantzukizuna datuen konfidentzialtasuna mantentzea.

BILTEGIKO KONTROLA

prozedurazkoak	- Biltegia antolatzea eta doitzea. - Farmazia eta parafarmaziako produktuak identifikatzea eta jarraibideak interpretatzea. - Kontserbatzeko irizpideak bereiztea. - Inbentarioak lantzea. - Produktuen aldian behingo kontrolen eta berraztertzeen kronograma egitea. - Produktuak biltegian kokatzea. - Aldaketak identifikatzea eta sendagaiak eta produktuak baztertzea. - Izakinak eskariaren eta gutxieneko eskakizunen arabera baloratzea. - Ospitale-farmaziako zerbitzu batean pazienteen norbanako aginduen zerrendak lantzea. - Ospitale-farmaziako zerbitzuan sendagaiak banatzeko prestatze-lanak egitea. Dosibakarrak. - Ospitale-farmaziako zerbitzu batean bilkinaren irteerako eta sarrerako mugimenduak erregistratzea, berrikustea eta artxibatzea.
kontzeptuzkoak	- Farmazia eta parafarmaziako produktuen biltegia. Eginkizunak. Segurtasunari eta higieneari buruzko arauak. - Biltegitratze-sistemak. Izakinak antolatzeko eta biltegitratzeko zona bereiziak. Produktuak antolatzeko eta kontserbatzeko irizpideak. - Farmazia eta parafarmaziako produktuak identifikatzeko farmazia-kodeak. - Ospitale-farmaziako zerbitzuetan sendagaiak berriro ontziratze-sistemak. Ontziratze-sistematik eskakizunak eta motak. - Sendagaien epeak noiz amaitzen diren kontrolatzeko eta erregistratzeko koadernoak, ospitale-farmaziako zerbitzuetan. - Bilkinaren kudeaketa. Inbentarioak. Inbentario motak. Biltegiko fitxak. Biltegiko mugimenduen erregistroa eta kontrola. Produktuen kontrola. Izakinak baloratzeko sistemak. - Farmaziako produktuen ohiko aldaketak. Kausak (tenperatura, hezetasuna...). Agerpenak. Epe-amaierak. Kontserbazioa. - Produktuak itzultzeko prozedura. Legezko araudia. - Produktuak kudeatzeko eta kontrolatzeko informatika-aplikazioak.
jarrerazkoak	- Kontrol- eta biltegitratze-arauak betetzeko interesa eta errespetua. - Txukuntasuna produktuak kokatzean. - Zorroztasuna datuak erregistratzean. - Zorroztasuna eta doitasuna sendagai ontziratutako unitate-dosi gisa banatzean ospitale-farmazietan. - Materialen aldaketa eta narriadura gisako kontingentzien aurrean erantzuteko gaitasuna.

ESKARIAK KONTROLATZEA	
prozedurazkoak	- Eskariak betetzea eta jasotzea. - Salerosketako dokumentuetako datuak identifikatzea eta egiaztatzea. - Eskariak hainbat sistemaren bidez jaulkitzea, aplikazio informatikoak barne. - Produktuak itzultzeko teknikak aplikatzea. - Materialen eta produktuen bajak eta altak erregistratzea.
kontzeptuzkoak	- Salerosketako dokumentuak. Entrega-oharrak, albaranak. Eskariak. Fakturak. Gastuen oharrak. Ordaintze-oharrak. Itzultze-orriak. - Eskariak eskatzeko teknikak. Eskaera modalitateak. - Eskariak hartzeko teknikak. Albaranaren egiaztapena. Hornitzaileen, gaien eta hobarien balidazioa. - Sorgogarriak eta psikotropikoak eskuratzeko, itzultzeko eta erregistratzeko baldintza bereziak. Legeria - Eskariak igortzeko eta hartzeko sistemak. - Ospitale-unitateetako botikinak berrezartzeko sistemak, egindako eskarien arabera. - Farmazia-establezimenduetan eta ospitale-farmazian eskariak kontrolatzeko aplikazio informatikoak. - Eskariak kontrolatzeko aplikazio informatikoak.
jarrerazkoak	- Ordena eta antolamendua erabilitako dokumentazioan. - Aplikazio informatikoak erabiltzeko interesa eta trebetasuna. - Sendagai bereziei buruzko araudia betetzeko interesa eta errespetua.

ERREZETAK FAKTURATZEKO IZAPIDEA	
prozedurazkoak	- Errezetak betetzea eta berraztertzea. Huts-egiteak bilatzea. - Errezetak entitatearen, prestazioaren, sendagaiaren edo produktuaren arabera identifikatzea eta sailkatzea. - Kobratze-ekarpenak eta kupoia/zigilua kalkulatzeko. - Kutxan kobratzea eta kontrolatzea. Zenbatekoak egiaztatzea. - Errezetak fakturatzeko txostenak betetzea. - Fakturazio-datuak euskarri informatikoan grabatzea. - Errezetak igortzea.
kontzeptuzkoak	- Farmazia-prestazioak. Modalitateak eta motak. - Mediki-errezeta. Ezaugarriak, datuak, eskakizunak. Baliagarritasun, kontserbazio eta zaintzarako epeak. Errezeta mota. Kobratze-ekarpenak, errezeta modalitateen arabera. - Farmazia-produktuen kartoia eta kupoia/zigiluak. Kalkulatzeko teknikak. - Errezetak sailkatzeko sistemak eta teknikak. - Errezetak fakturatzeko beharrezko izapideak: epeak, baldintzak eta likidazioa. - Errezetak fakturatzeko aplikazio informatikoak.
jarrerazkoak	- Dokumentazioa betetzeko doitasuna. - Txukuntasuna lana garatzean. - Erantzukizuna datuen konfidentzialtasuna mantentzea.



BILTEGIAREN KUDEAKETAN INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	- Jarduera jakin bat gauzatzeko aplikazio egokia hautatzea. - Datuak eguneratzea eta berraztertzea. Altak eta bajak sartzea. - Dokumentazio administratiboa eta biltegikoa erabiltzea, kudeatzea eta artxibatzea. - Bildutako informazioa estatistikoki ustiatzea eta txostenak egitea.
kontzeptuzkoak	- Informatika-aplikazioak. Kalkulu-orriak. Testu-prozesadoreak. Aplikazio bereziak. Ezaugarriak eta erabilgarritasunak. - Produktuen, hornitzaileen eta erabiltzaileen artxiboak. Erabilera eta aplikazioak. - Izakinen sarrerak eta irteerak erregistratzeko sistemak. Biltegia kontrolatzeko inprimaki-artxiboak eta izakinen inbentarioa. - Informazioa helaraztea. Komunikazio-sareak eta posta elektronikoa.
jarrerazkoak	- Aplikazio informatikoak erabiltzeko interesa eta trebetasuna. - Txukuntasuna eta doitasuna datuak sartzean eta txostenak egitean.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Moduluari hasiera emateko, honako kontzeptuak azaldu beharko dira: osasuna, gaixotasuna, prebentzio-mailak, tratamendu terapeutikoa, farmazia-arretako zerbitzuak, eta farmaziako eta parafarmaziako teknikariaren funtzioak eta eskumenak.

Ondoren, sendagaiekin, hornitzaileekin, farmazialarien elkargoarekin eta abar lotzen den dokumentazioa eta legegintzako ezagutzak jorratzea proposatzen da. Dokumentazioa betetzeko eta datuak egiaztatu eta sailkatzeko praktikak ere egingo dira.

Ondoren, biltegiaren eta eskarien kontrola aztertzea proposatzen da. Honako prozesuari jarraituko zaio:

- Eskariak jasotzea eta egiaztatzea.
- Produktuak antolamendu-irizpideen eta kontserbazio-baldintzen arabera identifikatzea eta kokatzea.
- Izakinak kudeatzea. Gutxieneko eta gehieneko bilkinak eta izakinak txandatzea.
- Osasun-biltegi-tako segurtasunari eta higieneari buruzko arauak betetzea.
- Inbentarioak egitea.

Azkenik, errezetak fakturatzeko izapidea landuko da. Sailkatzearen, berraztertzearen, eskakizunen eta ehunekoak kalkulatzeko teknikari jarraituko zaio fakturazioa aplikazio informatiko bidez egitean eta fakturak igortzean.

Saio zehatzak egin beharko dira dokumentazioa edo biltegia kudeatzean erabiltzen diren informatika-aplikazioak erabiltzen jakiteko, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen jakiteko ere –informazioa jaso eta igortzeko bitarteko gisa—. Zehazki, aplikazio horiekin lotzen diren prozesuak ikasten eta gauzatzen diren heinean, aplikazio horiek ere jorratzea proposatzen da.

Funtsezkoa izango da Farmazia-produktuen banaketa eta Parafarmazia-produktuen banaketa moduluak ematen dituzten irakasleekin koordinatzea. Batetik, kontzeptuzko eduki batzuk errepikatu ahal izango dira, hala nola kontserbazioarekin lotzen diren manipulatzeko arauak buruzkoak edo banatzeko eta biltegiatzeko baldintzei buruzkoak. Bestetik, produktuak eta sendagaiak katalogatzeko, sailkatzeko eta banatzeko suposizioak egitean, komeni da kasu bakoitzarekin lotzen den dokumentazioa erabiltzea, eta dokumentazioa behar bezala beteta dagoen behatzea eta datuak egiaztatzea. Izan ere, prozedura horiek modulu honetan ikasten dira.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau egituratzeko, prozeduretan finkatuko da ardatz nagusia, eta, hortaz, irakasleak ikasle bakoitzaren ikasteko prozesuaren banako eta hurbileko jarraipena egin beharko du.

Komeni da kontzeptuak azaldu ostean, suposizio bakoitzeko jarduerari ekitea eta lan-munduan erabiltzen den formatu bereko materiala erabiltzea. Farmazia-bulegoetako eta ospitale-farmaziako zerbitzuetako barne-erabilerako dokumentazioa izango da (zirkularrak, buletinak, errezeta motak, ospitale-agindu medikoak, eta abar). Helburua sektorearekin ohitzea da, ezaugarriak eta baldintzak lantzea eta kudeatzeko beharrezko teknika guztiak jorratzea.

Dokumentazioa aplikazio informatikoen bitartez kudeatzeko teknikak ikastean, behar bezala antolatu beharko da prozesua, ikasleak urrats bakoitzean zer dokumentu lortu behar den ikasteko.

Behar-beharrezkoa izango da produktuak kokatzeko jardun praktikoak diseinatzea. Jarduera horietan izakinen kudeaketan ordena eta segurtasuna sustatuko da, eta, horrela, ikasleek kontserbazio-baldintzen eta mantentzearen arloan indarrean dagoen araudia aplikatzen ikasiko dute. Gainera, jarduera horietan zorrotasunaren eta doitasunaren garrantzia nabarmendu beharko da –horiek ez betetzeak eragin ditzakeen ondorioengatik—. Nolanahi ere, jarduera horiek azaldu eta arrazoitu egin beharko dira, ikasleak horien garrantziaz jabe daitezen. Sistematikoki eskatuko dira.

Biltegiatzeko lanekin lotzen diren edukiak praktikan jartzeko, suposizio praktikoak hartuko dira abiapuntu. Suposizio horietan albaranak eta fakturak egiaztatuko dira, eskarian adierazten diren gaiak egiaztatuko dira, sarrerak erregistratu eta artxibatuko dira, farmazia-kodeak identifikatuko dira eta produktuak txukuntasun eta kontserbazio-irizpideen arabera antolatuko dira. Produktuen amaiera-epeak berraztertuko dira eta produkturen bat epez kanpo edo narriatuta dagoela hautematen bada, gainerakoetatik berezi egingo da itzultzeko. Azkenik, inbentarioaren liburuan erregistratuko dira produktuen bajak eta altak.

Dokumentazioaren kudeaketa aplikazio informatikoen bidez egiten denez gero, errezeten izapideekin lotzen diren gaiak aztertzen direnean, komeni da ikaslea fakturazioa egiteko beharrezko datuak grabatzeko gauza izatea. Halaber, komeni da edukietan biltegia kudeatzeko teknikak eta sistemak landu ahala erabiltzea sarrerak eta irteerak erregistratzeko berariazko aplikazioak –edota, hala badagokie, produktuak itzultzekoak edo beste gertakari batzuetakoak—.

Ezinbestekoa izango da farmazia-bulegoetako programa informatiko bereizgarrietako bat erabiltzea. Horrela, ikasleek farmazia-dokumentazioaren kudeaketaren eta biltegi-kudeaketaren berariazko aplikazioak maneiatzeko beharrezko trebetasuna eskuratu ahal izango dute. Hori dela eta, behar-beharrezkoa izango da informatika-gela edukitzea,



ikasleek lanbide-jarduerak egin ahal izan ditzaten –ahal izanez gero banan-banan– eta egiten diren akatsak ikasteko prozesuan bertan zuzendu ahal izan daitezten.

Jardueren garapena sistematikoki errepikatzea iradokitzen da, oso ohikoak baitira lantokietan, eta ikasleek behar besteko autonomia eta ekimena eskuratu behar baitute jardun horietan.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Farmazia-dokumentazioaren administrazioa.
 - Osasun-sistemaren organigramak interpretatzea eta lantzea.
 - Farmazia eta parafarmaziako zerbitzuen edo farmazia-produktuen erregulazioarekin lotzen diren dokumentuak, zirkularrak eta abar interpretatzea.
 - Kanpo-erabilerako dokumentuetako datuak betetzea eta egiaztatzea.
 - Dokumentazioa sailkatzea eta artxibatzea.
- ✓ Biltegiko kontrola.
 - Biltegia prestatzea eta berriz jartzeko, erakusteko eta banatzeko espazioa banatzea.
 - Sendagaiak eta osasun-produktuak antolamendu-irizpideen arabera kokatzea.
 - Sendagaiak berriz jartzeko eta amaiera-epeak berraztertzeke jarraitu beharreko protokoloak lantzea.
 - Produktu berezietarako sarreren eta irteeren erregistroa lantzea: sorgogarriak, psikotropikoak, formula magistralak, eta abar.
 - Biltegiko material eta produktu guztien inbentarioa egitea.
- ✓ Eskariak kontrolatzea.
 - Eskariak hartzea eta albaranetako eta fakturretako datuak egiaztatzea.
 - Aplikazio informatikoak erabiltzea eskariak egiteko, produktuak itzultzeko eta sendagaien eta osasun-produktuen fakturak egiteko.
 - Dokumentuak artxibatzea eta erregistratzea.
- ✓ Errezetak bideratzea eta fakturatzea.
 - Errezetak aseguru-entitateen arabera eta prestazioaren arabera sailkatzea. Huts-egiteak bilatzea.
 - Ehunekoak eta kupoia/zigilua kalkulatzeko.
 - Errezetak fakturatzeko aplikazio informatikoa erabiltzea. Errezetak igortzea.
- ✓ Biltegiaren kudeaketan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak aplikatzea.
 - Eskatutako jardueraren araberrako aplikazio egokia erabiltzea.
 - Produktuen, hornitzaileen eta erabiltzaileen artxiboak erabiltzea.
 - Txosten estatistikoak lortzeko datuak grabatzea.
 - Informazioa idaztea eta helaraztea. Posta elektronikoa erabiltzea.

3. lanbide-modulua: FARMAZIA PRODUKTUEN BANAKETA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Farmazia-produktuen banaketa
Kodea:	0101
Heziketa-zikloa:	Farmazia eta parafarmazia
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Osasuna
Iraupena:	198 ordu
Kurtoa:	1.a
Irakasleen espezialitatea:	Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak (Lanbide Heziketako irakasle tekniko)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC0364_2: Farmazia-produktuen banaketan laguntzea, eta erabiltzaileei produktu horien erabilerari buruz informatzea, parametro somatometriko sinpleak finkatuz, fakultatiboaren gainbegiratupean.
Helburu orokorrak:	4.a / 5.a / 6.a / 9.a / 20.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Farmazia-produktuak banatzeko protokoloak aplikatzen ditu eta agindua edo eskaria interpretatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Produktuak banatzea eta saltzea bereizi du.
- Erabiltzaileak kontsulta mediko batera zein kasutan jo behar duen deskribatu du.
- Paketean agertzen diren sinboloen eta legenden arabera produktua banatzeko baldintzak identifikatu ditu.
- Produktua baliozkoa den epea, jarraibide posologikoak, elkarreraginak eta kontraindikazioak identifikatu ditu.
- Agindutako produktua eta banatutakoa bat datozela egiaztatu du, osaerari, hartzeko bideari eta aurkezpenari dagokionez.
- Argibide-orrietako eta dokumentazio teknikoetako jarraibide posologikoak interpretatu ditu.
- Sendagaia aurkitu du datu-basean.
- Farmazia-produktuak identifikatu ditu eta horien ezaugarriak deskribatu ditu.
- Erabiltzailearen tratamenduari buruzko datuak euskarri informatikoan erregistratu ditu.

2. Sendagaiak banatzen ditu eta aplikazio terapeutikoekin eta erabilera-baldintzekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Sendagaien sailkapen anatomiko-terapeutikoak deskribatu ditu.
- b) Printzipio aktibo adierazgarrienak identifikatu ditu eta aplikazio terapeutikoekin lotu ditu.
- c) Multzo terapeutikoak ekintza-tokiarekin, aplikazio nagusiekin, erabilera-baldintzekin eta sortutako ondorioekin lotu ditu.
- d) Farmakoek dituzten kontrako ondorioak deskribatu ditu, baita sendagaiekin intoxikatzearen ondoriozko egoerak ere.
- e) Sendagai bat hartu ostean espero den erantzuna alda dezaketen egoera fisiologiko bereziak deskribatu ditu.
- f) Farmazia-espezialitateen katalogoan sendagaiei buruzko datuak aurkitu ditu.
- g) Farmazia-produktuak eta antzeko funtzioak, ondorioak, ezaugarriak eta erabilera-baldintzak dituzten antzeko beste batzuk lotu ditu.
- h) Sendagaiari buruzko informazioa eman dio erabiltzaileari.
- i) Automedikazioaren arriskuak deskribatu ditu.
- j) Dosifikazioaren zerbitzu pertsonalizatua egin du.

3. Ospitale-erabilerako farmazia-produktuak banatzen ditu eta ospitalearen antolamendu-protokoloak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Unitate-dosi bidezko sendagaien banaketa-sistemaren banaketa definitu du.
- b) Banaketarako ospitaleko aginduak eta protokoloak interpretatu ditu.
- c) Farmazia-produktuen ospitale-kontrola deskribatu du.
- d) Sendagaien ospitale barneko banaketa-sistemak zehaztu ditu.
- e) Ospitaleko unitateen botikinak berraztertze eta osatzeko lanetan lagundu du.
- f) Eskatutako produktuen araberrako agintze-baimenak eta banaketa-eskakizunak zehaztu ditu.
- g) Produktua aginduekin bat datorrela egiaztatu du, betiere osagaiaren, farmazia-formaren, hartzeko bidearen eta aurkezpenaren arloan.
- h) Banaketa-fitxak landu ditu.
- i) Indarrean dagoen legeriak ezartzen duen dokumentazioa bete du, baita beste baldintza batzuk ere.

4. Homeopatia-produktuak banatzen ditu eta aplikazio nagusiekin, erabilera-baldintzekin eta sortzen duten ondorioarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Homeopatia-printzipioak deskribatu ditu.
- b) Homeopatia-sendagaien ekintza terapeutiko nagusiak adierazi ditu.
- c) Homeopatia-aginduen oharren esanahia interpretatu du.
- d) Homeopatia-sendagaiak erabiltzeko jarraibideak eta arretak azaldu ditu, baita horiek zentzuz erabiltzeko jarraibideak ere.
- e) Homeoterapiari baliagarriak diren iturri dokumentalak identifikatu ditu.
- f) Homeopatia-produktuei buruzko datu-baseen programa informatikoak erabili ditu.

- g) Homeopatia-sendagaiari buruzko informazioa eman dio erabiltzaileari.

5. Produktu fitoterapeutikoak banatzen ditu eta aplikazio nagusiekin, erabilera-baldintzekin eta sortzen duten ondorioarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Printzipio aktiboak jatorri biosintetikoaren arabera sailkatu ditu, eta haien garrantzi terapeutikoa deskribatu du.
- b) Interes fitoterapeutikoko bigarren mailako metabolitoen multzo nagusiak deskribatu ditu.
- c) Sendabelarren printzipio aktiboak isolatzeko, identifikatzeko eta kuantifikatzeko prozedurak deskribatu ditu.
- d) Patologia bakoitzerako erabilitako sendabelarrak aipatu ditu.
- e) Sendabelar bakoitzerako ekintza farmakologikoak, erabiltzeko modua eta kontraindikazioak zehaztu ditu.
- f) Prestakin edo produktu fitoterapeutikoaren kontraindikazioen eta erabiltzeko moduaren berri eman dio erabiltzaileari.
- g) Fitoterapiako iturri dokumental erabilgarriak identifikatu ditu, eta kontsultatzeko behar besteko zorroztasunik ez dutenetatik bereizi ditu.
- h) Sendabelarrei buruzko datu-baseen programa informatikoak erabili ditu.
- i) Sendabelarretako sendagaiei dagokienez indarrean dagoen legezko araudia azaldu du.
- j) Produktu fitoterapeutikoari buruzko informazioa eman dio erabiltzaileari.

6. Animalengan erabiltzeko produktuak banatzen ditu eta aplikazio nagusiekin, erabilera-baldintzekin eta sortzen duten ondorioarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Animalengan erabiltzeko sendagaien kontzeptua definitu du.
- b) Terapeutikan gehien erabiltzen diren animalengan erabiltzeko sendagaiak deskribatu ditu.
- c) Animalien erabiltzeko sendagaien ekintza terapeutiko nagusiak adierazi ditu.
- d) Animalengan erabiltzeko sendagaiak erabiltzeko jarraibideak eta arretak zerrendatu ditu, baita horien zentzuzko erabilera ere.
- e) Farmazia-espezialitateen katalogoan animalengan erabiltzeko sendagaiei buruzko datuak aurkitu ditu.
- f) Animalengan erabiltzeko sendagaiei buruzko datu-baseen programa informatikoak erabili ditu.
- g) Animalengan erabiltzeko produktuaren berri eman dio erabiltzaileari, eta erabiltzeko baldintzak, aplikazioa eta kontraindikazioak deskribatu ditu.

c) Edukiak

FARMAZIA PRODUKTUEN ESKAERA EDO AGINDUA INTERPRETATZEA

prozedurazkoak	- Farmazia-produktuak banatu eta saltzeko lanak bereiztea. - Farmazia-arloko kontseiluak ematean edo produktuak banatzean, programa informatikoak eta bibliografia erabiltzea. - Sendagaiak egokitzearen sinboloak eta legendak identifikatzea eta interpretatzea. - Errezeten eta aginduen datuak interpretatzea eta egiaztatzea. - Sendagaiak eta errezetak erregistratzeko teknika informatikoak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	- Farmazia-produktuak banatzeko eta saltzeko teknikak. Desberdintasunak. Gehien erabiltzen diren farmazia-terminoak. - Farmazia-espezializazioa. Farmazia-espezialitate generikoa eta publizitatekoa. Sendagaien 1. eta 2. egokitzapena. - Mediker-errezeta. Errezetarik gabeko sendagaiak. - Banatutako sendagaiak erregistratzeko sistemak. - Sendagaiak banatzeari eta saltzeari aplikatutako programa informatikoak. - Sendagaiak banatzearen eta saltzearen alorrean indarrean dagoen araudia.
jarrerazkoak	- Erantzukizuna sendagaiak maneiatzean. - Ingurumena kaltetu gabe sendagaiak ezabatzeko eta birziklatzeko indarrean dagoen araudiarekiko errespetua. - Adeitasuna eta diskrezioa pertsonetik harremanetan. - Banatzeko lanetan ezusteko egoerei erantzuteko gaitasuna.

SENDAGAIK BANATZEA

prozedurazkoak	- Sendagaiak sailkatzea. ATC sailkapena. - ATC sailkapenaren arabeko printzipio aktibo adierazgarrienak identifikatzea. - Hartzen denetik desagertzen dena arte, sendagaiak egiten duen bidea interpretatzea. - Sendagaiak errezetarekin edo errezetarik gabe banatzea. Errezetak sailkatzea. - Sendagaiei buruzko datuak maneiatzea eta bilatzea espezialitateen katalogoan, bibliografian eta sistema informatikoetan.
kontzeptuzkoak	- Oinarrizko farmakologia. Farmazia-formak. Sendagaiak hartzeko bideak. - Oinarrizko farmakozinetika. LADMER prozesuak (askatzea, xurgatzea, banatzea, metabolismo, hustuketa eta erantzuna). Sendagaien elkarrekinak. Aurrakio erreakzioak. - Farmakodinamia. Sendagaien ekintza farmakologikoa. - Farmakoen dosifikazioa. Dosi motak. Dosifikazioan esku hartzen duten faktoreak. - Sendagaiak sailkatzeko sistemak. Sailkapen anatomiko-terapeutikoa. Multzo terapeutikoa. - Zirkunstantzia berezietako sendagaiak. - Sendagaiei buruzko datuak bilatzeko espezialitateen katalogoa, bibliografia eta sistema informatikoak (elkarrekinak, aurrakio

	ondorioak, adierazpenak,...).
jarrerazkoak	- Errespetua eta diskrezioa, agindutako tratamenduetan. - Doitasuna farmazia-produktuen kontrolean. - Kontsultatu ohi diren liburuetak eta programa informatikoetako sendagaiei buruzko informazioa zabaltzeko interesa. - Sendagaien erabilera okerrak eta automedikazioak osasunean izan dezakeen ondorioen gaineko sentsibilizazioa.

OSPITALE ERABILERAKO FARMAZIA PRODUKTUAK BANATZEA	
prozedurazkoak	- Ospitale-erabilerako sendagaiak identifikatzea. - Protokoloak aplikatzea unitate-dosi bidezko sendagaien banaketa-sisteman. - Medikuen aginduak interpretatzea ospitale-sendagaiak banatzean. - Sendagaiak unitate-dositik eta blisterretan berrontziratzea. - Medikuen aginduekin banatutako sendagaien ezaugarriak egiaztatzea (aurkezpena, osaera, farmazia-forma, hartzeko bidea). - Ospitale-zerbitzuan sendagaiak kudeatzeko eta banatzeko programa informatikoak maneiatzea.
kontzeptuzkoak	- Ospitale-erabilerako sendagaiak. Plantako botikinak. - Kontrol berezia duten farmakoak. Indarrean dagoen legeria. - Ospitale-sendagaiak banatzeko sistemak. Unitate-dosi bidezko sendagaien banaketa-sistema. - Ospitale-zerbitzuan sendagaiak kudeatzeko eta banatzeko programa informatikoak.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna eta doitasuna sendagaiak banatzean, betiere unitate-dosi bidezko sendagaien banaketa-sistema bidez. - Diskrezioa agindutako tratamenduetan, eta errespetua ospitaleko datuen konfidentziasunari dagokionez. - Adeitasuna pertsonetik harremanetan. - Sendagaiak banatzean eta berriz jartzean, narriadura, epe-amaiera, eta huts-egiteen gisako kontingentzien aurrean erantzuteko gaitasuna.

HOMEOPATIA PRODUKTUAK BANATZEA	
prozedurazkoak	- Homeopatiako terminologia interpretatzea. - Farmazia-formak, eszipienteak eta tresneria homeopatikoa identifikatzea. - Homeopatia-produktuak banatzea. - Homeopatiako prestakinak lantzeko modua eta informazio teknikoa azaltzea bezeroari/erabiltzaileari. - Dokumentazioa eta datu-baseak erabiltzea, homeopatia-produktuei buruzko informazioa bilatzeko.
kontzeptuzkoak	- Medikuntza homeopatikoa. Historia. Homeopatia-terminoak. Farmakologia eta farmakognosi homeopatikoa. Albaitaritzako homeopatia. - Farmazia-formak, eszipienteak eta tresneria homeopatikoa. Homeopatia-prestakinen berariazko eragiketak. - Homeopatiari buruzko bibliografia eta datu-baseak.

jarrerazkoak	- Trebetasuna homeopatiari buruzko bibliografia erabiltzean. - Zorroztasuna bezeroari ematen zaion informazioan. - Homeopatia-produktuen erabilera okerrak osasunean izan ditzakeen ondorioen gaineko sentsibilizazioa.
--------------	---

PRODUKTU FITOTERAPEUTIKOAK BANATZEA

prozedurazkoak	- Fitoterapiako terminologia interpretatzea. - Sendabelarrak identifikatzea. - Produktu fitoterapeutikoak banatzea. - Bezeroei/erabiltzaileei informazio teknikoa ematea. - Dokumentazioa eta datu-baseak erabiltzea, sendabelarrei buruzko informazioa bilatzeko.
kontzeptuzkoak	- Sendabelarrak. Landare-droga. Fitoterapia. - Landare-drogak oinarri dituzten prestakinak, eta terapeutikarekin duten lotura. - Farmazia-bulegoetan banatu ohi diren infusio edo egoskinetarako sendabelarrak. - Sendabelarrei buruzko bibliografia eta datu-basea.
jarrerazkoak	- Trebetasuna sendabelarren katalogoa maneiatzean. - Zorroztasuna bezeroari ematen zaion informazioan. - Produktu fitoterapeutikoen erabilera okerrak osasunean izan ditzakeen ondorioen gaineko sentsibilizazioa.

ANIMALIENGAN ERABILTZEKO SENDAGAIK BANATZEA

prozedurazkoak	- Farmazia-bulegoan gehien erabiltzen diren animaliengan erabiltzeko produktu eta sendagai farmazeutikoak identifikatzea. - Animaliengan erabiltzeko sendagaiak banatzea. - Bezeroei/erabiltzaileei informazio teknikoa ematea. - Dokumentazioa eta datu-baseak erabiltzea, animaliengan erabiltzeko sendagaiei buruzko informazioa bilatzeko.
kontzeptuzkoak	- Terapeutikan gehien erabiltzen diren animaliengan erabiltzeko produktu eta sendagai farmazeutikoak. Sailkapena. - Animaliengan erabiltzeko sendagaien ekintza eta erabilera terapeutikoa. Arretak. Erabiltzeko jarraibideak. - Sendagaien arrastoa animalia-jatorria duten elikagaietan. - Animaliengan erabiltzeko sendagaiei buruzko bibliografia eta datu-baseak.
jarrerazkoak	- Trebetasuna farmazia-espezialitateen katalogoa maneiatzean. - Zorroztasuna bezeroari ematen zaion informazioan. - Sendagaien erabilera okerrak animaliaren osasunean eta animalia-jatorriko elikagaiak kontsumitzen dituzten pertsonen osasunean izan ditzakeen ondorioen gaineko sentsibilizazioa.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

Aurretiazko iritziak

Modulu honek edukiak partekatzen ditu beste modulu batzuekin, eta beste modulu batzuetan kokatzen diren edukiak behar ditu irakatsi eta ikasteko prozesuan. Horrenbestez, irakasle-taldeak behar bezala programatu beharko ditu eduki horiek hutsunerik ez sortzeko edo beharrezkoak ez diren errepikatzeak saihesteko eta ikasleen ikasteko prozesua errazteko.

Eduki horiek errezeten eta farmazia-bulegoko administrazio-dokumentuen kudeaketarekin lotzen dira (*Farmazia-bulegoa*, lanbide-moduluan lantzen direnak), baita farmazia-kontseiluko pertsonetikiko tratuarekin eta komunikazioarekin ere (*Osasuna sustatzea* lanbide moduluan lantzen direnak).

Eduki horiez gain, giza gorputzaren organoen eta aparatuen eta horien patologien azterketarekin lotzen direnak ere aztertuko dira (Oinarrizko anatomofisiologia eta patologia lanbide-moduluan lantzen direnak). Izatez, guztiz lotuta daude sendagaien sailkapen anatomiko eta terapeutikoaren (ATC) azterketarekin.

1) Sekuentziazioa

Lehen bi eduki multzoekin eman dakioke hasiera modulu honi. Bi eduki multzo horiek gainerako edukiak ikasteko oinarritzko eta sarrerako izaera dute, eta, horrenbestez, komeni da beharrezko denbora eskaintzea bi eduki multzo horiei, edukiak behar bezala ikas daitezen. Eduki horiek funtsezkoak dira Farmaziako eta parafarmaziako teknikari batentzat.

Bi lehen eduki multzo horiekin ikasitakoa, beraz, gainerako eduki multzoen edukiei ekiteko zutabea edo oinarria izango da. Gainerako eduki multzoak emateko ordena irakasleak ezartzen duen programazioaren arabera izango da. Edonola ere, dokumentu honetan aurkeztu den ordena egokia izan daiteke.

2) Alderdi metodologikoak

Edukiak garatzeko garaian erabili beharreko metodologia askotarikoa eta oso desberdina izan daiteke, baina komeni da honako iradokizunetako batzuk aintzat hartzea:

Kontuan izan behar da lanbide-modulu honetako edukiak ezezagunak direla Heziketa Ziklo honetako ikasle gehienentzat –hainbat hezkuntza-mailatik etorritakoak izan daitezke–. Hori dela eta, behar-beharrezkoa izango da pertsona bakoitzaren ikasteko prozesuaren egunez eguneko banakako jarraipena egitea, funtsezko lanbide-modulua baita Farmaziako eta parafarmaziako teknikari batentzat.

Farmazia-produktuen banaketako lanbide-modulu hau praktikoa da batik bat, baina kontzeptuzko eta jarrerazko karga handia eta berria du. Horrenbestez, tituluaren kompetentzia profesionalak eta helburuak lortzeko gida izango diren prozedurak gauzatu ahala txertatuko dira kontzeptuzko eta jarrerazko edukiak. Komeni da lortu nahi diren helburuetara egokitutako eta ondo definitutako egoera eta suposizio praktikoak lantzea banaketako lantegian.

Batzuetan, berariazko kontzeptuzko edukiak landu beharko dira beste gai bati hasiera ematean. Kasu horietan, komeni da hasieran aurkezpen teorikoa egitea, eta talde-dinamikaren bat erabiltzea –“ideia-zurrumbiloa” esate baterako–. Izan ere, ikasgelan eztabaida sustatu eta pasibotasuna saihestu nahi da, eta ikasleek landu beharreko gai horretan dituzten ezagutzei eta interesei buruzko informazioa bildu nahi da.

Jarrerazko edukiak sistematikoki hartu beharko dira kontuan, oso garrantzitsuak baitira, batez ere komunikazioari eta pertsonetikiko harremanei dagokionez, laneko ardurari dagokionez, kontsultatu behar diren kasuen identifikazioari dagokionez, bezeroari ematen zaion informazioaren zorroztasunari dagokionez,... Hortaz, eduki horiek emateko beharrezko denbora hartu beharko da, eta moduluaren hasieratik amaierara arte eskatuko zaizkio ikasleari.

Beharrezko espazioen, ekipamenduen eta materialen alorrean, ezinbestekoa izango da farmazia-bulego batean farmazia-produktuen banaketa simulatu ahal izateko ikasgela-lantegia edukitzea. Ikasgela-lantegi horretan, beraz, sendagaiak unitate-dositan, blisterretan eta asteko kutxetan banatzeko ospitale-suposizio praktikoak egin daitezke, baita askotariko sendagaien eta farmazia-produktuen kopuru handi bat antolatzeke eta kokatzeko armairu eta apalen suposizio praktikoak eta sektorean erabili ohi diren dokumentuen suposizio praktikoak ere.

Bestalde, farmazia-sektorean ohikoak diren kontsultak egiteko material bibliografikoa eduki beharko da, paperean zein euskarri informatikoan. Interesgarria izango da honakoak edukitzea: banatzeko arauak buruzko eskuliburu bat, Vademecum-ak, sendagaien katalogoak, sendabelarren katalogoak, parafarmaziako katalogoak, hiztegi medikoak eta farmakoen hiztegiak, homeopatia-sendagaien datu-baseak.... Guztiak eskolak emateko garaian sektorean erabiltzen direnak eta organismo ofizialek argitaratutakoak.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Moduluaren garapenaren hainbat unetan –hasierakoetan, jarraipenekoetan eta amaierakoetan– planifikatzen diren jarduera guztiak nahitaez lotuko zaizkio ikasleen prestakuntzari eta OCDan ezartzen den konpetentzia profesionalari.

Hasierako jardueren artean honakoak iradoki dira:

- ✓Ikasleen esperientzietatik, telebistako albistegietatik, aldizkari dibulгатiboetatik edo egunkarietatik ateratako benetako edo irudimeneko kasu sinpleen azalpena –ikasgelan guztien parte-hartzea eta eztabaida sustatuko dutenak–.
- ✓Terminoak definitzea, galdetegi sinpleak, gurutzegramak edo letra-zopak, adibidez, egitea.
- ✓Talde-teknikak erabiltzea –hala nola ideia-zurrumbiloa– ikasleen jakintzak, iritziak eta abar ezagutzeko.
- ✓Kartoian agertzen diren siglen eta sinboloen arabera edo merkataritza-markaren ordena alfabetikoaren arabera antolatzea sendagaiak apaletan. Fitxak egitea.
- ✓Errezeta medikoen baliagarritasuna edo baliogabezia identifikatzea eta egiaztatzea.

Orokorrean, aurretiazko ezagutzei buruzko informazioa lortzeko eta ikasleak motibatzeke diseinatutako jarduerak dira. Ikasleek parte har dezaten eta jorratu beharreko edukien

gainean interesa izan dezaten sustatu nahi da. 2 edo 3 pertsonako taldeetan egitea iradokitzen da, talde handiagoekin parte-hartzea murriztu egingo baita.

Lanbide-moduluarekin jarraitzeko jarduerak, berriz, konplexuagoak eta banakakoak izango dira. Pertsona bakoitzaren ikasteko prozesuari buruzko informazioa lortzeko aukera emango dute.

- ✓ Prebentzioarekin, sendaketarekin edo gaixotasuna arintzearekin lotzen diren proiektzio dokumental laburrak. Ikasleek idatziz eman ahal izango dute gero eta helduagoa eta sakonagoa izango den iritzi kritikoa, eta hizkuntza espezifiko eta egokia erabiliko dute.
- ✓ Jarduera bera, baina osasunarekin eta sendagaiarekin lotzen diren aldizkari zientifikoetako, egunkarietako, berariazko gehigarrietako artikuluekin.
- ✓ Ikasgela-lantegian sendagaiak sailkatzea, betiere ikasten ari diren edukien arabera:
 - Sendagaietako farmazia-formak identifikatzea.
 - Sendagaiak hartzeko bideak identifikatzea.
 - Farmazia-espezialitateak sailkatzea.
 - Homeopatia-sendagaiak sailkatzea.
 - Sendabelarrak sailkatzea.
- ✓ Jarduera horiekin lotzen diren fitxak eta txostenak lantzea.
- ✓ Errezetak sailkatzea.
- ✓ Farmakoen dosiak kalkulatzearekin lotzen diren arazoak ebaztea.
- ✓ Farmazia-produktuak errezetarekin eta errezeta gabe banatzeko eta saltzeko kasuen simulazioak egitea, eta, hala, bezeroari beharrezko galderak egitea eta sendagaiak erabiltzeari buruzko aholkuak ematea –kasu sinpleekin hasiko da, eta moduluarekin aurrera egin ahala areagotuko da zailtasuna–.
- ✓ Ospitaletan unitate-dosi bidezko sendagaiak banatzeko kasuen simulazioak egitea.
- ✓ Ospitale-plantetako, kliniketako edo egoitzetako botikinak osatzeko simulazioak egitea.
- ✓ Sendagaien katalogoan sendagaiei buruzko informazioa bilatzea: errezeta behar duten sendagaiak, errezeta behar ez dutenak, EFG, EFP, ECM, TLD, psikotropoak, sorgogorriak, ASSS, zizero dutenak, DH, H,...
- ✓ Sendabelarren katalogoan informazioa bilatzea.
- ✓ Homeopatia-sendagaien Vademecumean informazioa bilatzea.

Azkenik, ikasleen amaierako ebaluaziorako diseinatuko diren jarduerak hiru eduki motak izan beharko dituzte kontuan (prozedurazkoak, kontzeptuzkoak eta jarrerazkoak), eta proposatutako helburuak irakatsi eta ikasteko prozesu osoan lortzea baloratuko da.

4. lanbide-modulua:

4 PARAFARMAZIA PRODUKTUEN BANAKETA ETA SALMENTA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Parafarmazia-produktuen banaketa eta salmenta
Kodea:	0102
Heziketa-zikloa:	Farmazia eta parafarmazia
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Osasuna
Iraupena:	165 ordu
Kurtsoa:	1.a
Irakasleen espezialitatea:	Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak (Lanbide Heziketako irakasle tekniko)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC0365_2: Parafarmazia-produktuen eta osasun-produktuen banaketan laguntzea eta erabiltzaileei produktu horien erabilerari buruz informatzea, fakultatiboaren gainbegiratupean.
Helburu orokorrak:	4.a / 5.a / 20.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Parafarmazia-produktuak banatzeko protokoloak aplikatzen ditu eta agindua edo eskaria interpretatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Farmazia-produktuak eta parafarmazia-produktuak bereizi ditu.
- Erabiltzaileak kontsulta mediko batera zein kasutan jo behar duen identifikatu du.
- Eskariak gogobete ditzaketen parafarmaziako produktuen, materialen eta ekipamenduen motak zehaztu ditu.
- Farmazia, parafarmazia eta ortopediako establezimenduetan gehien erabiltzen diren ortopedia, protesi, audioprotesi eta optika oftalmikoko materialen katalogoko produktuak berezi ditu.
- Parafarmazia-produktuak hornitzeko eta banatzeko erregimena identifikatu du, Osasun Sistema Nazionalaren eta beste entitate aseguratzaileen finantziazioan barne hartzen direnak.
- Produktuaren informazio teknikoa eta egokitutako materialaren sinboloak interpretatu ditu.
- Argi eta labur eman du produktuaren ezaugarrien eta erabiltzeko moduaren berri.

h) Informazioa argiro, ordenaz eta doitasunez eman du.

2. Osasun-produktuak eta produktu biozidak hautatzen ditu, horien ezaugarriak deskribatzen ditu, eta horien aplikazioak eskariarekin eta aginduarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Osasun-produktuak sailkatu ditu.
- b) Osasun-produktuek gaixotasunak edo lesioak prebenitzeko, kontrolatzeko, tratatzeko edo arintzeko duten erabilgarritasuna deskribatu du, baita urritasunak zuzentzeko eta sorkuntza erregulatzeko duten erabilgarritasuna ere.
- c) Osasun-produktua erabiltzailearen eskariarekin edo behararekin lotu du.
- d) Osasun-arloko materialak eta ekipamenduak erabiltzeko argibideak interpretatu ditu.
- e) Agente biozidak sailkatu ditu.
- f) Agente biozidak eta horien aplikazioak bereizi ditu.
- g) Agente biozidekin trata daitezkeen infestazio parasitarioak ezagutu ditu.
- h) Erabiltzailea adeitasunez, errespetuz eta diskrezioz hartu du.

3. Produktu dermofarmazeutikoak hautatzen ditu eta larruazalarekin, ilearekin eta larruazaleko erantsiekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Larruazalaren eta larruazaleko erantsiaren egitura eta fisiologia deskribatu du.
- b) Kontsulta medikoaren beharra izan dezaketen aldaketak identifikatu ditu.
- c) Produktu dermofarmazeutikoak sailkatu ditu.
- d) Dermofarmazian erabilitako produktuen ezaugarriak eta prestazioak deskribatu ditu.
- e) Haurraren larruazala eta ilea zaintzearekin, babestearekin eta tratatzearekin lotzen diren produktu dermofarmazeutikoak identifikatu ditu.
- f) Fotobabesean erabilitako produktuen ezaugarriak eta aplikazioak deskribatu ditu.
- g) Produktu kosmetikoek sortutako aurkako erreakzioen aurrean kosmetozaintzako fitxa bete du.
- h) Erabiltzailearen beharrak identifikatu ditu eta gogobete dezaketen produktu dermofarmazeutikoak zehaztu ditu.

4. Ahoaren eta hortzen higienarako produktuak hautatzen ditu, eta haien aplikazioak erabiltzailearen beharrekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ahoaren eta hortzen osasun-baldintzak identifikatu ditu.
- b) Kontsulta medikoa eskatzen duten ahoaren eta hortzen nahasteak onartu ditu.
- c) Ahoaren eta hortzen higienarako produktuak horien sailkapenaren arabera sailkatu ditu.
- d) Ahoaren eta hortzen higienarako produktuen erabilera-baldintzak deskribatu ditu.
- e) Ahoaren eta hortzen higienarako produktu kosmetikoak eta DENT erregistroa duten produktuak berezi ditu.

5. Produktu dietetikoak hautatzen ditu eta egoera fisiologikoetan erabiltzea eta eskakizun nutrizional berezien eskakizunetako egoeretan erabiltzea justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Nutriente multzoak eta funtzio nagusiak deskribatu ditu.
- Eskakizun nutrizional bereziak dituzten adin multzoak identifikatu ditu.
- Egoera fisiologiko berezietako eta patologikoetako eskakizun nutrizionalak aztertu ditu.
- Dietoterapian erabilitako dieta motak ezagutu ditu.
- Egoera fisiologiko berezietan erabilitako prestakin dietetikoak bereizi ditu.
- Produktu dietetikoaren erabilera desegokiak osasunaren gainean izan ditzakeen ondorioak baloratu ditu.
- Pazienteen beharrei behar bezalako arreta jartzeko interesa azaldu du.

6. Ortopedi, protesi, audioprotesi eta optika oftalmikoko produktuak banatzen ditu, eta horien ezaugarriak eta aplikazioak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Farmaziako establezimenduetan eta zerbitzuetan ohikoak diren ortopedia, protesi, audioprotesi eta optika oftalmikoko materialak sailkatu ditu.
- Erabiltzailearen beharrak eta produktuaren prestazioak lotu ditu.
- Erabiltzaileak kontsulta mediko batera zein kasutan jo behar duen identifikatu du.
- Ortopedia, protesi, audioprotesi eta optika oftalmikoko materialak banatzeko baldintzak identifikatu ditu.
- Produktuen informazio teknikoa interpretatu du.
- Produktu ortopedikoak, protesikoak eta optikoak erabiltzeko moduak eta arretak adierazi ditu.
- Erabiltzailea adeitasunez, errespetuz eta diskrezioz hartu du.

c) Edukiak

PARAFARMAZIA PRODUKTUEN ESKAERA ETA AGINDUAK INTERPRETATZEA	
prozedurazkoak	- Parafarmazia-produktuak identifikatzea. - Parafarmazia-produktuak banatzeko eta saltzeko Europar Batasuneko araudia interpretatzea. - Parafarmazia-produktuen egokitzapenean agertu behar duten datuak, sinboloak eta legendak interpretatzea. - Parafarmazia-produktu bat banatu aurretik, kontsulta medikoa behar duten kasuak identifikatzea. - Parafarmazia-produktuen eskaera eta aginduak interpretatzea. - Parafarmazia-produktuen datuak bilatzeko programa informatikoak erabiltzea. - Parafarmazia-produktuak banatzeko eta saltzeko teknikak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	- Parafarmaziaren kontzeptu orokorrak. - Osasun-produktuen Europar Batasuneko erregulazioa. - Parafarmazia-produktuen egokitzapena. Sinboloak, legendak, siglak eta kodeak. Europako Erkidegoaren adostasun-marka. Ontzi eta etiketetarako nahitaezko datuak. - Parafarmazia-produktuak kodetzea. - Parafarmazia-produktuekin lotzen diren bibliografia eta aplikazio informatikoak. - Parafarmazia-produktuak banatzeko, saltzeko eta erregistratzeko

	teknikak.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna erabiltzaileari ematen zaion informazioan. - Adeitasuna pertsonetikiko harremanetan. - Parafarmazia-produktuei buruzko informazioa zabaltzeko interesa. - Zorroztasuna eskaera eta aginduak interpretatzean.

OSASUN PRODUKTUAK ETA PRODUKTU BIOZIDAK HAUTATZEA	
prozedurazkoak	- Osasun-produktuak identifikatzea. - Osasun-produktuak aginduaren edo eskaeraren arabera hautatzea. - Osasun-produktuak eta produktu biozidak banatzea eta saltzea. Erabiltzeko argibideak interpretatzea. - Ospitaleko osasun-produktuak prestatzea. - Pazientea eusteko eta inmovilizatzeko laguntza teknikoak erabiltzeko argibideak interpretatzea. - Parafarmaziako katalogoa erabiltzea.
kontzeptuzkoak	- Osasun-produktuak. Sailkapena. Ezaugarriak. Aplikazioak. - Sendaketak, josturak, puntzioak eta ebakiak egiteko materiala (gasak, orratzak, zundak, etab.). Injekzio-ekipoak. Zundak, katetereak eta kanulak. - Babes eta higienarako produktuak (xurgatzaileak, ostomia-produktuak, material elastikoa, preserbatiboak, etab.). - Eusteko eta inmovilizatzeko materiala. - Produktu biozidak eta intsektuak, akaroak eta beste antropodo batzuk uxatzeko produktuak. - Haurrentzako produktuak (biberoiak, txupeteak, hezegailuak,...). - Ospitaleetan berariaz erabiltzeko osasun-produktuak.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna bezeroari ematen zaion informazioan. - Osasun-produktuen eta bioziden erabilera okerrak osasunean eta ingurumenean izan ditzakeen ondorioetikiko sentsibilizazioa. - Adeitasuna pertsonetikiko harremanetan. - Ezusteko egoeretan erantzuteko gaitasuna.

PRODUKTU DERMOFARMAZEUTIKOAK HAUTATZEA	
prozedurazkoak	- Larruazalerako, azazkaletako eta ilerako parafarmazia-produktuak identifikatzea. - Bezeroari aholkuak ematean informazio tekniko egokia aplikatzea. - Parafarmaziako katalogoa erabiltzea. - Produktu kosmetikoak eta dermofarmaziakoak bereiztea. - Dermofarmazia-produktuak banatzea eta saltzea.
kontzeptuzkoak	- Dermofarmazia eta kosmetika. - Larruazalaren kosmetika (aurpegikoa, gorputzekoa, ezpainetakoa, begietakoa). Larruazalaren egitura eta motak. Larruazalaren babesa (eguzkia, lurra eta hotza). - Ilearen kosmetika (garbitzea, orraztea eta tindatzea). Ile motak. Ilearen babesa. Depilazioa eta epilazioa. - Haur-higienarako produktuak. - Gehien saltzen den apain-kosmetika.

jarrerazkoak	- Dermofarmaziako eta kosmetikako produktuen erabilera okerrak osasunean izan ditzakeen ondorioekiko sentsibilizazioa. - Adeitasuna eta diskrezioa pertsonetikiko harremanetan. - Dermofarmaziari eta kosmetikari buruzko jakintzak zabaltzeko interesa.
--------------	--

AHOAREN ETA HORTZEN HIGIENERAKO PRODUKTUAK HAUTATZEA

prozedurazkoak	- DENT erregistroa duten produktuak eta ahoaren eta hortzen higienarako produktu kosmetikoak bereiztea. - Ahoan eta hortzetan ohikoenak diren arazoak interpretatzea. - Ahoaren eta hortzen higienarako produktuak aplikatzeko eta erabiltzeko argibideak interpretatzea. - Ahoaren eta hortzen higienarako produktuak banatzea eta saltzea.
kontzeptuzkoak	- Ahoa eta ahoaren eta hortzen osasuna. Ahoaren eta hortzen arazo nagusiak. - Ahoaren eta hortzen produktuen sailkapena. - Ahoaren eta hortzen higienarako eta tratamendurako prestakinak. DENT erregistroa duten produktuak. Hortzetako produktu kosmetikoak.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna erabiltzaileari gehien komeni zaion gai motari buruz. - Adeitasuna eta diskrezioa pertsonetikiko harremanetan.

PRESTAKIN DIETETIKOAK HAUTATZEA

prozedurazkoak	- Produktu dietetikoak eta dietoterapikoak identifikatzea. - Hainbat egoera fisiologikoetako (haurdunaldiko, edoskitzaroko, haurtzaroko, zahartzaroko...) eskakizun nutrizionalak kalkulatzeko. - Dietak lantzea. - Elikagaien osaera-taulak maneiatzea. - Arrisku-egoerak aztertzea. - Prestakin dietetikoak banatzea eta saltzea.
kontzeptuzkoak	- Produktu dietetikoak eta dietoterapikoak. Dietoterapiko finantzagarriak. - Nutrienteek organismoan dituzten funtzioak. - Bularreko haurraren elikadura. Bularreko haurraren huts entzimatikoa. Haurrentzako elikagai-prestakinak. - Nutrizioa haurdunaldian eta edoskitzaroan. - Nutrizioa eta zahartzaroa. - Pisuaren kontrola. Dieta motak. Aholku dietetikoak.
jarrerazkoak	- Merkaturatzen diren produktu dietetikoaren erabilgarritasuna eta adierazpenak baloratzeko gaitasun kritikoa. - Zorroztasun zientifikoa informazioa helaraztean. - Produktu dietetikoaren erabilera okerrak osasunean izan ditzakeen ondorioekiko sentsibilizazioa. - Produktu dietetikoei buruzko informazioa zabaltzeko interesa.

ORTOPEDIA, PROTESI, AUDIOPROTESI ETA OPTIKA OFTALMOLOGIKORAKO PRODUKTUAK BANATZEA	
prozedurazkoak	- Ortopedian eta protesian gehien erabiltzen diren terminoak interpretatzea. - Erabiltzailearen beharrak eta banatu beharreko produktuaren prestazioak lotzea. - Ortopedia-produktua banatu aurretik, kontsulta medikoa behar duten kasuak identifikatzea. - Material ortopedikoa, protesikoa, audioprotesikoa eta optiko oftalmikoa maneiatzeko teknikak jakitea eta arreta jartzea.
kontzeptuzkoak	- Ortopedia eta protesi ez-kirurgikoaren formak. Kontzeptu orokorrak. - Lokomozio, entzumen eta ikusmeneko nahasterik ohikoenak, ortopedia eta protesirako produktuei dagokienez. - Ortopedia, protesi, audioprotesi eta optika oftalmikorako produktuen sailkapena. - Banatzeko baldintzak. Finantza daitezkeen produktu ortopedikoak. - Ortopedia, protesi eta audioprotesirako materialen datu-basea.
jarrerazkoak	- Merkaturatzen diren produktu ortopedikoaren erabilgarritasuna eta adierazpenak baloratzeko gaitasun kritikoa. - Zorroztasuna erabiltzaileari aholkuak ematean eta erabiltzailearekiko egokitzean. - Adeitasuna eta diskrezioa pertsonekiko harremanetan.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

Aurretiazko iritziak

Kontuan izan behar da modulu honek edukiak partekatzen dituela beste modulu batzuekin eta, gainera, irakatsi eta ikasteko prozesurako beste modulu batzuetan kokatzen diren edukiak behar dituela. Hori dela eta, irakasle-taldeak behar bezala programatu beharko ditu modulu horiek. Hutsuneak edo beharrezkoak ez diren errepikatzeak saihestuko ditu, eta ikasleen ikasteko prozesua erraztuko du.

Eduki horiek erabiltzailearen arretarekin lotuko dira, eta honako modulu hauetan ere aplikatutako komunikazio-protokoloak hartuko dira aintzat: Produktuen antolamendua eta salmenta eta Osasuna sustatzea.

Horiez gain, honako alderdi hauekin lotzen diren edukiak daude: produktuak banatzearekin, agindu medikoa interpretatuz; aholku farmazeutikoarekin; farmazia-bulego batean eskura daitezkeen produktuen eskaerarekin; eta parafarmazia-katalogoan informazioa bilatzearekin. Eduki horiek honako moduluan ere jorratzen dira: Farmazia-produktuen banaketa

1) Sekuentziazioa

Lehen eduki multzoarekin eman dakioke hasiera modulu honi: Parafarmazia-produktuen eskaera eta aginduak interpretatzea. Sarrerako eduki multzoa da eta oinarritzko edukiak ditu, modulua osatzen duten gainerako eduki multzoak irakatsi eta ikasteko prozesua erraztuko dutenak. Horrenbestez, komeni da behar besteko denbora hartzea eduki horiek



ondo bereganatzeko, modulu honen konpetentzia profesionaletako bat definituko baitute eduki horiek.

Irakasleek ezartzen duten programazioaren arabeko ordenan emango dira gainerako eduki multzoak.

2) Alderdi metodologikoak

Edukiak garatzeko garaian erabili beharreko metodologia askotarikoa eta oso desberdina izan daiteke, baina komeni da honako iradokizunetako batzuk aintzat hartzea:

Parafarmazia-produktuen banaketako lanbide-modulu hau praktikoa da batik bat –izenak aditzera ematen duen bezalaxe– baina kontzeptuzko eta jarrerazko karga handia eta berria du. Horrenbestez, tituluaren konpetentzia profesionalak eta helburuak lortzeko gida izango diren prozedurak gauzatu ahala txertatuko dira kontzeptuzko eta jarrerazko edukiak.

Banaketako lantegian, beraz, komeni da lortu nahi diren helburuetara egokitutako eta ondo definitutako egoera eta suposizio praktikoak lantzea. Zehazki, suposizioen ezaugarriek, ekarritako datuek, erabili beharreko dokumentuek, egoera simulatuek eta abar ikasleak sektore profesionalarekin nolabait ohitzea eragin beharko dute.

Hasiera batean irakasleak zuzendu beharko du irakatsi eta ikasteko prozesua. Alabaina, kursoak aurrera egin ahala, ikasleek gero eta protagonismo handiagoa izan beharko dute, eta haien lanbide-profila garatzeko behar besteko autonomia lortu beharko dute.

Batzuetan, berariazko kontzeptuzko edukiak landu beharko dira beste unitate didaktiko bati hasiera ematean. Kasu horietan, komeni da hasieran aurkezpen teorikoa egitea, eta talde-dinamikaren bat erabiltzea. Izan ere, ikasgelan eztabaida sustatu eta pasibotasuna saihestu nahi da, eta ikasleek landu beharreko gai horretan dituzten ezagutzei eta interesei buruzko informazioa bildu nahi da.

Jarrerazko edukiak sistematikoki hartu beharko dira kontuan. Modulu honetan oso garrantzitsuak dira komunikazioari eta pertsonetikiko harremanei dagozkien edukiak, laneko ardurari dagozkionak, kontsultatu behar diren kasuen identifikazioari dagozkionak, bezeroari ematen zaion informazioaren zorroztasunari dagozkionak. Hortaz, eduki horiek emateko beharrezko denbora hartu beharko da, eta moduluen hasieratik amaierara arte eskatuko zaizkio eduki horiek ikasleari.

Beharrezko espazioei, ekipamenduei eta materialei dagokienez, ezinbestekoa izango da parafarmazia-bulego batean edo parafarmazia-establezimendu batean banaketak simulatu ahal izateko ikasgela-lantegia edukitzea. Askotariko osasun-produktuak, dermofarmazia-produktuak, nutrifarmazia-produktuak, ahoaren eta hortzen higienarako produktuak, ortopedia-produktuak, eta abar antolatzeke eta kokatzeko armairuak, apalak eta ordenagailuak eduki beharko ditu ikasgela-lantegi horrek.

Garrantzi handikoa da baliabide bibliografikoak edukitzea, hala nola kontsulta-liburuak, banatzeko arauen eskuliburuak, parafarmaziako katalogoak, farmakoen hiztegiak, sendagaien datu-baseak, parafarmaziako produktuak banatzen dituzten enpresen katalogoak, eta ikasleek autonomiaz maneia dezaketen eta informazioa eskuratzeko baliagarria izan daitekeen beste edozein dokumentazio.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Moduluaren garapenaren hainbat unetan –hasierakoetan, jarraipenekoetan eta amaierakoetan– planifikatzen diren jarduera guztiak nahitaez lotuko zaizkio ikasleen prestakuntzari zein tituluan ezartzen diren konpetentzia profesionalei.

Hasierako jardueren artean honakoak iradoki dira:

- ✓ Pertsonen osasuna babestearekin, hobetzearekin eta kalteak arintzearekin lotzen diren kasuak azaltzea (gernu-inkontinentzia, pertsona ostomizatuak, protesia behar duten pertsonak, sorkuntzaren erregulazioa, elikadura-nahasteak, hortz-arazoak, larruazaleko, azazkaletako eta ileko arazoak,), ikasleen esperientzia pertsonaleko kasuak, telebistako albistegietakoak, dibulgazio-aldikarietakoak, egunkarietakoak,... Azken finean, gaiei hasiera emateko ikasgelan eztabaida piztuko duten eta ikasleen parte-hartzea sustatuko duten kasuak izango dira.
- ✓ Galdera-sorta sinpleak egitea, terminoak definitzea, gurutzegramak, letra-zopak... Lantzen ari diren edukiekin lotzen diren eta unean bertan zuzendu eta komentatu daitezkeen jardura idatziak izango dira.
- ✓ Aztertzen ari diren parafarmazia-produktuak identifikatzea eta apalategietan antolatzea.
- ✓ Jardura horiekin lotzen diren fitxak lantzea.

Orokorrean, aurretiazko ezagutzei buruzko informazioa lortzeko eta ikasleak motibatzeke diseinatutako jarduerak dira. Ikasleek parte har dezaten eta jorratu beharreko edukien gainean interesa izan dezaten sustatu nahi da. 2 edo 3 pertsonako taldeetan egitea iradokitzen da, talde handiagoekin parte-hartzea murriztu egingo baita.

Lanbide-moduluarekin jarraitzeko jarduerak, berriz, konplexuagoak eta banakakoak izango dira. Pertsona bakoitzaren ikasteko prozesuari buruzko informazioa lortzeko aukera emango dute.

- ✓ Aldizkari zientifikoetako, egunkarietako eta osasunaren arloko gehigarrietako artikuluak aurkeztea, eta ikasleek ahoz edo idatziz azaldu ahal izatea gero eta helduagoa eta sakonagoa izango den iritzi kritikoa –berariazko hizkuntza egokia erabiliko dute–.
- ✓ Ikasleek parafarmazia-produktuak erabiltzeko eta kokatzeko moduak era praktikoa azaltzea: hortzetako eskuilak eta hariak, ostomia-poltsak, pelikulizidak, aposituak, xurgatzaileak, eusteko eta inmovilizatzeke materiala, eta abar.
- ✓ Ikasgela-lantegian parafarmazia-produktuak sailkatzea, betiere ikasten ari diren edukien arabera:
 - Sendaketa, jostura eta puntzioko materiala identifikatzea.
 - Babes eta higieneko produktuak identifikatzea.
 - Agente bioziden sailkapena.
 - Dermofarmazia-produktuen sailkapena.
 - Nutrifarmazia-produktuen sailkapena.
- ✓ Jardura horiekin lotzen diren fitxak eta txostenak lantzea.
- ✓ Parafarmazia-produktuak banatzeko eta saltzeko kasuen simulazioak egitea, eta, horretarako, bezeroari beharrezko galderak egitea eta erabilerako aholkuak ematea. Kasu sinpleekin hasiko da eta moduluan aurrera egin ahala areagotuko da zailtasuna.
- ✓ Erabiltzaileak kontsulta mediko batera bideratu behar diren banaketako kasuen simulazioak egitea.
- ✓ Osasun Sistema Nazionalak finantzatutako parafarmazia-produktuak banatzeko kasuen simulazioak egitea.



✓ Banatu beharreko produktuei buruzko informazioa bilatzea Parafarmazia Katalogoan.

Azkenik, ikasleen amaierako ebaluaziorako diseinatuko diren jarduerak hiru eduki motak izan beharko dituzte kontuan (prozedurazkoak, kontzeptuzkoak eta jarrerazkoak), eta proposatutako helburuak irakatsi eta ikasteko prozesu osoan lortzea baloratuko da.

5 5. lanbide-modulua: LABORATEGIKO OINARRIZKO LANAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Laborategiko oinarritzko lanak
Kodea:	0103
Heziketa-zikloa:	Farmazia eta parafarmazia
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Osasuna
Iraupena:	231 ordu
Kurtsoa:	1.a
Irakasleen espezialitatea:	Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak. Laborategia (Lanbide Heziketako irakasle tekniko)
Modulu mota:	Profilari lotzen zaion lanbide-modulua
Helburu orokorrak:	7.a / 8.a / 11.a / 12.a / 13.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Laborategiko zerbitzu osagarriko instalazioak eta materialak mantentzen ditu, beharrezko baliabideak identifikatuz eta tresna egokiak erabiltzeko teknika nagusiekin lotuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- Beira, kortxo, kautxu eta metalezko materialak identifikatu ditu –ohiko izendapenaren eta eskema edo irudikapen grafikoaren bitartez– eta betetzen duten funtzioarekin lotu ditu.
- Laborategiko berotze- eta hozte-sistemak prestatu ditu, eta beroa edo hotza behar duten eragiketetan erabiltzeko elementuak, ekipamenduak eta aparatuak ezagutu ditu.
- Laborategian hutseko produkzioko ekipamenduak eta presio murriztuko oinarritzko eragiketak egiteko konexioak deskribatu ditu, baita presioa neurtzeko tresna ere.
- Laborategian erabili beharreko urak bitarteko egokiekin tratatzeko teknikak aplikatu ditu, eta aplikatutako tekniken printzipioa azaldu du.
- Laborategiko materialak eta tresnak sailkatu ditu eta haien funtzioarekin eta erabiltzen diren teknikaren funtsarekin lotu ditu, prozedura jakin batean erabiltzea justifikatuz.



- f) Laborategiko tresnak garbitzeko, kontserbatzeko eta esterilizatzeko teknika nagusiak aplikatu ditu.

2. Kontzentrazio jakin bateko disoluzio motak prestatzen ditu, beharrezko kalkuluak egiten ditu eta teknika eta ekipo egokiak erabiltzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Substantzia sinple eta konposatu kimiko nagusiak identifikatu ditu, ontzia markatzeko sistemen laguntzarekin edo zehaztapen teknikoei buruzko dokumentuekin, betiere behaketaren bidez eta horien propietateekin alderatuta.
- b) Konposatu kimikoak behar bezala sailkatu ditu, eta multzo funtzionalari eta egoera fisikoari erreparatu dio.
- c) Disoluzioak zehaztu ditu, haien fase fisikoaren eta kontzentrazioaren arabera.
- d) Hainbat kontzentrazio-unitateetan adierazitako disoluzioak prestatzeko beharrezko kalkuluak egin ditu.
- e) Kontzentrazio-unitate bakoitzaren eskakizunen arabera disoluzioa prestatzeko moduak bereizi ditu, eta disoluzio horiek egiteko beharrezko etapak eta ekipamenduak ezarri ditu.
- f) Konposatu kimikoak nazioarteko arauak erabiliz formulatzeko eta izendatzeko ariketak egin ditu, eta lotura mota adierazi du, betiere osatzen dituzten elementuen propietateen arabera eta sistema periodikoan duten kokapenaren arabera.
- g) Disoluzioak eta horien diluzioak prestatu ditu, masa eta bolumen egokiak neurtu ditu, eta prestatzeko teknika beharrezko segurtasunarekin aplikatu du.

3. Oinarrizko eragiketen bidez bereizten ditu substantzien nahasketak, eta sortzen den prozesuarekin edo aldatzen den aldagaiarekin lotzen du egindako eragiketa.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Nahasketaren osagaien ezaugarriak identifikatu ditu, bereizteko teknika eraginkorra hautatzearen.
- b) Nahasketa baten osagaiak bereizteko edo substantzia bat arazteko gehien erabiltzen diren teknikak zehaztu ditu, eta horien oinarriak deskribatu ditu, osagaien izaerarekin lotuz.
- c) Ekipamendua osatzen duten elementu nagusiak muntatu eta desmuntatu ditu, eta zerbitzu osagarriekiko beharrezko konexioak ezarri ditu, betiere nahasketak bereizteko ekipamenduen planoak eta eskemak abiapuntu izanik.
- d) Muntatzeko tresna edo aparatuen erabilera justifikatu du.
- e) Tamaina murrizteko tekniken bitartez, saiakuntza edo analisisa egiteko lagin jakin bat prestatu du, agregazioko eta arazketako egoerara egokituz.

4. Substantzia bat identifikatzen du, eta parametrorik garrantzitsuenen neurketarekin eta interpretazioarekin zehazten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarraitu beharreko prozedura interpretatu du eta egin beharreko eragiketak identifikatu ditu.
- b) Neurtu beharreko substantziaren parametroak identifikatu ditu.
- c) Substantzien parametro fisikoak zehazteko neurketa materiala, tresnak eta aparatuak prestatu ditu.

- d) Analisia egiteko beharrezko disoluzioak edo erreaktiboak prestatu ditu, prozeduraren zehaztapenen arabera.
- e) Substantziak identifikatzeko beharrezko ezaugarrien balioak neurtu ditu (dentsitatea, biskositatea, irakite-tenperatura, fusio-tenperatura, pH-a, kolorea).
- f) Behar bezala jardun du, emaitzen kalkuluak egiteko adierazpen matematikoak erabiliz, eta datuak zeharka neurtuta.
- g) Grafikoki irudikatu ditu neurtutako aldagaia eta funtzioa, eta emaitzak lortzeko datuak sartu ditu.


5. Laginak hartzeko ohiko teknikak aplikatzen ditu, eta identifikatzeko, kontserbatzeko eta erregistratzeko prozedura nagusiak jarraitzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Produktuaren egoera fisikoaren arabera hartu du lagina, eta homogeneousun-maila egiaztatu du.
- b) Laginak hartzeko tresneriaren eta lagina jasoko duen ontziaren egoera egiaztatu du.
- c) Lotea, lagina hartu behar den produktua eta laginaren data identifikatu ditu, baita lagina zuzen markatzeko eta erreferentziatzeko beharrezko datu guztiak ere.
- d) Laborategiko sarrera eta kontrol-fitxa osatu du.
- e) Analisia egin ostean, lagina biltegiratu du, amaierako epearen data finkatu du, eta lagina dagokion ontzira itzultzea erabaki du –edo suntsitzea edo birziklatzea–.
- f) Laginak hartzeko erabili beharreko materiala identifikatu du, laginaren agregazio-egoera hartu du kontuan, eta prozedura idatzi bati jarraituz hartu ditu laginak.
- g) Arauen arabera beharrezkoak diren laginketa-unitateen kopurua eta laginketa homogeneousoa eta adierazgarria lortzeko beharra lotu ditu.
- h) Masa eta bolumena neurtzeko ohiko teknikak aplikatu ditu, zein unitatetan adierazten den zehaztuz, eta erabiliko den laginaren alikuotarako teknika egokia aplikatu du.
- i) Lagina identifikatzeko prozedurak aplikatu ditu, baita laginaren ezaugarriak babesteko teknikak ere, laborategira garraiatzen den arte.
- j) Erabili ostean, laginak diluitzeko edo kontzentratzeko, neutralizatzeko, ezabatze edo birziklatzeko teknikak bereizi ditu, eta, kasu jakin batean, ingurumenaren gaineko eraginak saihesteko teknika egokia justifikatu du.

c) Edukiak

LABORATEGIKO MATERIALAK PRESTATZEA ETA MANTENTZEA.	
prozedurazkoak	- Farmazia-laborategian ohikoak diren ekipamenduak eta materialak identifikatzea eta prestatzea. - Materialen asepsia eta deskontaminazioko teknikak aplikatzea, materialen izaeraren arabera. - Neurtzeko aparatuak kalibratzea.
kontzeptuzkoak	- Farmazia-laborategiko tresneria. Material motak. Sailkapena. Manipulazioa eta mantentzea. Aplikazioak. - Ekipoak. Laborategiko zerbitzu osagarriak. Lurruntzeko sistemak. Lehortzeko sistemak. Lainoztatze ekipamenduak. Iragazteko metodoak. Pikortzeko metodoak. - Materiala eta ekipamenduak garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko teknikak eta prozedurak.



	- Laborategiko segurtasuna eta arriskuen prebentzioa.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna terminologiaren eta hizkuntzaren erabileran. - Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiarekiko errespetua. - Erantzukizuna materiala zaintzean eta maneiatzean.

DISOLUZIOAK PRESTATZEA

prozedurazkoak	- Osagai kimikoen formulazioa eta izendegia finkatzea. - Kalkulu matematikoak egitea eta unitateen bihurtzea egitea. Ehunekoak kalkulatzeko. - Hainbat kontzentrazioetako disoluzioak prestatzea. - Diluzioak egitea. - Egindakoa dokumentuetan erregistratzea. - Prozesuko segurtasun- eta higie-ne-arauak aplikatzea, indarrean dagoen legeriaren arabera.
kontzeptuzkoak	- Konposatu kimikoak. Sailkapena. Oinarrizko formulazioa. - Sistema barreiatu homogeneoak eta heterogeneoak. Ezaugarriak. - Disoluzioak. Ezaugarriak. Disolbagarritasuna. Disolbagarritasunean eragina duten faktoreak. Disoluzioaren abiadura. - Disoluzioak prestatzeko lanak. Neurtzeko unitateen arteko konbertsio eta baliokidetasuneko metodoak. Farmazia-erabilerako disolbatzaileak. - Kontzentrazio eta unitateen kontzeptua. Pisua/Pisua. Pisua/Bolumena. Bolumena/Bolumena. Molartasuna. Molaltasuna. Normaltasuna.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna terminologiaren eta hizkuntzaren erabileran. - Erantzukizuna materiala zaintzean eta maneiatzean. - Prozesuko segurtasun- eta higie-ne-arauekiko errespetua.

SUBSTANTZIAK BEREIZTEA

prozedurazkoak	- Bereizte-teknikak hautatzeko nahasketa baten osagaiak identifikatzea. - Prozesua muntatzeko tresnak eta aparatuak erabiltzea. - Nahasketak bereiztea. - Egindakoa dokumentuetan erregistratzea.
kontzeptuzkoak	- Oinarrizko farmazia-eragiketarako oinarri orokorrak eta teknologikoak. - Bereizteko teknikak. Sailkapena. - Bereizte mekanikoak. Ehotzea, bahetzea, iragaztea eta dekantatzea. - Bereizte difusionalak. Destilatzea, lurruntzea, erauztea, xurgatzea, kontzentratzea eta lehortzea. - Bereizteko prozedura normalizatuak. - Substantziak maneiatzeko teknikak.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna terminologiaren eta hizkuntzaren erabileran. - Doitasuna eta zorroztasuna prozesuaren garapenean. - Leialtasuna ezarritako protokoloen jarraipena egitean. - Laborategiko laneko arriskuen prebentzioarekiko interesa.

SUBSTANTZIAK IDENTIFIKATZEA ETA ZEHAZTEA	
prozedurazkoak	- Oinarrizko analisi klinikoak egiteko materiala, tresnak eta neurketa-aparatuak prestatzea. - Disoluzioak eta erreaktiboak prestatzea. - Neurtutako aldagaien eta funtzioaren irudikapen grafikoaren bidez lortzea emaitzak. - Dentsitatea, irakite-tenperatura, fusio-tenperatura, pH-a eta kolorea gisa parametroak neurtzea. - Datuen zeharkako neurketaren bitartez kalkulatzeko emaitzak.
kontzeptuzkoak	- Substantziak identifikatzeko ezaugarriak, hala nola dentsitatea, biskositatea, irakite-tenperatura, fusio-tenperatura, pH-a eta kolorea. - Farmazia eta parafarmaziako produktuak prestatzeko eta kontrolatzeko beharrezko oinarrizko teknika fisikoak eta kimikoak. - Egin beharreko saiakuntza fisikoen eta analisi kimikoen arabera jarraitu beharreko prozesua. - Irudikapen grafikoak.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna terminologiaren eta hizkuntzaren erabileran. - Doitasuna eta zorroztasuna prozesuaren garapenean. - Leialtasuna ezarritako protokoloen jarraipena egitean.

LAGINAK HARTZEA	
prozedurazkoak	- Laginak hartzeko protokoloak interpretatzea eta aplikatzea. - Laginak identifikatzeko, kontserbatzeko eta erregistratzeko teknikak aplikatzea. - Analitika klinikoak zehazteko eragiketa fisikoak eta kimikoak egitea. Laginaren osagaiak bereiztea (gernua, odola, gorputz-exudatuak,...). - Laginak eta erreaktiboak biltegitratzeko teknikak aplikatzea. - Laginak, hondakinak eta materialak ingurumeneari kalterik eragin gabe ezabatzeko teknikak aplikatzea. - Parametroen emaitzak interpretatzea, laguntzarekin.
kontzeptuzkoak	- Laginak. Sailkapena. Lagin motak. - Laginak hartzea. Ekipamenduak, materiala eta ontziak. Laginak hartzeko eskuzko metodoak eta automatikoak. - Laginak hartzeko eta identifikatzeko teknikak. Laginak ontziratze, garraiatze, markatzeko eta egokitzeko sistemak. - Oinarrizko analisi klinikoen metodoak (kualitatiboak, kuantitatiboak, organoleptikoak, fisikoak, kimikoak, biologikoak eta mikrobiologikoak). - Laginak ezabatzeko teknikak. Diluzioa. Kontzentrazioa. Neutralizazioa. Lurruntzea. Nahasketa. Erraustea. Birziklatzea. - Datu pertsonalak babestea. Sekretu profesionala.
jarrerazkoak	- Garbitasuna eta doitasuna teknikak garatzean. - Diskrezioa informazioa maneiatzean. - Zorroztasuna emaitza analitikoen txostenak egitean. - Laborategiko arrisku-egoeretan erantzuteko gaitasuna. - Norbera eta ingurumena babesteko bitartekoen balorazio positiboa.



d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Multzoetako edozein garatzen hasi aurretik, laborategiko laneko arriskuen, segurtasunaren eta higienearen arloko beharrezko heziketa eman beharko zaio ikasleari, eta gauzatuko diren eragiketa motekin lotzen diren arriskuak identifikatuko dira.

Honakoa da sekuentziaziorik egokiena:

- Laborategiko materialak prestatzea eta mantentzea (1. multzoa).
- Disoluzioak prestatzea (2. multzoa).
- Substantziak identifikatzea eta zehaztea (4. multzoa).
- Substantziak bereiztea (3. multzoa).
- Laginak hartzea (5. multzoa).

Kontuan izan behar da modulu honetako hainbat edukien eta Osasuna sustatzea eta Formulazio magistrala modulu etako edukien artean dagoen lotura. Hori dela eta, komeni da modulu horiek ematen dituzten irakasleekin koordinatzea.

2) Alderdi metodologikoak

Lehen egunetan, oso garrantzitsua izango da ikasleek aurreko heziketa-etapan fisikaren, kimikaren eta kalkulu matematikoen arloan finkatu dituzten gaitasunak hautematea, funtsezkoak izango baitira modulu honetako edukiak ulertzeko.

Modulua praktikoa izango da batik bat. Irakaslearen eginkizun nagusia da laborategian egin beharreko jarduera praktikoak behar bezala hautatzea, errazenetik zailenera ordenatuta, eta oinarritzko analisi fisikoak, kimikoak eta klinikoak egiteko fitxa teknikoak egitea.

Unitate didaktiko bakoitzari hasiera ematean, komeni da denbora-tarte jakin bat eskaintzea kontzeptuzko edukiak aurkezteari, ikasleek unitatea ezagut dezaten. Horrela, unitatearen inguruan duten ezagutzari eta interesari buruzko informazioa bilduko da.

Irakatsi eta ikasteko jarduerak diseinatzean, ikasleen interesa eta parte-hartze aktiboa mantentzen saiatuko da. Horretarako, jarduera pertsonalak zein taldekakoak egin ahal izango dira.

Kontzeptuzko edukien pisua handiagoa denean, ikasgelarako jarduera batez ere teorikoak diseinatu beharko dira (adibidez, azalpenak, arazoen ebazpenak, unitateen konbertsioak, eta abar), baita parte-hartzea gehiago eskatuko duten beste batzuk ere (edukien arteko loturak ezartzea, taldeko edo norbanako informazioa biltzea, eta abar).

Batzuetan, simulazioen gainean egin daiteke lan, eta oso garrantzitsua izango da suposizio horiek ondo zehaztea eta ahalik eta aniztasun eta egiazkotasun handieneko egoerak ekartzea. Oso garrantzitsua da suposizio horiek argiak izatea eta ikasleak zer eskatzen zaion jakitea.

Beste batzuetan, prestakinak lantzeko jardunak benetakoak izan beharko du, eta horretarako laborategiak behar besteko bitartekoak izan beharko ditu: ontziak, produktuak eta errektiboak; ekipamenduak eta aparatuak (esate baterako, balantzak,

mikroskopioak, lupak, maria-bainuak, dosifikagailuak, ontziratzeako makinak, etiketatzeako makinak, eta abar).

Irakatsi eta ikasteko jarduerak aintzat hartzen dituzten prozedurak eta eragiketak gauzatzean, ikasleek egindako hutsegiteez baliatzen ahaleginduko da eta beste ikaskuntza batzuk ondorioztatzen eta sortzen ahaleginduko da. Horrez gain, jarrerazko edukien tratamendua erraztu beharko da, hala nola zorroztasuna eta doitasuna, segurtasun- eta higiene-arauekiko errespetua, leialtasuna protokoloen jarraipena egitean, eta abar.

Batzuetan, interesgarria izango da praktikak antolatuta egiteko lan-eskema eskaintzea, eta, horrela, ikasleek urratsez urrats lortu beharreko produktuak zein diren hauteman ahal izatea. Beste batzuetan, aitzitik, eskema egitea ikasteko prozesuaren zati garrantzitsua izango da, eta ikasleek lanari ekin aurretik egin beharko dute eskema.

Erabilitako protokoloek eta eskuliburuek garrantzia hartu beharko dute, eta irakasteko metodologian hartu beharko dira aintzat. Izan ere, etorkizunean laneko gida gisa erabiliko diren tresnetako bat izango dira.

Laborategian egindako praktika bakoitza amaitu ostean, komeni da jarraitutako prozesu osoa –amaitu arte– aintzat hartuko duen txostena edo fitxa betetzea.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓Eragiketa fisiko-kimiko sinpleetan erabilitako materiala eta ekipamenduak identifikatzea, prestatzea eta erabiltzea.
- ✓Unitateen arteko konbertsioa eta baliokidetasuna. Unitateak aldatzeko arazoak ebaztea.
- ✓Neurtzeko aparatuak kalibratzea.
- ✓Masa, bolumena, pH-a, irakite-tenperatura, eta abar neurtzea.
- ✓Hainbat kontzentraziotako disoluzioak prestatzea.
- ✓Higiene-teknikak aplikatzea, hala nola garbitasuna, desinfekzioa eta esterilizazioa.
- ✓Hainbat teknikaren arabera bereiztea substantziak.
- ✓Oinarrizko analisi klinikoak egitea: biologikoak eta mikrobiologikoak.
- ✓Egindako lana dokumentuetan erregistratzea. Txostenak lantzea. Fitxak betetzea.
- ✓Laginak, hondakinak eta materialak ingurumenean kalterik eragin gabe kudeatzea. Hondakinak ezabatzea eta tratatzea.
- ✓Laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak aplikatzea prozesuan.



6 6. lanbide-modulua: FORMULAZIO MAGISTRALA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Formulazio magistrala
Kodea:	0104
Heziketa-zikloa:	Farmazia eta parafarmazia
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Osasuna
Iraupena:	189 ordu
Kurtsoa:	2.a
Irakasleen espezialitatea:	Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak. Laborategia (Lanbide Heziketako irakasle teknikoak)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UCO366_2: Formula magistralak eta prestakin ofizinalak, dietetikoak eta kosmetikoak egiten laguntzea, fakultatiboaren gainbegiratupean.
Helburu orokorrak:	6.a / 7.a / 8.a / 13.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Farmazia-produktuak eta antzekoak lantzeko ekipoak doitzen ditu, eta horien gailuak eta funtzionamendua ezagutzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Lokalaren eta erabilitako material eta ekipamenduen garbiketa, asepsia eta deskontaminaziorako teknika orokorrak aplikatu ditu.
- Tresneria funtzionamendu-egoera onean mantendu du.
- Eskura dauden bitarteko materialen egokitzapena ebaluatu du, betiere egin beharreko egokitzapen motaren arabera.
- Egin beharreko lanaren arabera tresneria egokia hautatu du.
- Tresneria antolatuta utzi du laneko zonan.
- Lehengaien izakinak eta ontzien kokapena egiaztatu du.
- Indarrean dagoen legeriaren arabera arriskuen prebentzioari eta segurtasunari buruzko arauak aplikatu ditu.
- Egindako lanaz eta proposatutako helburuak betetzeaz arduratu da.

2. Erabilitako lehengaien kalitatea egiaztatzen du, eta indarrean dagoen legeria, lehengaien etiketatzea eta biltegitratzeko eta kontserbatzeko baldintzak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lehengaia duten ontzien etiketatzea egiaztatu du.
- b) Indarrean dagoen legeriaren arabera lehengaiak bete behar dituzten eskakizunak egiaztatu ditu.
- c) Lehengaien kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko saiakuntza sinpleak egin ditu, eta, horretarako, indarrean dagoen legeriaren arabera segurtasunari eta higieneari buruzko arauak aplikatu ditu.
- d) Lehengaien kalitateari eta maneiatzeko baldintzei buruzko dokumentazioa interpretatu du.
- e) Dokumentazio orokorra eta lehengaiari dagokiena bete du.
- f) Lehengaiak ongi kontserbatuko direla ziurtatzeko moduan biltegitratu ditu.
- g) Lehengaiak badaudela egiaztatu du eta txandatu egin ditu.

3. Lehen mailako egokitzapen-materiala kontrolatzen du, eta legezko zehaztapenak onartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Indarrean dagoen legeriaren arabera egokitzapen-materialak bete behar dituen eskakizunak egiaztatu ditu.
- b) Egokitzapen-materialen kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko saiakuntza sinpleak egin ditu.
- c) Lehen mailako egokitzapen-materialari buruzko dokumentazioa bete du.
- d) Egokitzapen-materiala ongi kontserbatuko dela ziurtatzeko moduan biltegitratu du.
- e) Egokitzapen-materialak badaudela egiaztatu du eta txandatu egin ditu, amaiera-data kontrolatuz.
- f) Onartu aurretik, materialen testu guztiak berraztertu ditu.
- g) Enpresaren barne-arauak eta prozedurak errespetu ditu.

4. Farmazia-produktuak eta antzekoak lantzen ditu, eta oinarritzko farmazia-eragiketen funts fisikoak eta kimikoak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Oinarritzko farmazia-eragiketen oinarri orokorrak eta teknologikoak azaldu ditu.
- b) Formula magistralak eta prestakin ofizinalak lantzeko eta kontrolatzeko prozedurak interpretatu ditu.
- c) Formula magistralak eta prestakin ofizinalak landu ditu, eta, horretarako, behar bezala maneiatu du tresneria.
- d) Formula magistralak eta prestakin ofizinalak aztertzeko eta kontrolatzeko oinarritzko teknikak aplikatu ditu.
- e) Ontziak etiketatu ditu, eta produktuak eta lantzearen fasea identifikatzeko aukera emateko moduan egin du.
- f) Egindako eragiketa bakoitzean lortutako produktu galenikoak identifikatu ditu.
- g) Formula magistralak eta prestakin ofizinalak lantzeko segurtasun eta higieneari arloko arauak aplikatu ditu.
- h) Formula magistralak eta prestakin ofizinalak lantzeko eta kontrolatzeko prozeduran egindako eragiketa guztien oharra jaso ditu.

- i) Lortutako produktuak biltegitatu ditu eta horien kontserbazioa ziurtatu du.
- j) Laneko argibideak interpretatu eta gauzatu ditu.

5. Farmazia-produktuak eta antzekoak baldintza higieniko onean ontziratatu ditu, eta ontziratzeako hautatutako materiala justifikatu du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Farmazia-formak eta hartzeko bideak lotu ditu.
- b) Formula magistralak eta prestakin ofizinalak egokitzeko material motak ezagutu ditu.
- c) Farmazia-formaren ezaugarrien arabera egokitzapen-materiala hautatu du.
- d) Produktua dosifikatzean eta ontziratzean, lantzeko eta kontrolatzeko prozedurei jarraitu zaie.
- e) Ontziak etiketatu egin ditu eta indarrean dagoen legeriak ezarritako eskakizunak betetzen direla egiaztatu du.

c) Edukiak

FARMAZIA PRODUKTUAK ETA ANTZEKOAK LANTZEKO EKIPOAK DOITZEA	
prozedurazkoak	- Ekipamenduak, materialak eta lehengaiak prestatzea. - Tresneria egiaztatzea eta mantentzea. Hautatzea eta doitzea. - Laneko protokoloak, dokumentazioa eta araudia interpretatzea.
kontzeptuzkoak	- Farmazia-produktuak lantzeko ekipamenduak. Prestatzeko eta doitzeko teknikak. - Formula magistralak laborategian prestatzeko tresneria. Prestatzeko eta doitzeko teknikak. - Europar Batasuneko, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko araudia. - Dokumentazio orokorra. - Laneko arriskuen prebentzioa. Norberaren eta ingurumenaren segurtasuna.
jarrerazkoak	- Doitasuna eta zorrozatasuna lan egitean. - Segurtasun- eta higie-ne-arauekiko errespetua. - Erantzukizuna materiala zaintzean eta maneiatzean.

LEHENGAIK KONTROLATZEA	
prozedurazkoak	- Formulazio magistraleko berariazko terminologia laburtua erabiltzea. - Lehengaiak baloratzea eta kontrolatzea. - Lehengaien kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko saiakuntzak egitea. - Lehengaiak biltegitatzeko teknikak aplikatzea. - Lehengaien etiketak interpretatzea. Eskakizunak egiaztatzea. - Laneko dokumentazioa eta protokoloak hautatzea eta erabiltzea.
kontzeptuzkoak	- Lehengaiak. Jatorria eta identifikazio-probak. Eskakizunak. Saiakuntzak. - Formulazio magistralean eta prestakin ofizinaletan, dietetikoetan eta kosmetikoetan terminologia laburtua eta espezifikoa erabiltzea. - Indarrean dagoen legeria. Espainiako Errege Farmakopea. Formulario nazionala.

	- Produktuak egokitzeko materiala. Motak. Produktuak etiketatzeko sistemak. Kontserbazio-sistemak.
jarrerazkoak	- Doitasuna eta zorrozatasuna lan egitean. - Ikasteko interesa eta jakinmina. - Zorrozatasuna terminologiaren erabileran eta hizkuntzaren doitasunean.

EGOKITZAPEN MATERIALAREN KONTROLA	
prozedurazkoak	- Egokitzapen-materialaren kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko saiakuntzak egitea. - Dokumentuak betetzea. - Egokitzapen-materiala biltegitratzeko eta kontrolatzeko teknikak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	- Egokitzapen-materiala. Motak. Eskakizunak. Indarrean dagoen legeria. - Egokitzapen-materiala biltegitratzeko sistemak. Kontrola. Amaiera-epea eta txandatzea. Biltegitratzearen dokumentazioa. - Egokitzapen-materialaren kalitatea kontrolatzeko saiakuntzak.
jarrerazkoak	- Doitasuna eta zorrozatasuna lan egitean. - Leialtasuna ezarritako protokoloen jarraipena egitean. - Zorrozatasuna terminologiaren erabileran.

FARMAZIA PRODUKTUAK ETA ANTZEKOAK EGITEA	
prozedurazkoak	- Higiene-teknikak gauzatzea: garbitasuna, desinfekzioa eta esterilizazioa. - Farmazia-produktuak, formula magistralak eta prestakin ofizinalak egiteko teknikak aplikatzea. - Landutako produktuak etiketatzea eta biltegitratzea. - Hondakinak ezabatzea. - Laneko protokoloak interpretatzea.
kontzeptuzkoak	- Eragiketa fisiko-kimikoak. Disolbatzaile bidezko erauzketa. Destilazioa. Lurruntzea. Diluzioak. Solidoak banantzea. Osagaiak homogeneizatzea. Lehortzea. Liofilizazioa. Iragaztea. Pikortzea. Esterilizazioa. - Sistema barreiatu homogeneoak. Disoluzioak. - Sistema barreiatu heterogeneoak. Emultsioak. Esekidurak. Aerosolak. - Sendagaiak egiteko oinarritzko funtsak: printzipio aktiboa, lehengaia, eszipienteak, farmazia-forma. - Formula magistralak eta prestakin ofizinalak, kosmetikoak eta dietetikoak egiteko teknikak. - Homeopatia-prestakinak lantzeko teknikak. - Formula magistralen eta prestakin ofizinal, kosmetiko, dietetiko eta homeopatikoen kontserbazioa eta amaiera-epea.
jarrerazkoak	- Erantzukizuna materiala eta lehengaiak zaintzean eta maneiatzean. - Segurtasun- eta higiene-arauekiko errespetua. - Leialtasuna ezarritako protokoloen jarraipena egitean. - Zorrozatasuna terminologiaren eta hizkuntzaren erabileran.

FARMAZIA PRODUKTUAK ETA ANTZEKOAK ONTZIRATZEA

prozedurazkoak	- Laneko protokoloak hautatzea eta interpretatzea. - Amaitutako produktuak dosifikatzea eta ontziratzea. Tresnak maneiatzea. - Produktuak kontserbatzea eta biltegiratzea. Produktuak etiketatzea. - Formula magistralen eta prestakin ofizinal, kosmetiko eta dietetikoaren saiakuntzak eta kontrolak egitea. - Egindakoa dokumentuetan erregistratzea. Txostenak eta fitxak egitea.
kontzeptuzkoak	- Formula magistralak eta prestakin ofizinalak, kosmetikoak eta dietetikoak ontziratzekeo teknikak. Lanabesak. Ontziak eta paketeak. Bilgarriak. - Formula magistralen eta prestakin ofizinal, kosmetiko eta dietetikoaren saiakuntzak eta kontrola. - Ontziratzeari, paketatzeari eta etiketatzeari buruzko dokumentazioa. - Etiketatzekeo teknikak.
jarrerazkoak	- Doitasuna eta zorrozatasuna lan egitean. - Leialtasuna ezarritako protokoloen jarraipena egitean. - Zorrozatasuna terminologiaren erabileran.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Multzoetako edozein garatzen hasi aurretik, laborategiko laneko arriskuen, segurtasunaren eta higiearen arloko beharrezko heziketa eman beharko zaio ikasleari, eta gauzatuko diren eragiketa motekin lotzen diren arriskuak identifikatuko dira.

Honakoa da gomendatzen den sekuentziazioa:

- Formula magistralak laborategian prestatzeko tresneria. Materiala prestatzeko, doitzeko, garbitzeko eta deskontaminatzeko teknikak.
- Sistema barreiatu homogeneousak. Disoluzioak.
- Sistema barreiatu heterogeneoak. Emultsioak. Esekidurak. Aerosolak.
- Eragiketa fisiko-kimikoak. Disolbatzaile bidezko erauzketa. Destilazioa.
- Lurruntzea. Diluzioak. Solidoak banantzea. Osagaiak homogeneousatzea.
- Lehortzea. Liofilizazioa. Iragaztea. Pikortzea. Esterilizazioa.
- Farmazia-produktuak eta antzekoak lantzeko ekipoak doitzeko.
- Lehengaiak kontrolatzea.
- Farmazia-produktuak eta antzekoak egitea.
- Farmazia-produktuak eta antzekoak ontziratzea.
- Egokitzapen-materialaren kontrola.

2) Alderdi metodologikoak

Oro har, unitate didaktikoak osatuko dituzten irakatsi eta ikasteko jarduerak eta ebaluatzeko jarduerak zehaztean, prozedura-ardatz jakin bat zehaztu beharko da, eta haren inguruan egituratu beharko dira jarduerak. Horrenbestez, aintzat hartzen diren prozedurak gauzatzean beharrezkoak izan ahala txertatuko dira kontzeptuzko eta jarrerazko edukiak.

Lehen egunetan, oso garrantzitsua izango da ikasleek aurreko heziketa-etapan fisikaren, kimikaren eta kalkulu matematikoen arloan finkatu dituzten gaitasunak hautematea. Izan ere, gaitasun horiek funtsezkoak izango dira modulu honetako edukiak ulertzeko eta aplikatzeko.

Unitate didaktiko bakoitzari hasiera ematean, komeni da denbora-tarte jakin bat eskaintzea unitate didaktikoa aurkezteari –ikasleek unitatea ezagutu dezaten–, eta, horrela, ikasleek unitatearen inguruan duten ezagutzari eta interesari buruzko informazioa bildu ahal izatea.

Modulu batez ere praktikoa da. Irakasleek laborategian egin beharreko jarduera praktikoa hautatuko dituzte, hala nola kremak, gelak, kapsulak, pilulak, konprimatuak eta abar lantzea –gero eta jarduera zailagoak egingo dira–.

Kalitatea egiaztatu ostean, akatsik izanez gero, horien kausak aztertu eta neurri zuzentzaile egokiak aplikatuko dira. Era berean, sortu daitezkeen hondakinen tratamenduari ekingo zaio.

Jarrerekin eta portaerekin lotzen diren edukiak sistematikoki hartuko dira kontuan, nahiz eta irakatsi eta ikasteko jardueraren batean berariaz lantzen eta azaltzen diren.

Formula magistralak lantzeko protokoloek eta eskuliburuek garrantzia hartu beharko dute, eta irakasteko metodologian hartu beharko dira aintzat. Izan ere, etorkizunean laneko gida gisa erabiliko diren tresnetako bat izango dira. Batzuetan, interesgarria izango da ikasleei lan-eskema eskaintzea eta, hala, errazago antolatu ahal izatea praktikak –hala eginez gero, ikasleek urratsez urrats lortu beharreko produktuak zein diren hauteman ahal izango dute–. Beste batzuetan, aitzitik, eskema egitea ikasteko prozesuaren beraren zati garrantzitsua izango da, eta ikasleek egin beharko dute eskema.

Modulu hau behar besteko ekipamenduak, tresneriak, ontziak, materialak eta erreaktiboak izango dituen laborategi batean egin beharko da, jarduera praktikoa banaka edo taldean lan egiteko moduan.

Era berean, ikasgelan patologiei buruzko azalpen teorikoak eman daitezke, ondoren horietarako formula magistralak egiteko –betiere laborategian eta ezarritako protokoloen mende–.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Material bolumetrikoren kalitate-kontrola egitea.
- ✓ Emultsioak prestatzea.
- ✓ Ezagutzeko eta baldintza egokietan biltegitratzeko beharrezkoak diren saiakuntza sinpleak, fisikoak eta kimikoak egitea, amaiera-data kontrolatzea... Diluzioak egitea eta pipeteatzea. Disoluzio baten disolbagarritasun-koefizientea kalkulatzeko. Kloruroak aztertzea.



- ✓Eragiketa fisiko-kimikoak egitea eta farmazia-teknikak erabiltzea, betiere eskatzen diren kantitatean eta kalitatean lortzeko produktuak.
- ✓Ur-koloniak, gozokiak, xaboiak, papertxoak, kapsulak, xarabeak, ukenduak, kremak, maskarak eta abar egitea.
- ✓Landutako produktuak dosifikatzea eta ontziratzea. Ontziak etiketatzea.
- ✓Praktiken jarduna dokumentuetan erregistratzea, fitxen bitartez adibidez.
- ✓Hondakinak gaika sailkatu eta biltzea.
- ✓Ekipamenduak eta tresnak prestatzea, antolatzea eta doitzea.
- ✓Dokumentazioa interpretatzea, hala nola lehengaien erregistro-fitxak edo zehaztapen-fitxak.

7. lanbide-modulua: OSASUNA SUSTATZEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Osasuna sustatzea
Kodea:	0105
Heziketa-zikloa:	Farmazia eta parafarmazia
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Osasuna
Iraupena:	168 ordu
Kurtsoa:	2.a
Irakasleen espezialitatea:	Diagnostiko klinikoko prozesuak eta produktu ortoprotesikoak. Osasun-prozesuak. (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC0367_2: Oinarrizko eta normalizatutako analisi klinikoak egiten laguntzea, fakultatiboaren gainbegiratupean. UC0368_2: Osasunaren babes eta sustapenean, gaixotasunen prebentzioan, eta osasun-hezkuntzan laguntzea, fakultatiboaren gainbegiratupean.
Helburu orokorrak:	10.a / 11.a / 12.a / 13.a / 14.a / 15.a / 18.a / 19.a / 20.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Bizi-ohitura osasuntsuak sustatzen ditu, eta osasuna sustatzeko programak eta helburu den populazioa lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Osasuna sustatzea, osasuna prebenitzea, osasuna babestea, osasunerako heziketa eta horien osagaiak bereizi ditu.
- Osasun-plangintzako mailak identifikatu ditu: plana, programa, proiektua eta programazioa.
- Teknikariak hezkuntzako eragile gisa duen garrantzia baloratu du.
- Bizimodu osasuntsuen ezaugarriak deskribatu ditu.
- Osasunerako heziketa-programa baten atalak zehaztu ditu.
- Informatuta egotearen garrantzia eta osasuna hobetzeko konpromiso pertsonala eta soziala baloratu du.



- g) Parametro somatometrikoak (pisua eta neurria), Gorputz Masaren Indizearen kalkulua, eta abar osasunarekin eta gaixotasunarekin lotu ditu.
- h) Neurtzeko teknikak eta erabilitako tresnak eta ekipamenduak maneiatzeko teknikak deskribatu ditu, baita horien garbiketa eta kontserbazioa ere.
- i) Metadonarekin mantentzeko programetako parte-hartzea zehaztu du, baita xiringak trukatzegatik hartutako gaixotasunen prebentzioko programetako parte-hartzea ere.

2. Osasunerako heziketa-programak garatzen ditu, eta erabiltzaileengan duten eragina baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Osasunerako heziketa-programa baten elementuak zehaztu ditu.
- b) Elikagaien higiene-programa nagusiak deskribatu ditu.
- c) Sexu-higieneko programak ezaugarritu ditu.
- d) Abusu-droga nagusiak sailkatu ditu.
- e) Drogamendekotasun-egoeretarako jardun-ildoak identifikatu ditu.
- f) Osasunerako hezkuntza-programak baloratu ditu, gizarte-ongizatea hobetzeko elementu gisa.
- g) Transmitti daitezkeen gaixotasunen epidemiologia aztertu du.

3. Kontrol analitiko sinpleak egiten ditu, eta laneko protokolo normalizatuak interpretatzen eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laginak hartzeko garaian erabiltzailearen baldintza organiko egokiak zehaztu ditu.
- b) Lagina identifikatu du eta eskariarekin zalantzarik gabe bat datorrela egiaztatu du.
- c) Egin beharreko zehaztapen analitikoaren arabera kontserbatu du lagina.
- d) Laginak maneiatzean eta prozesu analitikoa egitean norberaren higienerako eta babeserako neurriak aplikatu ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera.
- e) Analisi-prozedurak eta laborategiko praktika egokien arauak interpretatu ditu.
- f) Kontrol analitikoak egin ditu eta behar bezala maneiatu ditu erreflektometroa eta zerrenda erreaktiboak.
- g) Erabili eta botatzeko materialak eta hondakinak ezabatu ditu, hondakinak ezabatzeko protokoloak interpretatu ditu, eta indarrean dagoen legeria aplikatu du.
- h) Erabili eta botatzekoak ez diren tresnak, materialak eta ekipamenduak garbitu, desinfektatu edo esterilizatu ditu.
- i) Laneko eremua garbi utzi du, berriro erabiltzeko baldintza egokietan.
- j) Zehaztapen analitikoen emaitzen esanahia ezagutu du.

4. Psikologikoki laguntzen dio erabiltzaileari, haren baldintza psikologikoak eta arrisku-multzoak identifikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laguntza logistikoko mekanismoak identifikatu ditu eta aplikazioaren arabera tipifikatu ditu.
- b) Berriazko laguntza eskatzen duten egoerak bereizi ditu.
- c) Tipologia bakoitzerako laguntza psikologikoko mekanismoak ezarri eta protokolizatu ditu.

- d) Portaeraren disfuntzioa eragiten duten zirkunstantzia psikologikoak aztertu ditu.
- e) Portaeraren disfuntzio mota nagusiak eta horien zeinuak sailkatu ditu.
- f) Teknikariaren eta beste estamentu sozio-sanitarioen laguntza psikologikoaren garrantzia baloratu du.
- g) Erabiltzailearekiko elkarreragin egokia lortzeko eta laguntza hori lortzeko teknikariak garatu beharreko portaerei eman die lehentasuna.
- h) Nortasuna babesteko mekanismo nagusiak ezarri ditu.
- i) Estres-sintomen faktore nagusiak deskribatu ditu.

c) Edukiak

OSASUNA SUSTATZEA	
prozedurazkoak	- Osasun-adierazleak identifikatzea. - Arrisku-faktoreak hautematea. - Parametro somatometrikoak lortzea. - Datuak erregistratzea. - Parametro somatometrikoak lortzeko ekipamenduak eta tresneria erabiltzea, mantentzea eta garbitzea.
kontzeptuzkoak	- Osasuna eta gaixotasuna. Osasunaren prebentzioa eta sustapena. Prebentzio-mailak. - Osasunerako heziketa. Osasun-plangintza. Plangintza-mailak: plana, programa eta proiektua. - Osasun-zehaztaileak. Bizimodu osasuntsua. Osasunean eragina duten faktoreak eta arrisku-faktoreak. Osasun-adierazleak. - Parametro somatometrikoak. Osasunarekin eta gaixotasunarekin duen lotura. Neurtzeko teknikak. Ekipamenduak eta tresnak.
jarrerazkoak	- Bizimodua hobetzeko interes pertsonala. - Bizimodu desberdina duten pertsonetako errespetua. - Ideiak adierazteko adierazpena.

OSASUNERAKO HEZIKETA PROGRAMAK GARATZEA	
prozedurazkoak	- Osasunerako heziketa-programen elementuak identifikatzea. - Osasunerako heziketa-programak interpretatzea. - Drogamendetasunen eta gaixotasun kutsakorren ondoriozko larrialdien aurrean jarduteko jarraibideak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	- Osasun-arloko komunikazio-teknikak. Zailtasunak. Hizkuntza motak. - Osasunerako heziketa-programak. Programazioa. Osagaiak. - Osasunerako heziketa-programen motak. Elikaduraren higieena. Norberaren higieena. Sexu-higieena. - Drogamendetasunak. Larrialdi-egoeretan jarduteko jarraibideak eta tratamendua. - Gaixotasun kutsakorrak. Kate epidemiologikoa. Arriskuak. Jarduteko jarraibideak.
jarrerazkoak	- Abian dauden osasunerako heziketa-programak garatzeko interesa. - Lana garatzeko erantzukizuna.



	- Argitasuna eta zorroztasuna informazioa helaraztean.
--	--

KONTROL ANALITIKO SINPLEAK EGITEA

prozedurazkoak	- Kontrol analitiko sinpleak egitea. - Laginak lortzeko, kontserbatzeko eta identifikatzeko teknikak aplikatzea. - Kontrol analitikoaren emaitzak adieraztea eta erregistratzea. - Materiala eta tresneria garbitzea, desinfektatzea eta esterilizatzea. - Laneko arriskuen prebentziorako teknikak aplikatzea. - Hondakinak prestatzea eta ezabatzea.
kontzeptuzkoak	- Analisi klinikoetako oinarritzko metodoak. Ekipoak. Erreflektometroak. Zerrenda erreaktiboak. Lan-protokoloak. - Oinarritzko kontrol analitikoak. Aplikazioak. Oinarritzko kontrol analitikoetako interferentziak. - Laginak. Lortzeko teknikak. Kontserbatzeko teknikak. Identifikatzeko teknikak. - Emaitzak adierazteko eta erregistratzeko sistemak. - Higiene-teknikak. Garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko ekipamenduak eta produktuak. - Laborategiko segurtasuna eta arriskuen prebentzioa. Norberaren babesa laginak maneiatzean. Osasun-hondakinak.
jarrerazkoak	- Segurtasun- eta higiene-arauekiko errespetua. - Leialtasuna lan-protokoloen jarraipena egitean. - Lanbide-sekretua mantentzeko interesa.

ERABILTZAILLEENTZAKO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

prozedurazkoak	- Erabiltzaileentzako laguntza psikologikoko teknikak aplikatzea. - Portaeraren disfuntzioetako batzuk identifikatzea.
kontzeptuzkoak	- Psikologia orokorra. Nortasunaren garapen ebolutiboa (haurtzarora, nerabezarora, helduarora, zahartzarora). Babes-mekanismoak. Portaera eta jarrera. - Nahaste psikologikoak (antsietatea, estresa, depresioa, nahaste neurotikoa,...). Portaeraren disfuntzioak. Zeinuak eta sintomak. - Erabiltzaileentzako laguntza psikologikoko teknikak eta mekanismoak. Aplikazioak. Lan-protokoloak. - Egoera berezietan dauden pertsonen psikologia: gaixo kronikoa, gaixo onkologikoa, gaixo geriatrikoa, HIES duen gaixo, gaixo terminala, haurdun dagoen emakumea, eta beste batzuk.
jarrerazkoak	- Pertsona desberdinekiko errespetua. - Lanbide-sekretua mantentzeko interesa. - Errespetua eta zuzentasuna pertsonetikiko tratuan.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Hasteko, 1. multzoan (Osasuna sustatzea) zerrendatutako edukiak landu daitezke, osasunarekin lotzen diren alderdi orokor eta oinarritzkoenak baitira, hala nola osasunaren kontzeptua bera, gaixotasuna edo babes-mailak.

Ondoren, 2. multzoko (Osasunerako heziketa-programak garatzea) edukiak garatu daitezke. Lehenengo komunikazio-teknikekin lotzen diren alderdiak jorratuko dira, eta, gero, programak. Jarraian, laugarren multzoa (Erabiltzailearentzako laguntza psikologikoa) landuko da, eta bertan psikologiaren alderdi orokorrak eta pertsonek bizi ditzaketen hainbat egoera deskribatuko dira.

Azkenik, aurrekoez oso bestelako izaera duen hirugarren multzoa (Kontrol analitiko sinpleak egitea) aztertuko da. Eduki horiek oso lotuta daude Laborategiko oinarritzko lanak moduluko edukiekin. Hori dela eta, komeni da modulu hori ematen duen irakaslearekin koordinatzea.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan funtsezkoa da ikasleen artean komunikazio-gaitasunak garatzea. Ondo egiteko beharrezko argibideak emateaz gain, garrantzi handikoa da gaitasun horiek portaera gisa agerian geratzea eta, horrela, behatu ahal izatea –betiere portaera horiek sustatzearen edo akatsak edo gabeziak zuzentzearen—. Horretarako, askotariko egoerak zehaztu daitezke (liburuxken edo txartelen azalpenak, gernu-lagina hartzeko argibideak, produktu jakin baten ezaugarriei buruzko azalpena,...), eta zereginak banatu daitezke, pertsona bakoitzak funtzio bat bete dezan. Egoera horietan hainbat alderdi aztertu ahal izango da (emandako informazioaren ordena, ahots-doinua, hartutako jarrera,...) eta egin behar denari eta egin behar ez denari buruzko gogoeta egin ahal izango da.

Osasunerako heziketa-programen eta -planen inguruan lan egiteko, berriz, farmazia-establezimenduen berezko helburu baten inguruko plangintza-eraketak egin daitezke, edo jada antolatuta dauden beste ekintza batzuk aztertu daitezke (zer lortu nahi den, nori zuzentzen zaion, zer bitarteko dauden,...). Komeni da sektorean erabiltzen diren materialak edukitzea (liburuxkak, bideak, txartelak...) edo organismo ofizialek une horretan bertan erabiltzen edo sustatzen ari diren materialak edukitzea.

Erabiltzaileentzako laguntza psikologikoaren multzoan, eta, bereziki, egoera berezietan dauden pertsonentzako laguntza psikologikoaren alorrean, kontzeptuzko edukiak egoera fisiologikoak eta patologikoak ezagutzeko aukera eman behar diete ikasleei. Edonola ere, aintzat hartu behar da farmazia-esparrutik eskaini beharko dela arreta, eta, hortaz, edukien sakontasuna eta eskaintzen den denbora ez dela gehiegizkoa izan behar.

Hirugarren eduki-multzoak (Kontrol analitiko sinpleak egitea) aurrekoez oso bestelako izaera izango du. Batetik, laborategian laginen gaineko analisi sinpleak egin beharko dira, eta, bestetik, pertsonekin harremanetan egon beharko da laginak hartzen direnean eta emaitzak ematen direnean. Oso bestelako trebetasunak landu beharko dira, eta, lehen zatiaren kasuan, eduki horiek modu praktikoa eta aplikatuta garatzeko aukera emango duen laborategia beharko da.



3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Osasunerako heziketa-programak eta -jarduerak egitea.
- ✓ Osasunerako heziketa-programak interpretatzea.
- ✓ Bizimoduak aztertzea.
- ✓ Pisua eta neurriak gisako parametro somatometrikoak neurtzea.
- ✓ Kontrol analitiko sinpleak egitea.
- ✓ Kasuak kasu laguntza psikologikoko teknikak aplikatzea.
- ✓ Egoera desberdinetarako komunikazio-teknikak aplikatzea.

8. lanbide-modulua: LEHEN LAGUNTZAK

a) Aurkezpena


Lanbide-modulua:	Lehen laguntzak
Kodea:	0020
Heziketa-zikloa:	Farmazia eta parafarmazia
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Osasuna
Iraupena:	66 ordu
Kurtsoa:	1.a
Irakasleen espezialitatea:	Osasun eta laguntzako prozedurak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa) Diagnosticako kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Lanbide-profilari lotua.
Helburu orokorrak:	17.a / 18.a / 19.a / 20.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Larrialdi bateko laguntzaren hasierako balorazioa egiten du eta arriskuak, eskura dauden bitartekoak eta beharrezko laguntza mota deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Eremua prozedura egokiaren arabera babestu du.
- Istripua izan duten pertsonak manipulatzeari norbera babesteko erabili beharreko teknikak identifikatu ditu.
- Larrialdietako botikinen gutxienezko edukia, eta produktuen eta sendagaien indikazioak deskribatu ditu.
- Biktima anitz daudenerako jardun-lehentasunak ezarri ditu.
- Aire-bideen iragazkortasuna egiaztatze prozedurak deskribatu ditu.
- Aireztapenaren/oxigenazioaren funtzionamendu-baldintza egokiak identifikatu ditu.
- Odoljariorik izanez gero jarduteko prozedurak deskribatu eta gauzatu ditu.
- Konorte-maila egiaztatze prozedurak deskribatu ditu.
- Bizi-konstanteak hartu ditu.



- j) Bizkortzeari buruzko nazioarteko koordinazio-batzordeak (ILCOR) ezarritako protokoloaren arabera jardun-sekuentzia identifikatu ditu.

2. Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak aplikatu eta deskribatzen ditu, eta lortu beharreko helburuarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bihotz-biriketako bizkortzearen funtsak deskribatu ditu.
- b) Aire-bidea zabaltzeko teknikak aplikatu ditu.
- c) Aireztapen- eta zirkulazio-euskarriko teknikak aplikatu ditu.
- d) Kanpoko desfibrilazio erdiautomatikoa (KDE) egin du.
- e) Bizkortze ondoko neurriak aplikatu ditu.
- f) Lesio, patologia edo traumatismo ohikoenak adierazi ditu.
- g) Istripua izan duen pertsonaren lehen eta bigarren mailako balorazioa deskribatu du.
- h) Agente fisikoen, kimikoen eta biologikoen ondoriozko lesioen aurrean lehen laguntzak aplikatu ditu.
- i) Premiazko patologia organikoen aurrean lehen laguntzak aplikatu ditu.
- j) Zein kasutan edo egoeratan esku hartu behar ez den zehaztu du.

3. Biktimak immobilizatu eta mobilizatzeko prozedurak aplikatzen ditu, eta, horretarako, baliabide materialak eta teknikak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Biktimarengana hurbiltzeko beharrezko maniobrak egin ditu.
- b) Immobilizatu eta mobilizatzeko baliabide materialak identifikatu ditu.
- c) Pertsona lesionatu baten aurrean hartu beharreko jarrera-neurriak ezaugarritu ditu.
- d) Mobilizazio eta lekualdatze desegokiaren ondorioak deskribatu ditu.
- e) Gaixoak edo istripua izan dutenak immobilizatu eta mobilizatzeko sistemak prestatu ditu, material ohikoekin eta berariazkoak ez direnekin nahiz beste baliabide batzuekin.
- f) Segurtasunerako eta norberaren babeserako arauak eta protokoloak aplikatu ditu.

4. Istripua izan duenari eta familiei zein laguntzaileei laguntza psikologikoa eta autokontrolak emateko teknikak aplikatzen ditu, eta komunikazio-estrategia egokiak deskribatu eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Istripua izan duen pertsonarekin eta laguntzaileekin komunikatzeko oinarrizko estrategiak deskribatu ditu.
- b) Istripua izan duen pertsonaren behar psikologikoak antzeman ditu.
- c) Istripua izan duen pertsonaren egoera emozionala hobetzeko laguntza psikologikoko oinarrizko teknikak aplikatu ditu.
- d) Istripua izan duen pertsonari jardun osoan zehar konfiantza eta baikortasuna emateak duen garrantzia baloratu du.
- e) Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak identifikatu ditu.
- f) Dolu, antsietate, larritasun edo agresibitateko egoera bat kontrolatzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.

- g) Laguntzean huts egin izana psikologikoki gainditzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.
- h) Estres-egoeretan norbera kontrolatzearen garrantzia baloratu du.

c) Edukiak

LARRIALDIETAKO LAGUNTZAREN HASIERAKO BALORAZIOA	
prozedurazkoak	- Esku hartzeko eremua babesteko teknikak aplikatzea. Larrialdietako arreta-zerbitzueterako sarbideak identifikatzea. - Norbera babesteko teknikak identifikatu eta aplikatzea. - Informazioa emateko teknikak aplikatzea. Berariazko terminologia erabiltzea. - Lesioen larritasuna eta mota kontuan hartuta jardun-lehentasanak identifikatzea. Bizi-arriskua dakarten egoerak identifikatzea. Oinarrizko triajeak egitea. - Istripua izan duen pertsonaren hasierako baloraziorako teknikak aplikatzea. Aire-bideen iragazkortasuna, aireztapena eta zirkulazioa egiaztatzea. Konorte-maila baloratzea. Bizi-konstanteak hartzea. - Adibidez, bizkortzeari buruzko nazioarteko koordinazio-batzordeak (ILCOR) ezarritako protokoloaren arabera jardun-sekuentzia identifikatzea. - Lehen laguntzetako botikinaren oinarrizko materiala identifikatu eta erabiltzea.
kontzeptuzkoak	- Larrialdietarako sistemak. - Lehen laguntzak. Helburuak eta mugak. BAS jokamoldea (babes-sistemak, abisu-sistemak eta sorospen-sistemak). - Istripuak. Motak eta ondorioak. - Eremua babesteko sistema. Metodoak eta materialak. - Terminologia mediko sanitarioa lehen laguntzetan. Informazioa emateko protokoloak. - Biktima anitz daudenerako jardun-lehentasanak. Triage sinpleko metodoak. - Istripua izan duen pertsona baloratzeko teknikak. Bizi-arriskuaren zeinuak pertsona helduarengan, haurrengan eta bularreko umeengan. Larrialdi-zeinuak eta -sintomak. - Miaketa egiteko protokoloak. Konorte-maila baloratzeko sistemak. Bizi-konstanteak hartzea. - Lehen esku-hartzailearen jarduna. Lege-esparrua, erantzukizunak eta etika profesionala. - Norberaren babesa eta segurtasuna esku-hartzean. Arriskuak. Neurriak eta ekipoak. - Lehen laguntzetako botikina. Osagaiak, erabilera eta aplikazioak.
jarrerazkoak	- Ingurune seguruak sortzeko segurtasun-arauei eta protokoloei zorrotz jarraitzea. - Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa. - Bere jardunaren mugez jabetzea.



BIZI EUSKARRIKO TEKNIKAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	- Bizi-arriskuko egoerak aztertzea. - Bizi-zeinuen presentzia identifikatu eta egiaztatzea. - Jarrera-tratamendu egokia aplikatzea. - Bizi-euskarriko teknikak identifikatzea eta egoera bakoitzerako ezarritako jardun-protokoloekin lotzea. - Bihotz-biriketako oinarritzko bizkortze-teknikak (BBB) aplikatzea. - Aire-bidea zabaltzeko teknikak aplikatzea. - Aireztapen- eta zirkulazio-euskarriko teknikak aplikatzea. - Kanpoko desfibriladore automatikoak erabiltzea. - Bizkortze ondoko neurriak aplikatzea. - Istripua izan duten pertsonen lehen eta bigarren mailako balorazioa egitea. - Lehen laguntzako teknikak aplikatzea honako lesio hauetan: agente fisikoen ondoriozkoak (hala nola, traumatismoak, zauriak, odoljarioak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak), agente kimikoen ondoriozkoak, agente biologikoen ondoriozkoak eta premiazko patologia organikoaren ondoriozkoak.
kontzeptuzkoak	- Aire-bideen iragazkortasuna kontrolatzea. Zabaltzeko eta buxadura kentzeko teknikak. Mantentzea. - Bihotz-biriketako oinarritzko bizkortzea (BBB). Protokoloak helduekin, bularreko umeekin eta haurrekin. - Kanpoko desfibrilazio automatikoa (KDA). Teknikak. Ekipoen funtzionamendua eta mantentzea. Egoera bereziak. Informazio-prozedurak. Legeria. Egiaztapena. - Istripua izan duen pertsonaren balorazioa. Bizi-zeinuak. Lehen eta bigarren mailako balorazioa. Esku hartu behar ez den egoerak. - Hasierako arreta agente fisikoen ondoriozko lesioetan (hala nola, traumatismoak, zauriak, odoljarioak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak). - Hasierako arreta agente kimikoen eta biologikoen ondoriozko lesioetan. - Hasierako arreta premiazko patologia organikoan. - Konortearen asaldurak. Konorterik gabe dauden pertsonak baloratu eta zaintzea. - Krisi konbultsiboak dituzten pertsonak zaintzea.
jarrerazkoak	- Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean. - Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan. - Jardunaren barruan, istripua izan duenarenengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa. - Tinkotasuna larrialdietako zerbitzuaren jarraibideak betetzean eta ez jarduteko egoeretan. - Bere jardunaren mugez jabetzea.

IMMOBILIZATU ETA MOBILIZATZEKO PROZEDURAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	- Istripua izan dutenak immobilizatu eta mobilizatzeko teknikak aplikatzea. - Jarrera egokian jartzeko teknikak aplikatzea. - Immobilizatu eta mobilizatzeko sistemak prestatzea (hala nola, ferulak eta ohatilak).
kontzeptuzkoak	- Immobilizatu, mobilizatu eta garraiatzeko teknikak. Oharpenak. Motak.

	Materialak. Ohatilak. Ondorioak. - Lekualdatzeko beharra ebaluatzea. - Segurtasun- eta itxarote-jarrerak. Lekualdatzeko jarrerak. Oharpenak. - Segurtasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko arauak.
jarrerazkoak	- Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean. - Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan. - Norbera babesteari eta segurtasunari buruzko araei zorrotz jarraitzea. - Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa.

LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA ETA AUTOKONTROLEKOA EMATEKO TEKNIKAK APLIKATZEA	
prozedurazkoak	- Egoera desberdinetarako komunikazio-teknikak aplikatzea. Komunikazioan jokabide egokienak hautatzea. - Dolu, antsietate, larritasuna edo agresibitateko egoerak kontrolatzeko eta horietan laguntza psikologikoa emateko oinarritzko teknikak aplikatzea. - Autokontrolako eta hutsegitea edo adore falta gainditzeko teknikak aplikatzea. - Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	- Oinarritzko komunikazio-estrategiak. Pertsonen arteko komunikazioa errazten duten teknikak. - Lehen esku-hartzailearen erantzun emozionala. Lehen esku-hartzailearen eginkizuna baloratzea. Istripu edo larrialdiko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak. Kontrol-teknikak. - Laguntza psikologikorako oinarritzko teknikak. Istripua izan duen pertsonaren eta haren familiakoen behar psikologikoak. Dolu, larritasun, antsietate, urduritasun edo agresibitateko egoerak.
jarrerazkoak	- Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa. - Autokontrola estres-egoeren aurrean eta frustrazio-jasamena. - Zuhurtzia eta interesa sekretu profesionalari eusteko.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu hau garatzeko, edukien hurrenkera hau gomendatzen dugu:

- Lehen laguntzen helburuak, terminologia, BASa (babesa, abisua eta sorospena).
- Lehen esku-hartzailea, haren jardunaren mugak, esparru etikoa, harremanak beste profesional batzuekin...
- Segurtasuna eta norberaren babesa, arrisku pertsonalak eta prebentzio-neurriak.
- Lehen laguntzetako botikina.



- Istripua izan duen pertsonaren hasierako balorazioa, zeinuak eta sintomak, miaketa egiteko protokoloak, bizi-konstanteak hartzea...
- Oinarrizko bizi-euskarria aplikatzea, BBBa, aire-bideak, desfibriladoreak erabiltzea...
- Mobilizatu eta immobilizatzeko teknikak. Segurtasun-jarrerak.
- Lehen laguntzak ematea traumatismoen, zaurien eta odoljarioen aurrean.
- Lehen laguntzak ematea beste egoera batzuetan, hala nola, beste agente fisiko, kimiko edo biologiko batzuek eta patologia organikoak sorrarazitakoetan.
- Komunikazio-teknikak, eta laguntza psikologikoa eta autokontrolak emateko teknikak aplikatzea.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan funtsezkoa da ikasleak gai izatea larrialdi-egoeretan ikasitako teknikak aplikatzeko. Hortaz, garapen praktikoa ezinbestekoa da. Ikasgelako egoera ohikoena izango da behar bezala ezaugarritutako egoeretan lehen laguntzetako teknikak praktikan aplikatzea.

Egoera horiek ezaugarritzeko, lanbide-sektorea erreferentzia gisa har daiteke eta sarrien izaten diren egoerak azaldu daitezke. Hainbat aldaketa sar daitezke, adibidez, inplikaturako pertsonen kopuruarekin, pertsonen adinarekin edo ezaugarrieekin, istripuaren lekuarekin, etab. lotutakoak. Garrantzitsua izango da planteaturako egoerari eta aplikaturako teknikari buruzko azterketa eta gogoeta egitea, ikaskuntza horiek orokortu ahal izateko.

Eduki teorikoek bigarren mailako eginkizuna dutenez gero, teknikak aplikatzeko beharrezkoak diren heinean sartuko dira. Dena dela, nahiz eta bigarren mailako zeregina izan, beharrezkoak dira jarduna ulertzeko eta hobeto gogoratzeko, praktikan jarri ez diren beste egoera batzuetan teknikak aplikatu ahal izateko eta informazioa eman edota larrialdietako koordinazio-zentro baten jarraibideak bete ahal izateko.

Eduki teorikoak lehen laguntzak emateko egoera bati lotuta ikasiko dira, unitate didaktiko bakoitzaren hasieran oro har. Aurkezpen-sistemak konbina daitezke, hala nola, azalpen-metodoak eta parte-hartze handiagoko metodoak, ariketak ebaztea, eskemak prestatzea, betiere ikasleen artean parte-hartzea eta interesa lortzeko helburuarekin.

Ikasmateriala askotarikoa izan daiteke: dagoeneko landutakoa ekar daiteke (adibidez, apunteak, aldizkariak edo eskulibururen bat) edota, beste batzuetan, ikasleek landu dezakete, bibliografia edo informatika-aplikazioak kontsultatuta. Ikasleek laneko protokoloak eta argibideak erabiltzen, eta horiei ordenaz eta zehaztasunez jarraitzen ohitu behar dute. Protokolo batzuei dagokienez, azken gomendioei adi egon behar da (adibidez, ILCOR batzordearenak), sarritan berritzen baitira.

Jarduera praktikoetarako, bitarteko hauek eduki behar dira: lehen laguntzetako manikiak (pertsona helduenak, haurrenak eta bularreko umeenak), oxigenoterapiako ekipoa, desfibriladorea, norbera babesteko ekipamendua, sendaketak egiteko materiala, mobilizatzeko materiala... Ikastetxeko hainbat eremu erabil daitezke, hala nola, ikasgelak, jolastokiak, eskailerak edo korridoreak.

Profesionalen jardunak irudietan bilduta azter daitezke, edota beste kide batzuenak ere; osasun-laguntza behatzeko eta hobekuntzak proposatu nahiz gauza interesgarrienak nabarmentzeko.

Ezinezkoa da praktikan lehen laguntzak ematea egoera guztietan, hala nola, agente fisiko, kimiko edo biologiko guziek eta patologia organiko guztiek sorrarazitakoetan. Maiztasunagatik edo larritasunagatik garrantzitsuenak direnak hauta daitezke. Helburua da egoera horietan ikasleei jarduteko gaitasun oinarritzkoenak harraraztea, besteak beste, honakoa hauek: sintoma batzuk antzematea, laguntza ematen hastea, larrialdietako zentro koordinatzailearekin telefonoz harremanetan jartzea, informazioa ematea eta jarraibideak betetzea.

Laguntza psikologikoarekin eta komunikazio-teknikekin zerikusia duten edukiak sarritan jasotzen dira ikasketa-planetan. Eduki horiek jorratzeko, ikasleen alde aurreko ezagupenetatik abiatu beharko da; eta, dagoeneko ikasi badira, larrialdietako komunikazioarekin eta laguntzarekin lotura handiena duen zatia ikusiko da. Talde-teknikak egin daitezke (role-playing, kasuen azterketa...), ikasleen jokabidea behatu eta haien gaitasunak agerian jarri ahal izateko.

Modulu honetan lortutako gaitasunetako batzuk egoera zailetan aplikatu beharko dira (presa, urduritasuna,...). Horregatik, garrantzitsua da eduki oinarritzkoenak edo garrantzitsuenak ondo finkatzea (jardun-sekuentzia, BBa, norberaren babesa,...). Moduluen amaieran errepasoaldi bat antola daiteke. Bertan, denetako jardunak prestatuko dira, unitate didaktiko guztien edukiak elkarrekin lotuta, eta ikasleek lortutako heldutasuna ebaluatu ahal izango da.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Egoera desberdinetan BAS jardun-protokoloa aplikatzea. Eremua eta istripua izan duena babestea. Abisua eta informazioa ematea. Sorospen-neurriei ekitea.
- ✓ Istripuen hainbat kasutan, arrisku pertsonalak identifikatzea eta prebentzio-neurriak erabiltzea.
- ✓ Lehen laguntzetako botikin baten oinarritako osagaiak erabiltzea. Produktuen zerrendak eta horiek erabiltzeko arauak jasoko dituzten dokumentuak prestatzea. Sendaketak egitea.
- ✓ Hainbat egoeratan laguntzaren hasierako balorazioa egitea. Zeinuak eta sintomak bilatzea. Bizi-konstanteak hartzea. Jardun-protokoloa identifikatzea.
- ✓ Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea. Bizi-euskarriko teknikak aplikatzea. BBa egitea. Aire-bideei arreta jartzea. KDA erabiltzea. Pertsonak mobilizatzea. Istripua izan dutenak lekualdatzea. Pertsonak immobilizatzea.
- ✓ Kasuak kasu komunikazio-teknikak aplikatzea. Informazioa prestatu eta ematea.
- ✓ Laguntza psikologikoa emateko teknikak aplikatzea.
- ✓ Talde-tekniketan parte hartzea. Iritziak eta sentimenduak adieraztea.
- ✓ Laneko egoerak edo dependentziak aztertzea, eta horietako bakoitzean egon litezkeen arriskuak idatziz jasotzea.
- ✓ Larrialdi-egoerak aztertzea, zer egin behar den eta zer egin behar ez den baloratzeko.
- ✓ Idatzizko eta ahozko jardun-protokoloak interpretatzea.



9 9. lanbide-modulua: OINARRIZKO ANATOMOFISIOLOGIA ETA PATOLOGIA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Oinarrizko anatomofisiologia eta patologia
Kodea:	0061
Heziketa-zikloa:	Farmazia eta parafarmazia
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Osasuna
Iraupena:	99 ordu
Kurtsoa:	1.a
Irakasleen espezialitatea:	Osasun-prozesuak. (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea) Diagnosticoko klinikoko prozesuak eta produktu ortoprotesikoak. (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Profilari lotzen zaion lanbide-modulua
Helburu orokorrak:	4.a / 5.a / 10.a / 14.a / 15.a / 17.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Organismoaren egitura eta antolamendu orokorra ezagutzen du eta egiturazko unitateak eta loturak deskribatzen ditu, espezializazioaren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- Zelula eta sistemako hierarkia zehaztu du.
- Zelula-egitura deskribatu du.
- Fisiologia zelularra deskribatu du.
- Ehun motak sailkatu ditu.
- Ehun moten ezaugarri nagusiak zehaztu ditu.
- Organismoaren eta osaeraren sistemak adierazi ditu.

2. Egitura anatomikoak kokatzen ditu eta gorputz-topografiako sistema konbentzionalak bereizten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarrera anatomikoa definitu du.
- b) Plano anatomikoak deskribatu ditu.
- c) Jarrera eta noranzkoaren terminologia aplikatu du.
- d) Gorputz-aldeak zerrendatu eta kokatu ditu.
- e) Gorputz-barrunbeak zehaztu eta kokatu ditu.

3. Patologiaren alderdi orokorrak identifikatzen ditu, eta gaixotzeko prozesu dinamikoaren elementuak eta klinikarekin dituzten erlazioa deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gaixotasunaren kontzeptua definitu du.
- b) Gaixotasunaren prozesu dinamikoa deskribatu du.
- c) Patologia osatzen duten elementuak zehaztu ditu.
- d) Gaixotasunaren faseak aipatu ditu.
- e) Gaixotasunaren bilakabidean izan diren gertakariak zerrendatu ditu.
- f) Patologiarekin lotzen diren jardura klinikoak deskribatu ditu.
- g) Oinarriko patologiaren terminologia aplikatu du.

4. Mugimenduarekin, ikuskerarekin eta erlazioarekin lotzen diren sistemak ezagutzen ditu, eta nerbio-sistemaren, zentzumenen, lokomozio-aparatuaren eta larruazalaren egitura, funtzionamendua eta gaixotasunak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Nerbio-sistemaren oinarri anatomofisiologikoak zehaztu ditu.
- b) Nerbioen, giharren eta zentzumenen jardura erlazionatu du.
- c) Zentzumen-organoen oinarri anatomofisiologikoak deskribatu ditu.
- d) Ohikoenak diren adierazpen eta gaixotasun neurologikoak definitu ditu.
- e) Hezurren egitura deskribatu du.
- f) Hezurak sailkatu ditu.
- g) Eskeletoko hezurak kokatu ditu.
- h) Artikulazioen motak eta ezaugarriak deskribatu ditu.
- i) Artikulazioen mugimenduak bereizi ditu.
- j) Giharren egitura eta motak deskribatu ditu.
- k) Anatomia giharrek identifikatu ditu.
- l) Ohikoenak diren osteoartikulazioetako eta giharretako lesio eta gaixotasunak zehaztu ditu.
- m) Larruazalaren morfologia eta funtzioa deskribatu du.
- n) Larruazaleko aldaketa patologikorik ohikoenak deskribatu ditu.

5. Odolaren oxigenazioarekin eta banaketarekin lotzen diren sistemak ezagutzen ditu, eta aparatu kardiozirkulatorioaren, arnas-aparatuaren eta odolaren egitura, funtzionamendua eta gaixotasunak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Sistema kardiozirkulatorioaren oinarri anatomofisiologikoak zehaztu ditu.
- b) Odol eta linfa-hodi nagusiak kokatu ditu.
- c) Bihotzaren eta zirkulazioaren parametro funtzionalak zehaztu ditu.
- d) Ohikoenak diren bihotzetako eta hodietako gaixotasunak deskribatu ditu.
- e) Arnas-aparatuaren ezaugarri anatomofisiologikoak deskribatu ditu.

- f) Ohikoenak diren arnas-aparatuaren gaixotasunak eta adierazpen patologikoak deskribatu ditu.
- g) Odolaren osagaiak eta haien funtzioak adierazi ditu.
- h) Ohikoenak diren odolaren nahasteak aipatu ditu.

6. Nutrienteen xurgapenarekin eta metabolismoarekin eta nutrienteak ezabatzearekin lotzen diren sistemak ezagutzen ditu, eta liseriketa- eta giltzurrun-aparatuaren egitura, funtzionamendua eta gaixotasunak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Liseriketa-aparatuaren oinarri anatomofisiologikoak deskribatu ditu.
- b) Liseriketaren eta metabolismoaren ezaugarriak zehaztu ditu.
- c) Ohikoenak diren adierazpen patologikoak eta liseriketa-gaixotasunak definitu ditu.
- d) Giltzurrun-aparatuaren oinarri anatomofisiologikoak deskribatu ditu.
- e) Gernua osatzeko prozedura aztertu du.
- f) Ohikoenak diren giltzurrunetako gaixotasunak eta gernu-nahasteak deskribatu ditu.

7. Organismoaren barne-erregulazioan esku hartzen duten sistemak eta kanpoaldearekin duten lotura ezagutzen du, sistema endokrinoaren, ugaltze-aparatuaren eta sistema immunologikoaren egitura, funtzionamendua eta gaixotasunak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Funtzio hormonalak aztertu du.
- b) Guruin endokrinoak deskribatu ditu.
- c) Ohikoenak diren aldaketa endokrinoak sailkatu ditu.
- d) Ugaltze-aparatu femeninoaren ezaugarri anatomikoak deskribatu ditu.
- e) Obulutegiaren zikloa eta ziklo endometrialak lotu ditu.
- f) Ugaltzearen prozesua deskribatu du.
- g) Ugaltze-aparatu femeninoan ohikoenak diren aldaketa patologikoak aipatu ditu.
- h) Ugaltze-aparatu maskulinoaren ezaugarri anatomikoak eta funtzionalak deskribatu ditu.
- i) Ugaltze-aparatu maskulinoan ohikoenak diren aldaketa patologikoak aipatu ditu.
- j) Sistema immunologikoaren ezaugarriak aztertu ditu.
- k) Immunitatearen aldaketak aipatu ditu.

c) Edukiak

ORGANISMOAREN ANTOLAMENDU OROKORRA EZAGUTZEA	
prozedurazkoak	- Egitura batzuk identifikatzea eta kokatzea. - Gorputzaren oinarrizko egitura eta antolamendu batzuk deskribatzea. - Organismoaren sistemak eta aparatuak sailkatzea.
kontzeptuzkoak	- Organismoaren egitura. - Giza zelula. Egitura. - Oinarrizko ehunak. Motak eta ezaugarriak. - Organo, sistema eta aparatuak. Osaera.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna terminologiaren erabileran.

	- Ordena eta doitasuna datuak interpretatzean eta erregistratzean. - Ikasteko interesa eta jakinmina.
--	--

EGITURA ANATOMIKOAK KOKATZEA	
prozedurazkoak	- Egiturak kokatzeko berariazko terminologia erabiltzea. - Gorputz-aldeak eta -barrunbeak kokatzea.
kontzeptuzkoak	- Terminologia orokorra. Posizio, ardatz, noranzko eta plano anatomikoak. - Gorputz-barrunbeak eta -aldeak.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna terminologiaren erabileran. - Ordena eta doitasuna datuak interpretatzean eta erregistratzean.

PATOLOGIAREN ALDERDI OROKORRAK IDENTIFIKATZEA	
prozedurazkoak	- Berariazko terminologia erabiltzea.
kontzeptuzkoak	- Osasuna eta gaixotasuna. Gaixotasunaren faseak eta bilakaera. Gaixotasunaren bilakabidean izan diren gertakariak, etiologia, fisiopatologia eta semiologia. - Gaixotasunaren klinika. Diagnostikoa, pronostikoa eta terapeutika. - Osasunaren prebentzioa eta sustapena. Prebentzio-mailak.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna terminologiaren erabileran. - Ordena eta doitasuna datuak interpretatzean eta erregistratzean. - Norberaren eta besteen osasuna zaintzeko ardura.

NERBIO SISTEMAREN, ZENTZUMEN ORGANOEN, LOKOMOZIO APARATUAREN ETA LARRUAZALAREN EGITURA, FUNTZIONAMENDUA ETA GAIXOTASUNAK	
prozedurazkoak	- Hainbat egituraren identifikazio anatomikoa egitea. - Morfologia eta funtzioa deskribatzea. - Hainbat egitura kokatzea. - Sintomen eta zeinuen eta egitura anatomikoen eta fisiologikoen arteko lotura finkatzea. - Parametro funtzionalak zehaztea.
kontzeptuzkoak	- Nerbio-sistema zentrala eta periferikoa. Nerbio-sistema begetatiboa. Zentzumeneren organoak. Nerbio-sistemaren fisiologia. Nerbioen, giharren eta zentzumeneren jardura. - Nerbio-sistemaren patologia. Zeinuak eta sintomak. Ohikoenak diren gaixotasunen sailkapena. Higienea eta prebentzioa. - Hezur-sistema. Hezuraren egitura. Sailkapena. Eskeletoko hezurren antolamendua eta izendegia. Hezur-fisiologia. - Artikulazioak. Egitura. Motak. Artikulazioen mugimenduak. - Giharrak. Egitura. Sailkapena. Gihar-fisiologia. Mugimendu-jardura. - Hezurren, artikulazioaren eta giharren sistemaren patologia. Zeinuak eta sintomak. Ohikoenak diren gaixotasunen sailkapena. Higienea eta prebentzioa.

	- Larruazala. Egitura eta funtzioa. Organo erantsiak. - Larruazalaren patologia. Zeinuak eta sintomak. Ohikoenak diren gaixotasunen sailkapena. Higienea eta prebentzioa.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna terminologiaren erabileran. - Ordena eta doitasuna datuak interpretatzean eta erregistratzean. - Norberaren eta besteen osasuna zaintzeko ardura. - Bestelako planteamenduak eta bizipenak dituzten pertsonekiko errespetua.

APARATU KARDIOZIRKULATORIOAREN, ARNAS APARATUAREN ETA ODOLAREN EGITURA, FUNTZIONAMENDUA ETA GAIXOTASUNAK EZAGUTZEA

prozedurazkoak	- Hainbat egituraren identifikazio anatomikoa egitea. - Morfologia eta funtzioa deskribatzea. - Egiturak kokatzea. - Sintomen eta zeinuen eta egitura anatomikoen eta fisiologikoen arteko lotura finkatzea. - Parametro funtzionalak zehaztea.
kontzeptuzkoak	- Sistema kardiozirkulatorioa. Anatomia. Bihotzaren eta odol-hodien organoak eta egitura. Bihotzaren fisiologia. Arteria eta benetako zirkulazioa. Linfa eta linfa-hodiak. - Bihotzeko eta hodietako patologia. Zeinuak eta sintomak. Ohikoenak diren gaixotasunen sailkapena. Higienea eta prebentzioa. - Arnas-aparatua. Anatomia. Organoak eta egitura. Arnastearen fisiologia. - Arnas-patologia. Zeinuak eta sintomak. Ohikoenak diren gaixotasunen sailkapena. Higienea eta prebentzioa. - Odola. Osagaiak. Odol-taldeak. Hematopoiesi. Hemostasia. - Odol-nahasteak. Ohikoenak diren gaixotasunen sailkapena. Higiene eta prebentzioko arauak.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna terminologiaren erabileran. - Ordena eta doitasuna datuak interpretatzean eta erregistratzean. - Norberaren eta besteen osasuna zaintzeko ardura.

LISERIKETA ETA GILTZURRUN APARATUAREN EGITURA, FUNTZIONAMENDUA ETA GAIXOTASUNAK

prozedurazkoak	- Hainbat egituraren identifikazio anatomikoa egitea. - Morfologia eta funtzioa deskribatzea. - Egiturak kokatzea. - Sintomen eta zeinuen eta egitura anatomikoen eta fisiologikoen arteko lotura finkatzea. - Parametro funtzionalak zehaztea.
kontzeptuzkoak	- Liseriketa-aparatua. Anatomia. Organoak eta egitura. Fisiologia. Liseriketa eta metabolismoa. - Liseriketa-patologia. Zeinuak eta sintomak. Ohikoenak diren gaixotasunen sailkapena. Higienea eta prebentzioa. - Gernu-aparatua. Anatomia. Organoak eta egitura. Giltzurrun-fisiologia eta gernu-fisiologia. Gernua sortzea eta ezabatzea. - Giltzurrunetako eta gernu-bideetako patologia. Zeinuak eta sintomak. Ohikoenak diren gaixotasunen sailkapena. Higienea eta prebentzioa.

jarrerazkoak	- Zorroztasuna terminologiaren erabileran. - Ordena eta doitasuna datuak interpretatzean eta erregistratzean. - Norberaren eta besteen osasuna zaintzeko ardura. - Bestelako planteamenduak eta bizipenak dituzten pertsonekiko errespetua.
--------------	--

SISTEMA ENDOKRINOAREN, UGALTZE APARATUAREN ETA SISTEMA IMMUNOLOGIKOAREN EGITURA, FUNTZIONAMENDUA ETA GAIXOTASUNAK	
prozedurazkoak	- Hainbat egituraren identifikazio anatomikoa egitea. - Morfologia eta funtzioa deskribatzea. - Egiturak kokatzea. - Sintomen eta zeinuen eta egitura anatomikoen eta fisiologikoen arteko lotura finkatzea. - Parametro funtzionalak zehaztea.
kontzeptuzkoak	- Sistema endokrinoa. Anatomia. Organoak eta egitura. Fisiologia. Hormonak. Guriin endokrinoak. Erregulazioa. - Patologia endokrinoa. Zeinuak eta sintomak. Ohikoenak diren gaixotasunen sailkapena. Higienea eta prebentzioa. - Ugaltze-aparatua. Ugaltze-aparatu femeninoaren eta maskulinoaren anatomia. Organoak eta egitura. Fisiologia. Giza ugalketa. - Ugaltze-aparatuaren patologia. Zeinuak eta sintomak. Ohikoenak diren gaixotasunen sailkapena. Higienea eta prebentzioa. - Sistema immunitarioa. Organismoaren babes-mekanismoak. Immunitate naturala, eskuratua eta artifiziala. Anatomia eta fisiologia. - Sistema immunitarioaren patologia. Zeinuak eta sintomak. Ohikoenak diren gaixotasunen sailkapena. Higienea eta prebentzioa.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna terminologiaren erabileran. - Ordena eta doitasuna datuak interpretatzean eta erregistratzean. - Norberaren eta besteen osasuna zaintzeko ardura. - Bestelako planteamenduak eta bizipenak dituzten pertsonekiko errespetua.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Lehen hiru multzoek sarrerako izaera dute eta, horrenbestez, hasieran landu beharko dira. Baliagarriak izan daitezke deskribatutako gainerako edukiak errazago ikasteko. Bertan jasotako informazioa modulu osoaren garapenean erabili beharko da. Izan ere, ondoren ikasiko diren edukiak behar bezala kokatzeko, izendatzeko eta lotzeko aukera emango du.

Zehazki, hirugarren multzoa, hau da, osasunarekin eta gaixotasunarekin lotzen diren alderdi orokorrak aurkezten dituen multzoa, komeni da hasieran aztertzea, modulu honetako edukiak lanbide-profilarekin lotzen saiatuz.



Gainerako multzoetan, giza gorputzeko aparatuak eta sistemak aurkeztuko dira. Ez dio gehiegi axola zein ordenan ematen diren, sistema immunitarioaren eta nerbio-sistemaren kasuan izan ezik. Izatez, bi sistema horiek erlazio eta kontroleko sistemak dira eta komeni da moduluaren amaieran ematea, ikasleek hobe uler dezaten fisiologia.

2) Alderdi metodologikoak

Pertsona gehienek aurreko heziketa-etapetan ikasiko zuten eduki hauetako zati bat. Hori dela eta, jakintza horiek aztertu eta birpasatu egin beharko dira ikaskuntza antolatzeko. Gerta daiteke huts-egite arruntak agertzea eta baliagarriak izatea jakintza berregituratzeko eta ikasleak motibatzeko.

Zabalak dira modulu honetan aurkezten diren edukiak. Deskribatutako aparatu eta sistema guztiak landu beharko dira, nahiz eta horretarako batzuetan gehiago sakontzea baztertu beharko den. Edukien egitura oso antzekoa da ia multzo guztietan. Organismoa osatzen duten sistema eta aparatuetako bakoitzaren egitura anatomikoa, funtzionamendua eta patologia aztertu beharko da. Profesional horiei dagokien mailari ere erreparatu beharko zaio, eta batez ere patologiarene kasuan. Alderdirik orokorrenak nabarmentzen jarraitu beharko da (zeinu edo sintoma batzuk, esate baterako), edo lanbide-garapenean ohikoenak diren alderdiak.

Prozedurak deskribatzean, ia multzo guztietan berdina jartzearen aldeko hauta egin da, ikaskuntzan ohitura jakin batzuk lortzearen. Ohitura batzuk –hala nola egituren irudikapena edo organoen kokapena– emandako informazioaren memorizazioarekin lotu daitezkeen lortu nahi da.

Oro har, beharrezkoa izango da unitate didaktiko bakoitzeko edukien irudikapen teorikoa. Hainbat sistema batera ager daitezke eta une batzuetan material idatzia gaineratu daiteke haren gainean lan egiteko. Beste batzuetan, aldiz, ikasleek beraiek antolatuko dute haien ikasmateriala, argibideei jarraituz.

Irudien proiektzioa lagungarria izan daiteke egitura anatomikoak eta horien artean ezartzen diren loturak hobeto ulertzeko. Edonola ere, ez du irudikapen grafikoko sistema bakarra izan behar. Egitura horien ulermena eta memorizazioa erraztuko duten marrazki eta eskema pertsonalekin ere egin beharko da lan.

Esperientzia pertsonala oso motibatzailea izan daiteke. Organismoaren funtzionamenduaren agerpenak kanpotik ezagutzeko aukera emango duten praktika sinpleak egin daitezke (diametroak neurtzea, bizi-konstanteak hartzea, pisua neurtzea, egiturak ikuskatzea, laginak behatzea, zeinu edo sintoma batzuk berraztertzea,...). Eguneroko bizitzan edo lanbide-jardunean eskuratutako jakintzetako batzuk ezagutzeko, aldiz, ikasleek gaineratzen dituzten azterketa-probak erabil daitezke (odol-analisiak, gernu-analisiak, erradiografiak,...).

Ikasleek hainbat unitate didaktikotan ikasitako edukiak aztertu eta lotu beharko dituzten kasu sinpleak planteatu daitezke. Sintoma eta zeinu jakin batzuk dituzten gaixoen kasuak deskriba daitezke (bularrean mina duen edo arnasa hartzeko zailtasunak dituen pazienteak,...). Ikasleek egoera hori aparatu edo sistemaren batekin lotu beharko dute, eta zer egingo luketen pentsatu beharko dute, nola jardungo luketen, norengana joko luketen, eta abar. Beste batzuetan, egoera fisiologiko zehatzak planteatu daitezke (kontzentrazio handiko gernua duen pertsona edo takikardia bat duen kirolaria, adibidez). Ikasleek egoera horiek zeren ondorio diren aztertu beharko dute, baita zer organo egon daitekeen inplikaturik, egoera hori erregulatzeko mekanismoak zein diren, eta abar.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Egitura anatomikoak marraztea.
- ✓ Organismoan bertan, maketetan, marrazkietan, argazkietan, eskema grafikoetan eta abar egiturak ezagutzea.
- ✓ Azterketa-proben analisisa egitea (dagokien mailan).
- ✓ Organoen eta egituren arteko loturak deskribatzea; kokapenak deskribatzea, ondoko egiturekiko erlazioak deskribatzea,...
- ✓ Parametroak neurtzea, hala nola pultsua, tenperatura, arteria-tentsioa eta gorputz-diametroak.
- ✓ Ikasteko materiala edo txosten idatziak egitea.
- ✓ Fisiologiarekin eta patologiarekin lotzen diren ariketak edo arazoak ebaztea.



10. lanbide-modulua: INGELES TEKNIKO

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Ingeles tekniko
Kodea:	E100
Heziketa-zikloa:	Farmazia eta parafarmazia
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Osasuna
Iraupena:	33 ordu
Kurtsoa:	1.a
Irakasleen espezialitatea:	Ingelesa (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	Guztiak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Tituluaren lanbide-esparruarekin eta eskainitako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Zuzeneko mezuaren, telefono bidezkoaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezkoaren xedea ezagutu du.
- Ahozko mezu zehatzak adierazi ditu egoera puntualak ebazteko: hitzordu bat, produktu bat igortzeko/jasotzeko datak eta baldintzak, makina/gailu baten oinarritzko funtzionamendua.
- Ahozko argibideak ezagutu ditu eta enpresaren testuinguruan emandako adierazpenei jarraitu die.
- Sektorearen berezko produktuak edo zerbitzuak deskribatzeko termino tekniko zehatzak erabili ditu.
- Mezu bat bere elementu guzti-guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.
- Emandako informazioen ideia nagusiak laburbildu ditu bere hizkuntza-baliabideak erabilita.

- g) Beharrezkotzat jo duenean diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.

2. Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentuak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarriei eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze- edo entrega-orria, fakturak, erreklamazioak.

Ebaluazio-irizpideak:

- Berariazko informazioa atera du eskaintako produktuarekin edo zerbitzuarekin lotutako mezuetatik (publizitate-liburuxkak, funtzionamenduari buruzko eskuliburua) eta bizitza profesionalarekin zerikusia duten eguneroko alderdietatik.
- Merkataritza-transakzioei buruzko dokumentuak identifikatu ditu.
- Dagokion lanbide-esparruko merkataritza-dokumentazioa eta berariazko dokumentazioa bete ditu.
- Euskarri telematikoen bitartez (e-posta, faxa, besteak beste) hartutako mezua interpretatu du.
- Lanbidearen berezko terminologia eta hiztegia zuzen erabili ditu.
- Testuen deia nagusiak jaso ditu.
- Bere lanbide-ingurunearekin erlazionatutako testuen laburpenak egin ditu.
- Sektoreko web-orri bateko oinarrizko informazioak identifikatu ditu.

3. Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak ulertu eta identifikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu.
- Herrialdearen berezko gizarte- eta lan-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.
- Sektorearen berezko alderdi sozioprofesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.
- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.

c) Edukiak

AHOZKO MEZUAK ULERTU ETA SORTZEA	
prozedurazkoak	- Sektoreko mezu profesionalak eta egunerokoak ezagutzea. - Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea. - Idea nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea. - Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea. - Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzeko eskatzea, eta bestelakoak - Nahikoa ulertzeko soinuak eta fonemak egoki sortzea. - Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea.
kontzeptuzkoak	- Sektoreko terminologia espezifiko. - Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, adberbioak,



	lokuzio preposizionalak eta adberbialak, erlatibozko perpausak, zehar-estiloa, eta bestelakoak. - Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta elkarteak.
jarrerazkoak	- Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzeta. - Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea. - Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea. - Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

IDATZIZKO MEZUAK INTERPRETATU ETA ADIERAZTEA

prozedurazkoak	- Mezuak formatu desberdinetan ulertzea: eskuliburuak, liburuxkak, eta oinarritzko artikulak profesionalak eta egunerokoak. - Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea. - Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna. - Sektoreko berezko testu erraz profesionalak eta egunerokoak lantzea. - Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea.
kontzeptuzkoak	- Sektoreko terminologia espezifiko. - Euskarri telematikoak: faxa, e-posta, burofaxa, web-orriak, . - Protokolo-formulak idazki profesionaletan. - Nazioarteko transakzioekin lotutako dokumentazioa: eskabide-orria, jasotze-orria, faktura. - Heziketa-zikloarekin lotutako konpetentziak, lanbideak eta lanpostuak.
jarrerazkoak	- Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea. - Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea errespetatzea. - Testuaren garapenean koherentziaren premia baloratzea.

HERRIALDEAREN BEREZKO ERREALITATE SOZIOKULTURALA ULERTZEA

prozedurazkoak	- Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementu esanguratsuenak interpretatzea. - Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	- Atzerriko hizkuntza (ingeleza) mintzatzen den herrialdeen elementu soziolaboral esanguratsuenak.
jarrerazkoak	- Nazioarteko harremanetan arau soziokulturalak eta protokolokoak baloratzea. - Bestelako usadioak eta pentsamoldeak errespetatzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Eduki-multzoen aurkezpenak prestakuntza-prozesua errazten ez duenez eta horren premiei erantzuten ez dienez, behar-beharrezkoa da multzo horiekin laneko testuinguruko hizkuntza-komunikazioko egoera bati konponbidea aurkitzeko beharrezkoak diren ulermenezko eta adierazpenezko gaitasunak lortzeari lehentasuna emango dien ibilbide didaktiko bat antolatzea.

Modulu honen programazioa antolatzeko, prozedurek irakasteko prozesua zuzen dezaten proposatzen da, berebiziko garrantzia baitute hizkuntza bat komunikazio-tresna gisa irakasteko. Gainera, berehala erabilgarri izateak motibazioa sortzen du irakasleengan. Lanbidearen berezko komunikazio-egoera batek prozedura jakin batzuk dakartza eta horiek kontrolpean izan behar dira egoera eraginkortasunez konponduko bada. Eduki lexikalek, morfologikoek eta sintaktikoek ez lukete inongo zentzurik ulertu edo adierazi behar den mezu bat eraman edo transmitituko ez balute.

Horrenbestez, oinarritzko lau hizkuntza-gaitasunak, hots, entzumenak, irakurmena, mintzamina eta idazmena garatzea da lortu beharreko helburua.

Ikasleek nolabaiteko segurtasunarekin moldatu beharko dute atzerriko hizkuntzan beren lanpostuak aurkezten dizkien egoeren aurrean.

Irakasleek erabiliko dituzten metodologia eta materialak alde batera utzirik, lanbidearen berezko egoera erraz bat aukeratzea oso baliagarria izango da ikasleak beren ikaskuntzan bertan inplikatzeko. Egoera horren inguruan antolatuko dira dagozkion gramatika-egoerak (aditz-denbora, hiztegia, etab.), hizkuntza-erregistroarekin, arau edo protokolo sozial eta/edo profesional egokiekin batera.

Beharbada komenigarria izango litzateke hasieran modulua ikasleei aurkeztean horiekin batera gogoeta egitea, etorkizunean bizitza profesionalean aurrez aurre izango dituzten egoera ohikoenak zein izango diren ondorioztatzeko, eta lan egingo duten produkzio-sektorean atzerriko hizkuntza zein beharrezkoa izango duten eta beste ohitura eta kultura batzuetara irekitzea zein aberasgarria izango den konturatzeko. Gogoeta horrek ikasteko aukeretan irimotu beharko lituzke, gero eta autonomoagoak izan daitezen eta sortzen zaizkien arazoak konpontzeko gaitasuna izan dezaten beren lanpostuetan daudenean. Komenigarria da atzerriko hizkuntzak zikloko beste modulu batzuekin duen zeharkako erlazioa behin eta berriz azpimarratzea, jakitun izan daitezen zein lanbide-profiletarako prestatzen ari diren.

Azkenik, kontuan izan behar da, halaber, aurreko hezkuntza-etaparen ondorio den ingelesezko oinarritzko prestakuntza. Esperientziak erakusten digunez, ikaskuntza horretan zehar eskuratutako lorpenak askotarikoak izaten dira, gazte bakoitzaren idiosinkrasia pertsonalaren parekoak ia.

Komunikazio-gaitasun batzuk urriak direla irizten bazaio edo taldearen aniztasunean oinarritzko ezagutzak homogeneizatu beharra antzematen bada, dagozkion ezagutzak osatu edo indartzeari ekingo zaio.



2) Alderdi metodologikoak

Hizkuntza lanbide-munduan komunikatzeko tresna bezala ulertuta, metodo aktiboa eta parte-hartzailea erabiltzen da ikasgelan.

Erdi-mailako zikloak diren arren, arreta berezia eskaini beharko zaio ahozko hizkuntzari, lanbide-egoerek hala eskatzen dute-eta.

Ikasgelan ingelesa erabiltzen da beti eta irakasleak etengabe bultzatzen ditu ikasleak hura erabiltzera, nahiz eta zuzen mintzatu ez. Irakasleak konfiantza eman beharko dio ikasle bakoitzari, komunikatzeko aukeren jakitun izan dadin, aukerak baditu-eta. Lehentasuna emango zaio mezuaren ulermenari zuzentasun gramatikalaren gainetik, eta ahoskera eta jariora azpimarratuko dira, mezua hartzailearengana igarotzeko baldintzatzaileak dira-eta.

Talde-lanak gazteen hasierako lotsa gainditzen laguntzen du. Halaber, audio- eta bideo-grabazioak erabiliko dira, bere burua behatzeak eta bere akatsak aztertzeak ikaskuntza bere alderdi neketsuenean hobetzen lagun diezaion ikasleari, hots, ahozko mezuak sortzen. Hizkuntza bat ikasteak pertsonaren alderdi guztiak mobilizatzea eskatzen du, oso jarduera konplexua da-eta.

Irakasteko eta ikasteko prozesuan aplikatutako komunikazio-metodologia sektoreko enpresak (ahal dela ingelesak) bisitatuz edo jarduneko langileak gonbidatuz aberats daiteke. Hartara, lanbide-ingurunetik datozen eta lan-esperientzia duten horiek lanpostuaren ikuspegia, zailtasunak eta abantailak azalduko dizkiete etorkizuneko profesionalei.

Metodo/testuliburu bat eta metodoak berak dakarren audio- eta bideo-materiala erabiltzeaz gain, ikastetxeak dituen beste audio- eta bideo-euskarri batzuk ere erabiliko dira, betiere lanbide-egoerak ardatz dituztenak. Halaber, benetako materialarekin lan egingo da: kartak, fakturak, gidak eta liburuxkak, eta web-orri ingelesak kontsultatuko dira.

Hizkuntza bat eskuratzea ikastunaren barne-faktore askoren emaitza da, eta pertsona bakoitzak behar, estilo, erritmo eta interes desberdinak ditu. Horregatik, beren beharretara egokitzen diren mota desberdinetako materialak (idatzizkoak, ahozkoak, irudiak, musika, teknologia berriak, etab.) eskaini behar zaizkie ikasleei.


Teknologia berriak ezin dira ikaskuntzatik kanpo geratu, lan-munduan eta gizartean ere ez baitira kanpoan geratuko: Internet, e-posta, burofaxa, etab.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Irakasleek dinamizatzailerik eta bideratzaile gisa jardungo dute ikasgelan ahozko ingelesa erabil dadin, egoerak ahalik eta sinesgarrienak izan daitezen, eta ikasleak ahalik eta gehien inplikatu dituzte beren ikaskuntzan eta materiala bilatzeko eta erabiltzeko lanetan.

- ✓ Lehentasunez, ingurune profesionalarekin lotutako materialak erabiltzea: erabilera-eskuliburuak, liburuxkak, piezen edo produktuen krokisak, zenbakiak, datak, orduak, eskaintako produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarri deskribatzaileak.
- ✓ Sektoreko enpresei edota produktuei eta zerbitzuei buruzko ingelesezko publizitate-materialak aztertzea, erabilitako hiztegi teknikoak eta adjektiboak barne.

- ✓ Arazo errazak konpontzea: bezeroen galderak, istripu txikiak, unean uneko azalpenak.
- ✓ Bisitan datorren bezero atzerritar bati enpresaren edo lanpostuaren inguruko informazio laburrak ematea.
- ✓ Unean uneko oharrak egitea norbaiti edo norbaiten mandatua uzteko, zereginari buruzko zehaztasunak emateko, entregatzeko datak edo kantitateak adierazteko, sortutako arazoen berri emateko.
- ✓ Faktura / ordainketa-gutuna edota bidalketa/entrega baten onarpena aurkeztea eta azaltzea.
- ✓ Ikasgelan lanbidearen egoera bat simulatzen duen ikasle talde baten elkarriketak bideoz grabatzea, geroago aztertzeke.



11. lanbide-modulua: LANEKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Laneko prestakuntza eta orientabidea
Kodea:	0106
Heziketa-zikloa:	Farmazia eta parafarmazia
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Osasuna
Iraupena:	105 ordu
Kurtsoa:	2.a
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	20.a / 21.a / 22.a / 23.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Lan-munduratzeko eta bizitza osoan ikasteko hautabideak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatzeko aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.
- Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatu ditu.
- Profilari lotutako lanbide-jarduerarako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zehaztu ditu.
- Tituludunarentzako enplegu-sorgune eta lan-munduratzeko gune nagusiak identifikatu ditu.
- Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak zehaztu ditu.
- Tituluari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako hautabideak aurreikusi ditu.
- Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

2. Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Profilari lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.
- b) Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lan-taldeak identifikatu ditu.
- c) Lan-talde ez-eraginkorraren aldean, talde eraginkorrak dituen ezaugarriak zehaztu ditu.
- d) Taldekideek bere gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra ontzat baloratu du.
- e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundearen alderdi ezaugarritzat onartu du.
- f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.
- g) Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztu ditu.

3. Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratueta horiek onartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-zuzenbidearen oinarritzko kontzeptuak identifikatu ditu.
- b) Enpresaburuaren eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
- c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Kontratazio modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
- e) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak ezarritako neurriak baloratu ditu.
- f) Laneko harremanak aldatu, eten eta deuseztatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
- g) Soldata-ordainagiria aztertu du eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
- h) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak zehaztu ditu.
- j) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4. Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratu du Gizarte Segurantzaren eginkizuna.
- b) Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak adierazi ditu.
- c) Gizarte Segurantzako sisteman dauden araubideak identifikatu ditu.
- d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuaren eta langilearen irudiak dituen betebeharrak identifikatu ditu.
- e) Suposizio sinple batean, langilearen kotizazio-oinarriak, eta langilearen eta enpresaburuaren irudiari dagozkion kuotak identifikatu ditu.
- f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.
- g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak zehaztu ditu.
- h) Oinarritzko kontribuzio-mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

5. Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-inguruneke lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.
- b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.
- c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.
- d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-ingurunean ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.
- e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.
- f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztu ditu.
- g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

6. Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikaturako agente guztien erantzukizunak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebeharrak nagusiak zehaztu ditu.
- b) Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritako irizpideen arabera.
- c) Arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak zehaztu ditu.
- d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.
- e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentziazioa barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.
- f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.
- g) Enpresa txiki edo ertain baterako larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatu du.

7. Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-inguruneke arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihestezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babestekoak zehaztu ditu.
- b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.
- c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.
- d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.
- e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen laguntzetako oinarritzko teknikak identifikatu ditu, baita botikinen osaera eta erabilera ere.
- f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.

c) Oinarrizko edukiak:

LAN MUNDURATZEKO ETA BIZITZA OSOAN IKASTEKO PROZESUA	
prozedurazkoak	- Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea. - Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea. - Tituluaren lanbide-sektorea zehaztu eta aztertzea. - Norberaren ibilbidea planifikatzea: ▪ Beharrekin eta hobespenekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea. ▪ Uneko eta gerorako pentsatutako prestakuntzarekiko helburu errealistak eta koherenteak. - Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norberak egiaztatzeke zerrenda bat ezartzea. - Lan-munduratzeko beharrezko dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitae...), eta test psikoteknikoak eta elkarriketa simulatuak egitea.
kontzeptuzkoak	- Lana bilatzeko teknikak eta tresnak. - Erabakiak hartzeko prozesua. - Sektorako enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua. - Europar ikasi eta enplegatzeke aukerak. Europass, Ploteus.
jarrerazkoak	- Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea. - Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea. - Autoenplegua lan-munduratzeko hautabidetzat baloratzea. - Lan-munduratzeko egokirako lan-ibilbideak baloratzea. - Lanarekiko konpromisoa. Lortutako trebakuntza baliaratzea.

GATAZKA ETA LAN TALDEAK KUDEATZEA	
prozedurazkoak	- Antolakundea pertsona-talde gisa aztertzea. - Antolamendu-egiturak aztertzea. - Kideek lan-taldean izan ditzaketen eginkizunak aztertzea. - Antolakundeetako gatazken sorrera aztertzea: espazioak, ideiak eta proposamenak partekatzea. - Gatazka motak, esku-hartzaileak eta horien abiapuntuko jarrerak aztertzea. - Gatazkek ebazteke moduak, bitartekotza eta jardunbide egokiak aztertzea. - Lan-taldeen sorrera aztertzea.
kontzeptuzkoak	- Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeko pertsona-talde gisa. - Talde motak sektoreke industrian, dituzten eginkizunen arabera. - Lan-taldeen sorrera aztertzea. - Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeko oinarrizko elementu gisa. - Lan-talde eraginkorren ezaugarriak. - Gatazka zehaztea: haren ezaugarriak, sorburuak eta etapak. - Gatazka ebatzi edo deuseztatzeke metodoak: bitartekotza, adiskidetzea eta arbitrajea.

jarrerazkoak

- Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena baloratzea.
- Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen abantailak eta eragozpenak baloratzea.
- Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa baloratzea.
- Lan-taldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea.
- Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea.

LAN KONTRATUAREN ONDORIOZKO LAN BALDINTZAK

prozedurazkoak

- Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea.
- Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea.
- Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera.
- Nomina interpretatzea.
- Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea.

kontzeptuzkoak

- Lan-zuzenbidearen oinarrizko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren artetzarauak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa.
- Lan-kontratua: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak.
- Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak.
- Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak).
- Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzekoak, soldata-bermeak.
- Soldata-kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, PFEZ.
- Kontratua aldatu, eten eta deuseztatzea.
- Ordezkaritza sindikala: sindikatuaren kontzeptua, sindikatzeko eskubidea, enpresa-elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera.
- Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa.
- Lan-antolamenduaren ingurune berriak: kanpora ateratzea, telelana...

jarrerazkoak

- Lana arautzearen beharra baloratzea.
- Dagokion lanbide-jarduerako sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ezagutzeko interesa.
- Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea.
- Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboetarako dagokienez.
- Gizartea hobetzeko agente gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta baloratzea.

GIZARTE SEGURANTZA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA

prozedurazkoak

- Gizarte Segurantzako sistema orokorra unibertsala izateak duen garrantzia aztertzea.

	- Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebatzea.
kontzeptuzkoak	- Gizarte Segurantzako sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak. - Enpresaburuen eta langileen betebeharrak nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioa. - Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena. - Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua. - Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.
jarrerazkoak	- Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea. - Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea.

ARRISKU PROFESIONALAK EBALUATZEA

prozedurazkoak	- Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea. - Arrisku-faktoreak aztertzea. - Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. - Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. - Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea. - Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea. - Lanbide-eginkizunaren araberrako arrisku-protokoloa ezartzea. - Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea.
kontzeptuzkoak	- Arrisku profesionalaren kontzeptua. - Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarritzko elementu gisa. - Profilari lotutako lan-ingurunearen berriazko arriskuak. - Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak.
jarrerazkoak	- Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia. - Lanaren eta osasunaren arteko lotura baloratzea. - Prebentzio-neurriak hartzeko interesa. - Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia baloratzea.

ENPRESAN ARRISKUEN PREBENTZIOA PLANIFIKATZEA

prozedurazkoak	- Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak, oinarritzko prebentzio-tresna gisa. - LAP Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko oinarritzko araua aztertzea. - LAParen arloko egitura instituzionala aztertzea. - Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea. - Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea.
kontzeptuzkoak	- Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak. - Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.

	- Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. - LAPea eta osasunean esku hartzen duten agenteak, eta horien eginkizunak. - Prebentzioaren kudeaketa enpresan. - Langileen ordezkartza prebentzioaren arloan (LAPeko oinarritzko teknikaria). - Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak. - Prebentzioaren plangintza enpresan. - Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan.
jarrerazkoak	- LAParen garrantzia eta beharra baloratzea. - LAPeko eta LO Laneko Osasuneko agente gisa duen posizioa baloratzea. - Erakunde publikoek eta pribatuek LOan errazago sartzeko egindako aurrerapenak baloratzea. - Dagokion kolektiboaren larrialdi-planei buruzko ezagutza baloratu eta zabaltzea.

ENPRESAN PREBENTZIO ETA BABES NEURRIAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	- Norbera babesteko teknikak identifikatzea. - Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresak eta banakoak dituzten betebeharrak aztertzea. - Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea. - Larrialdi-egoerak aztertzea. - Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea. - Langileen osasuna zaintzea.
kontzeptuzkoak	- Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak. - Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa. - Larrialdi medikoa / lehen laguntzak. Oinarritzko kontzeptuak. - Seinale motak.
jarrerazkoak	- Larrialdien aurreikuspena baloratzea. - Osasuna zaintzeko planen garrantzia baloratzea. - Proposatutako jardueretan bete-betea parte hartzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Edukiak sekuentziatu eta antolatzeko proposamen hau ikasleak egiten ari den heziketa-zikloa amaitzean jarraituko duen lan-munduratzeko ibilbidearen logikan oinarritzen da, hau da: zikloa amaitzen duenetik lana lortu eta lan horretan finkatu arte edota lan-harremana amaitu arte eman beharko dituen urratsak.

Ikasleak jarraituko duen ibilbideak 4 une hauek izango ditu:

- a) Lana bilatzea.
- b) Enpresan sartzeko eta egokitze aldia.
- c) Lanpostuan jardutea.

d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea.

a) Lana bilatzea:

Heziketa-zikloa amaitu ondoren ikasleak egin beharreko lehen gauza lana bilatzea da, eta hori da LPO moduluaren hasieran eduki horiek garatzeko proposamenaren arrazoia. Zehazki, gai hauei buruzko edukiak garatuko dira:

- Lanbide-proiektua eta -helburua.
- Europan lan egin eta ikasteko aukerak.
- Lan publikoan, pribatuan edo norberaren konturakoan sartzea.
- Lana bilatzeko informazio-iturriak.

b) Enpresan sartzea eta egokitze aldia:

Jarraian, ikasleak lana bilatzeko prozesuan arrakasta izan badu, enpresan sartzeko garaia iritsiko zaio. Lan-bizitzaren aldi horretan, honako eduki hauekin lotutako gaitasunak erabili beharko ditu:

- Lan-zuzenbidea eta haren iturriak.
- Lan-harremanen ondoriozko eskubideak.
- Kontratazio modalitateak eta kontratazioa bultzatzeko neurriak.
- Gizarte Segurantzako sistema.
- Laneko hitzarmen kolektiboak.
- Enpresan sartzeko informazio-iturriak.

c) Lanpostuan jardutea:

Lanpostu berrian sartu eta egokitze aldian hasierako aldia gaindituta, lanpostuan jarduteko aldia etorriko da. Aldi horrek lege jasotako edozein suposiziotan lan-harremana amaitu arte iraungo du. Hona hemen aldi horrekin lotutako edukiak:

- Lan-baldintzak: soldata, lanaldia eta laneko atsedena.
- Soldataren edo nominaren agiria eta horren edukiak.
- Gizarte Segurantza: prestazioak eta izapideak.
- Kontratua aldatu eta etetea.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzea.
- Langileen ordezkaritza.
- Negoziazio kolektiboa.
- Laneko gatazka kolektiboak.
- Talde-lana.
- Gatazka.
- Lan-antolamenduaren ingurune berriak.
- Langileentzako onurak antolamendu berrietan.
- Arrisku profesionalak.
- Prebentzio- eta babes-neurriak planifikatu eta aplikatzea.

d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea:

Lan-harremana amaituz gero, ikasleak aldi horri aurre egiteko beharrezko gaitasunak izan beharko ditu: Eduki hauek garatu behar dira:

- Lan-kontratua deuseztatzea eta horren ondorioak.
- Hartzekoen likidazioa edo kitatzea.
- Gizarte Segurantzarekin lotutako izapideak: bajak.
- Kontzeptua eta egoera babesgarriak langabezia-babesean.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatze sistemak.



Lan-harremana amaitzegtatik ikasleak enpresan jarraitzen ez badu, lana bilatzeko prozesuari ekin beharko dio berriz ere, enpresan sartzeko aldi berri bat hasiko du, etab.

2) Alderdi metodologikoak

Hasiera batean, egokia dirudi irakasleak moduluaren edukiak aurkeztu eta garatzea, hurbileneko gizarte- eta ekonomia-ingurunea erreferente gisa hartuta betiere.

Bigarren fasean, garrantzi handiagoa emango zaio ikaslearen partaidetza eraginkorrari. Horretarako, kontzeptuak zehazteko, eta abileziak eta trebeziak garatzeko bidea emango dioten jarduerak egingo dira, banaka nahiz taldean: ikaslearen esperientzia pertsonalak azaltzea, prentsa-albisteak erabiltzea, ICTak (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) erabiltzea.

Talde-lanari eta sortzen diren gatazkei buruzko atala jorratzeko, ikasgelaren ingurunean izaten diren gatazkak, ikasle eta irakasleen arteko harremanak, familiako eta lagun arteko gatazkak... erabil daitezke; aldean portaerak eta arazoen konponbideak aztertzearen.

Modulua garatzean, egokia dirudi adituen laguntzara jotzea (enpresa-batzordeetako kideak, sindikatueta ordezkariek, lan-arloko abokatuak, etab.), laneko egoerak eta gatazkak hurbiletik ezagutzeko.

Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, egokia dirudi lehen laguntzetako eta suteak itzaltzeko praktikak egitea, lantokietara bisitak egitea... Horretarako, erakundearen laguntza behar da, hala nola: Gurutze Gorria, Osalan, Lan Ikuskaritza, suteak itzaltzeko zerbitzuak... Kontuan izan behar da ikasleak, modulua gainditu ondoren, laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko mailako jardueretarako beharrezkoak diren lanbide-erantzukizunak hartzen dituela.

Gainera, metodologiari dagokionez, komeni da moduluaren edukiak metodologia aktiboen bidez garatzea, hala nola: talde-lana eta PBL-AOI arazoetan oinarritutako ikaskuntza.

Azkenik, lana bilatzeko teknikak behar bezala garatzeko, komeni da ikasleak benetako lan bat bilatzeko kasu praktiko baten simulazioa egitea: zeregin horretarako gehien erabiltzen diren dokumentuak egitea (curriculum, aurkezpen-gutuna) eta komunikabide ohikoenetan lan-eskaintzak hautatzea.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Erreferentziazko produkzio-sektorea deskribatzea:
 - Erreferentziazko produkzio-sektorearen bilakaera aztertzea.
 - Sektoran enplegatze aukerak identifikatzea.
 - Estatistikak eta taula makroekonomikoak erabiltzea.
- ✓ Lan-harremanen motak eta lan-kontratazioen modalitateak identifikatzea:
 - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea.
 - Lan-kontratazioaren formak identifikatzea.
 - Lan-kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak identifikatzea (gizarte-babeseko sistema barne dela).
- ✓ Lan-taldeak, eta gatazkak ebazteko teknikak zehaztea:
 - Lan-taldearen tipologia identifikatzea.

- Gatazkak eta horiek ebazteko moduak aztertzea.
- ✓ Lanbide-jardunaren ondoriozko arrisku motak identifikatzea:
 - Lanbide-jardunak berekin dakartzan arriskuak ebaluatzea.
 - Laneko arriskuen prebentzio-teknikak identifikatzea.
- ✓ Prebentzio-plan jakin bat diseinatzea eta dauden beste batzuekin alderatzea.
 - Lehen laguntzetan erabiltzen diren teknikak identifikatzea.
- ✓ Lana bilatzeko erabiltzen diren baliabide motak deskribatzea:
 - Lana bilatzeko prozesuaren faseak identifikatzea.
 - Lana lortzeko beharrezko dokumentazioa betetzea.
 - IKTak lana bilatzeko tresna gisa erabiltzea.
 - Bizitza osoan ikastearen garrantzia baloratzea.

12. lanbide-modulua: ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Enpresa eta ekimen sortzailea
Kodea:	0107
Heziketa-zikloa:	Farmazia eta parafarmazia
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Osasuna
Iraupena:	63 ordu
Kurtoa:	2.a
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	21.a / 22.a / 23.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ekimen sortzaileari lotutako gaitasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta pertsonen ongizatearekin duen lotura identifikatu du.
- Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.
- Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jardura ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.
- ETE bateko enpleguaren lanerako ekimena aztertu du.
- Sektorean hasten den enpresaburu baten jardura ekintzailea nola garatzen den aztertu du.
- Jardura ekintzaile ororen elementu saihestezintzat aztertu du arriskuaren kontzeptua.
- Enpresaburuaren kontzeptua, eta enpresa-jardura garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

2. Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-ideia aukeratzen du eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.
- b) Tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du.
- c) Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.
- d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.
- e) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak zehaztu ditu.
- f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomeno eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.
- g) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten balantze soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.
- h) Sektoreko enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen ETE baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.

3. Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legeko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresa baten oinarrizko eginkizunak deskribatu ditu eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.
- b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.
- c) Berariazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.
- d) Sektoreko ETE baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.
- e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
- f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.
- g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila zehaztu du.
- h) Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
- i) Indarrean dagoen legeriak ETE bat eratzeko exijitutako izapideak aztertu ditu.
- j) Erreferentziazko herrian sektoreko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.
- k) Enpresa-planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-izapideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.
- l) ETE bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4. ETE baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate-eta zerga-betebehar nagusiak egiten ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Kontabilitatearen oinarritzko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.
- Kontabilitate-informazioa aztertzeko oinarritzko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likidezari eta errentagarritasunari dagokienez.
- Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.
- Zerga-egutegian zerga motak bereizi ditu.
- Sektoreko ETE batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarritzko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekueak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.
- Dokumentazio hori enpresa-planean barne hartu du.

c) Oinarritzko edukiak:

EKIMEN SORTZAILEA	
prozedurazkoak	- Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak azterzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.). - Ekintzaileen funtsezko faktoreak azterzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko gaitasuna, plangintza eta prestakuntza. - Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea.
kontzeptuzkoak	- Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa. - Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa. - Enpresaburuaren kontzeptua. - Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatu gisa. - Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa. - Ekintzaileen arteko lankidetzak. - Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak. - Negozio-ideia lanbide-arloaren esparruan. - Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan.
jarrerazkoak	- Izaera ekintzailea eta ekintzailetzaren etika baloratzea. - Ekintzailetzaren bultzatzaile gisa, ekimena, sormena eta erantzukizuna baloratzea.

ENPRESA IDEIAK, INGURUNEA ETA HAIEN GARAPENA	
prozedurazkoak	- Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea. - Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea. - Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra azterzea. - Lanbide-arloko ereduazko enpresa bat azterzea. - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea. - Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea. - Erabakitako ideien gainean berrikuntza-ariketak egitea.
kontzeptuzkoak	- Enpresaren betebeharrak berariazko ingurunearekiko eta sozietate osoarekiko (garapen iraunkorra). - Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea. - Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa. - Merkatu-azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.

jarrerazkoak	- Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta baloratzea. - Genero-berdintasuna errespetatzea. - Enpresa-etika baloratzea.
--------------	--

ENPRESA BATEN BIDERAGARRITASUNA ETA ABIARAZTEA	
prozedurazkoak	- Marketin-plana ezartzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika. - Produkzio-plana prestatzea. - Sektoreko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea. - Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea. - Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua.
kontzeptuzkoak	- Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak. - Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak. - Zerga-arloa enpresetan. - Enpresa bat eratzeko administrazio-izapideak (ogasuna eta gizarte-segurantzak, besteak beste). - Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak. - Enpresaren jabeek duten erantzukizuna.
jarrerazkoak	- Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorrotz ebaluatzea. - Administrazio- eta legezko izapideak betetzea.

ADMINISTRAZIO FUNTZIOA	
prozedurazkoak	- Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea. - Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea. - Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekuek eta letrak, besteak beste.
kontzeptuzkoak	- Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarrizko ideiak. - Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa. - Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak). - Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.
jarrerazkoak	- Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea. - Administrazio- eta legezko izapideak betetzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:



1) Sekuentziazioa

Modulu honi ekiteko, komenigarria litzateke ikaslea jarrera ekintzailearekin mentalizatzea, bai norberaren konturako bai besteren konturako langile gisa.

Ondoren, enpresa-ideien inguruan gogoeta eginaraziko zaio eta ideia horiek hautatzeko metodologia egokiak erakutsiko zaizkio. Lehentasunez, dagokion lanbide-arloaren ingurunean lan egingo da; baina, hala ere, ez dira baztertzen beste lanbide-sektore batzuk.

Enpresa-idea garatzen jarraituko da: merkatu-azterketa egin, negozio-idea jorratu, ideia horren euskarri den enpresa diseinatu eta, ikuspegi sozialetik, etikotik eta ingurumenetik, ingurunearen gaineko eragina baloratu.

Enpresa-plana egingo da. Horretarako, haren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa, eta beste alderdi batzuk, besteak beste, marketin-plana, giza baliabideak, forma juridikoa, etab. aztertuko dira.

Azkenik, ikasleari oinarritzko kontzeptuak azalduko zaizkio kontabilitatearen, zergen eta administrazio-kudeaketaren inguruan.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, irakasleak entrenatzaile-lana egingo du batik bat. Proiektuen tutoretza eramango du eta, taldearen beharren arabera, bideratzaile gisa jardungo du.

Irakasleak helburuak aurkeztu eta bideari ekiteko beharrezko ezagupenen sarrera laburra egin ondoren, ikasleak berak landuko du enpresa-proiektua arian-arian, bere konturako nahiz besteren konturako ekintzailatza-gaitasunak bereganatzearren.

Ikasleak bere proiektuan aurrera egiten duen neurrian, irakasleak beharrezkoak diren ezagupenak sartuko ditu, azalpenen bidez edota ikasgelan garatutako jardueren bidez. Ikasleari liburu edo artikulua jakin batzuk ere irakurraraziko dizkio, ondoren haien edukia kurtsoko proiektura egokitu ditzan.

Irakasleak ikasleen ikasteko prozesuaren jarraipen hurbilekoa eta bana-banakoa egin behar du. Horretarako, kontrol-zerrenda batean, aurrerapenak eta zailtasunak idatziz jaso behar ditu sistematikoki.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ekintzaile-mentalizazioan sentsibilizatzea:
 - Euskal Herriko enpresa-ehuna identifikatzea. Sectoreak, tamaina, forma juridikoak, etab.
 - Enpresaburuaren ezaugarriak eta gaitasunak jasoko dituen erretratua egitea.
 - Enpresaburu izatearen abantailak eta eragozpenak bilduko dituen taula egitea.
 - Sectorean alderdi berritzaile txikiak identifikatzea.
 - Besteren konturako ekintzailearen, norberaren konturako ekintzailearen eta gizarte-ekintzailearen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak aztertzea, talde-laneko indukzio-tekniken bidez.
- ✓ Enpresa-ideiak garatzea:
 - Merkatuaren beharrei erantzungo dieten negozio-ideiekin taula bat egitea.
 - Lan-taldeak sortzea eta horiek garatu beharreko ideiak hautatzea.
 - Merkatu-azterketa bat egitea, ingurunea behatuta, Internet erabilia, etab.

- Hautatutako negozioarako AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) matrizea egitea.
 - Ideiari alderdi sortzaileak eta berritzaileak aplikatzea.
 - Negozio-eredua prestatzea, alderdi etikoak, sozialak eta ingurumenekoak kontuan izanda.
- ✓ Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea:
- Ezarritako ereduari jarraituz enpresa-plan bat egitea.
 - Finantza-erakunde bati mailegua eskatzea (ahal dela, benetako izapideen bidez).
 - Enpresak eratzeko inprimakiak betetzea.
 - Internet erabilita, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak bilatu eta aztertzea.
 - Enpresa-planak bateratu eta defendatzea.
- ✓ Administrazio-izapideak aztertu eta betetzea:
- Diruzaintzako plan bat aztertzea: emaitzen kontua eta egoera-balantzea.
 - Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.
 - Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekuek eta letrak, besteak beste.



13. lanbide-modulua: LANTOKIKO PRESTAKUNTZA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Lantokiko prestakuntza
Kodea:	0108
Heziketa-zikloa:	Farmazia eta parafarmazia
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Osasuna
Iraupena:	380 ordu
Kurtsoa:	2.a
Irakasleen espezialitatea:	Diagnosticako klinikoko prozesuak eta produktu ortoprotesikoak. (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea) Osasun-prozesuak. (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea) Diagnosticako klinikoko eta ortoprotesikoko prozedurak. (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa) Laborategia (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Lanbide-profilari lotua.
Helburu orokorrak:	Guztiak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, eta horiek emandako produktuen produkzioarekin eta merkaturatzearekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.
- Enpresaren sare logistikoa osatzen duten elementuak identifikatu ditu: hornitzaileak, bezeroak, zerbitzu-zorroa eta bestelakoak.
- Zerbitzuak egiteko lan-prozedurak identifikatu ditu.
- Giza baliabideen kompetentziak enpresaren jardueraren garapenarekin erlazionatu ditu.
- Sarearen elementu bakoitzak enpresaren jarduera garatzean duen garrantzia interpretatu du.

- f) Merkatuaren ezaugarriak, bezero motak eta hornitzaile motak erlazionatu ditu, eta enpresaren jarduera garatzean izan dezaketen eragina aztertu du.
- g) Jarduera honetan ohikoenak diren merkaturatze-bideak identifikatu ditu.
- h) Enpresaren egiturak beste mota bateko enpresa-erakundearen aldean dituen abantailak eta eragozpenak adierazi ditu.

2. Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren eta ezarritako enpresako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aintzat hartu eta justifikatu ditu:
 - Lanpostuak behar duen prestasun pertsonala eta denborakoa.
 - Jarrera pertsonalak (puntueltasuna, enpatia besteak beste) eta profesionalak (txukuntasuna, garbitasuna, lanposturako beharrezko segurtasuna, erantzukizuna,...).
 - Jarrerazko eskakizunak lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean eta norbera babesteko neurrien aurrean.
 - Lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
 - Lan-talde barruko eta enpresaren ezarritako hierarkiekiko harreman-jarrerak.
 - Lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
 - Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan lan-munduratzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.
- b) Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez lanbide-jardueran aplikatu beharreko arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarritzko alderdiak identifikatu ditu.
- c) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen eta enpresaren arauen arabera erabili du norbera babesteko ekipamendua.
- d) Garatutako jardueretan, ingurumena errespetatzeko jarrera argia izan du, eta horrekin lotutako barruko eta kanpoko arauak aplikatu ditu.
- e) Lanpostua edo jarduera garatzeko eremua antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du.
- f) Jasotako argibideak interpretatu eta bete ditu, eta zuzendu zaion lanaz arduratu da.
- g) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldekideekin komunikazio eta harreman eraginkorra ezarri du, eta haiekin tratu erraza eta zuzena du.
- h) Gainerako taldekideekin koordinatu da, eta edozein aldagaketaren, behar garrantzitsuren edo ezustekoren berri eman du.
- i) Dagokion jardueraren garrantzia baloratu du. Enpresaren produkzio-prozesuen barruan zuzendutako zereginetan izan diren aldagaketetara eta eginkizun berrietara egokitu da.
- j) Edozein jarduera edo zereginetan, arauak eta prozedurak arduraz aplikatzeko konpromisoa hartu du.

3. Salmentak egiten ditu, eta komunikazio eta marketineko teknikak ezagutu eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Saltokian enpresak ezarritako prozeduraren arabera antolatu ditu produktuak.
- b) Erabiltzailearekin komunikazio egokia izateko hainbat hizkuntza, teknika eta estrategia mota erabili du.



- c) Erabiltzailearen tipologia, motibazioak eta erosteko beharrak identifikatu ditu.
- d) Erabiltzailearekin gizalege, adeitasun, errespetu, diskrezio eta zintzotasuneko harremana ezarri du.
- e) Gatazkak eta erabiltzaileen kexak ebazteko teknikak aplikatu ditu.
- f) Ezarritako prozeduraren arabera erantzun die erabiltzaileen erreklamazioei.

4. Biltegiaren kontrola kudeatzen du eta, horretarako, administrazio-eragiketak egiten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Produktuak erosteko eta berritzeko beharrak hautematen lagundu du.
- b) Produktuen eta materialen izakinen maila kontrolatu du.
- c) Farmazialari arduradunaren gainbegiratupean egin ditu produktuen eta materialen eskariak.
- d) Produktuak biltegitratzean kontserbazio-baldintzak bete ditu eta farmazialari arduradunarengandik jasotako antolamendu-irizpideei jarraitu die.
- e) Amaiera-epea bete duten produktuak baztertu ditu.
- f) Inbentarioa egiten lagundu du.
- g) Dokumentazioa erregistratu eta artxibatu du.

5. Administrazio-lanak egiten ditu, eta farmazia-dokumentazioa eta kobratzeko eta errezetak fakturatzeko dokumentazioa kudeatzeko prozesua aplikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Euskarri informatikoko eta paperezko dokumentu motak maneiatu ditu.
- b) Farmazia-zerbitzuetan edo -establezimenduan erabilitako dokumentazioa bete du.
- c) Errezeta guztiek banatutako sendagaia identifikatzeko kupoia daramatela egiaztatu du.
- d) Errezetak baliogabetzea eragingo duten ezaugarriak eta eskakizunak identifikatu ditu.
- e) Indarrean dagoen araudiaren arabera taldekatu ditu errezetak.
- f) Produktuaren prezioari buruzko informazio egokia eman du.

6. Farmazia eta parafarmaziako produktuak banatzen ditu eta jardun-protokoloak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Produktua hautatu du, betiere medikuaren agindua eskatu ostean –indarrean dagoen legeriaren arabera hori beharrezkoa denean–.
- b) Aginduaren datuak produktuaren datuekin bat datozeela egiaztatu du.
- c) Farmazialari arduradunari kontsultatu dio, agindua interpretatzea zaila denean.
- d) Banatutako produktuaren kontserbazioari, amaiera-datari, prestatzeko eta hartzeko moduari, eta erabiltzeko prekaizioei buruzko informazioa eman dio erabiltzaileari, betiere erabilera-orriko argibideei eta farmazialari arduradunaren adierazpenei jarraituz.
- e) Informazio argia eman dio erabiltzaileari, eta terminologia egokia erabili du.
- f) Sendagaiak hautatu ditu, ospitaleko farmazia-zerbitzutik banatzeko.
- g) Erizaintzako unitateen botikinak berraztertu ditu, farmazialari arduradunaren gainbegiratupean.

7. Ohitura osasuntsuak sustatzen ditu, eta, horretarako, erabiltzaileari irakasteko eta informatzeko modu eta bitarteko materialak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Erabiltzaileari gaixotasun kutsakorren prebentzioari buruzko oinarritzko arauak azaldu dizkio.
- Tabakoaren, alkoholaren eta drogen kontsumoak osasunaren gainean dituen ondorio kaltegarriak buruz informatu du.
- Zaintzei buruzko eta gaixotasun kroniko arruntenen kontrolari buruzko oinarritzko jarraibideak deskribatu ditu.
- Erabiltzailearen beharretara egokitutako oinarritzko elikadura-jarraibideak ezarri ditu.
- Automedikazioaren arriskuei buruz informatu du.
- Informazio-maila eta osasun-heziketako jarduera programatuen materiala pertsona hartzaileen ezaugarrietara egokitu du.

8. Laborategiko oinarritzko eragiketak egiten ditu, ekipamenduak behar bezala maneiatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- Lehengaiak identifikatu ditu.
- Beharrezko materialak eta ekipamenduak prestatu ditu.
- Erabilitako tresnak garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko teknikak aplikatu ditu.
- Farmazialari titularrak onartutako prozeduraren eta fitxa teknikoaren arabera egin ditu prestakinak.
- Hondakinak ezabatzeko prozedurak aplikatu ditu.

c) Lanpostuko ikaskuntza-egoerak

Jarraian, lantokiko egonaldian ikasleak gara ditzakeen jarduerak islatzen dituzten zenbait lan-egoera adierazten dira:

- ✓ Enpresaren antolamendu-egitura aztertzea.
 - Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzea.
 - Enpresaren jarduerak garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzea.
- ✓ Laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauen arabera jardutea:
 - Tresnak, materialak, produktuak, ekipamenduak eta garraiobideak manipulatzearen arriskuak identifikatzea.
 - Segurtasun-neurriak aplikatzea.
 - Norbera babesteko ekipamendua erabiltzea.
- ✓ Ingurumena babesteko arauen arabera jardutea:
 - Kutsadura-iturriak identifikatzea.
 - Ingurumena babesteko arauak aplikatzea.
- ✓ Parafarmazia-produktuak saltokian bertan antolatzea:
 - Produktuak sailkatzea.
 - Produktuak altzarian kokatzea eta berritzea.
 - Publizitate elementuak egitea eta/edo jartzea.



- ✓ Farmazia eta parafarmaziako produktuak saltzea:
 - Produktua identifikatzea eta hautatzea.
 - Bezeroari informazioa eta arreta ematea.
 - Produktua saltzea.
- ✓ Farmaziako eta parafarmaziako produktuak banatzea:
 - Banatu beharreko produktua identifikatzea eta hautatzea. Aginduak interpretatzea. Zalantza izanez gero, kontsultatzea.
 - Bezeroari informazioa eta arreta ematea.
 - Produktua banatzea.
- ✓ Biltegia kudeatzea:
 - Eskariak jasotzea eta jartzea. Produktuak antolatzea eta biltegitratzea. Izakinen maila kontrolatzea. Amaiera-epea gaindituta duten produktuak kontrolatzea.
 - Eskariak bideratzea. Eskariak kontrolatzea. Dokumentazioa artxibatzea.
 - Inbentarioa egiten laguntzea.
- ✓ Dokumentazioa kudeatzea eta errezetak bideratzea:
 - Establezimenduan maneiatu ohi den dokumentazioa sailkatzea eta erabiltzea.
 - Errezetak fakturatzeko inprimakiak eta izapideak betetzen laguntzea. Datuak egiaztatzea. Eskakizunak identifikatzea.
 - Formula magistralen eta prestakin ofizialen prezioak kalkulatzeko indarrean dauden taulak aplikatzea.
 - Errezeta Liburuan eta Sorgogarriak Kontrolatzeko Liburu Ofizialean agindu bereziak erregistratzen laguntzea.
- ✓ Laborategiko oinarrizko jarduerak egitea:
 - Ekipamenduak, lehengaiak eta erreaktiboak prestatzea, produktuak lantzen laguntzeko.
 - Laborategiko lanak egitea, fakultatiboari produktuak lantzen laguntzeko.
 - Erabilitako materiala eta tresneria garbitzea, desinfektatzea eta esterilizatzea.
 - Hondakinak behar bezala ezabatzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Kontrol analitiko sinpleak egitea:
 - Analisiak egiteko materialak eta ekipamendua laneko protokoloen arabera prestatzea.
 - Zehaztapen analitiko sinpleak laneko argibideen arabera egitea.
 - Erabilitako materiala eta tresneria garbitzea, desinfektatzea eta esterilizatzea.
 - Hondakinak behar bezala ezabatzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Parametro antropometrikoak neurtzea eta bizi-konstanteak hartzea.
- ✓ Bezeroekin, pazienteekin eta familiakoekin harremanetan izatea:
 - Hainbat alderdiri buruzko informazioa helaraztea, hala nola produktuen ezaugarriak, erabiltzeko arauak edo establezimenduan egindako proben emaitzak.
 - Ohitura osasuntsuak sustatzea eta jardun-jarraibideak azaltzea, osasunarekin eta gaixotasunarekin lotzen diren egoera batzuen aurrean.
 - Gatazkak, erreklamazioak eta bezeroen kexak ebazten parte hartzea.

4 GUTXIENeko ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

4.1. Espazioak

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	AZALERA (m ²) / 30 IKASLE	AZALERA m ² / 20 IKASLE
Balio anitzeko gela	60	40
Farmaziako ikasgela-lantegia	90	60
Kimikako laborategia	90	60

4.2. Ekipamenduak:

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Balio anitzeko gela	- Proiekzio-kanoia. - Sarean instalatutako PCak. - Kudeaketa farmazeutikorako informatika-programa. - Sendagaiaren eta parafarmazia, optika eta ortopediaren datu-basearen informatika-programa. - Barra-kodearen irakurgailua. - Kutxa erregistratzailea.
Farmaziako ikasgela-lantegia	- Farmazia eta parafarmaziako produktuak. - Optika oftalmologikoko, akustika audiometriako eta ortopediako produktuak. - Izozkailua duen hozkailua. - Sendagaiak sailkatzeko kaxoiak. - Morteroak. - Ur-bainuko sistemak. - Baheak. - pH-metroa. - Urtze-puntua neurtzeko sistema. - Kapsulategia. - Likido-banatzailea. - Labe esterilizatzailea. - Berogailua. - Laborategiko material suntsikorra. - Pipeta automatikoak. - Doitasuneko balantza, 0,1 mg-koa. - Doitasuneko balantza, 0,01 g-koa. - Irabiagailu/berogailu magnetikoa. - Zentrifugazioa. - Erreflektometroak. - Lupa binokularra eta mikroskopioa. - Tallimetroa. - Baskula. - Baskula pediatrikoa. - Presio arteriala eta pultsua hartzeko aparatu automatikoak.



PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
	- Fonendoskopioa. - Esfigmomanometroa. - Termometroak. - Kronometroa. - Eredu anatomikoak. - Maniki simulatzailea.
Kimikako laborategia	- Laborategiko askotariko materiala (buretak, pipetak, matraze aforatuak, prezipitatu-ontziak, Erlenmeyer matrazeak, kronometroak, espatulak, erloju-beirak). - Laginak hartzeko tresneria. - Balantza. - Konduktimetroa. - pH-metroa. - Kolorimetroa. - Biskosimetroa. - Dentsimetroa. - Berogailuak. - Labea. - Urtze-puntuko eta irakite-puntuko aparatuak. - Bereizketa difusionalerako ekipamendua: estraktoreak, trukagailu ionikoak, xurgatze-ekipoak, kristalizadoreak, destilagailuak, zentrifugoak, lurrungailuak, lehorgailuak. - Bereizketa mekanikorako ekipamendua: baheak, zentrifugoak, besteak beste. - Elektrizitate- eta ur-zerbitzu osagarriak.

5. IRAKASLEAK

5.1. Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena Farmazia eta Parafarmaziako heziketa-zikloko lanbide-moduluetan

LANBIDE MODULUA	IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA	KIDEGOA
0099. Produktuen antolamendua eta salmenta	• Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak. • Laborategia	• Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
0100. Farmazia-bulegoa	• Diagnostiko klinikoko prozesuak eta produktu ortoprotesikoak.	• Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0101. Farmazia-produktuen banaketa	• Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak.	• Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
0102. Parafarmazia-produktuen banaketa eta salmenta	• Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak.	• Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
0103. Laborategiko oinarrizko lanak	• Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak. • Laborategia	• Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
0104. Formulazio	• Diagnostiko kliniko eta	• Lanbide Heziketako

magistrala	ortoprotesikoko prozedurak. • Laborategia	irakasle teknikoa
0105. Osasuna sustatzea	• Diagnostiko klinikoko prozesuak eta produktu ortoprotesikoak. • Osasun-prozesuak.	• Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0020. Lehen laguntzak	• Osasun eta laguntzako prozedurak.	• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
0061. Oinarriko anatomofisiologia eta patologia	• Osasun-prozesuak.	• Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
E100. Ingeles teknika	• Ingelesa.	• Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0106. Laneko prestakuntza eta orientabidea	• Laneko prestakuntza eta orientabidea.	• Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0107. Enpresa eta ekimen sortzailea	• Laneko prestakuntza eta orientabidea.	• Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0108. Lantokiko prestakuntza	• Diagnostiko klinikoko prozesuak eta produktu ortoprotesikoak. • Osasun-prozesuak.	• Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
	• Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak. • Laborategia.	• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa

6. LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK

FARMAZIAKO HEZIKETA ZIKLOKO LANBIDE MODULUAK (LOGSE 1/1990)	FARMAZIA ETA PARAFARMAZIA HEZIKETA ZIKLOKO LANBIDE MODULUAK
Farmazietako administrazio-prozedurak eta izakinen kontrola	- 0100. Farmazia-bulegoa
Farmaziako eta parafarmaziako produktuen banaketa eta salmenta	- 0101. Farmazia-produktuen banaketa - 0102. Parafarmazia-produktuen banaketa eta salmenta
Farmazietan farmaziako eta parafarmaziako prestakinak egitea	- 0104. Formulazio magistrala
Oinarriko analisi klinikoak egitea, fakultatiboaren gainbegiratupean	- 0105. Osasuna sustatzea
Osasunaren sustapena eta pertsonentzako laguntza psikologikoa	
Lantokiko prestakuntza	- 0108. Lantokiko prestakuntza



7. TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZAGARRITASUN ETA EGOKITASUN LOTURAK

7.1. Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko

KONPETENTZIA ATALA	LANBIDE MODULUA
UC0363_2: Produktuak eta materialak kontrolatzea eta fakturazioa eta dokumentazioa egitea farmaziako establezimenduetan eta zerbitzuetan.	0100. Farmazia-bulegoa
UC0364_2: Farmazia-produktuen banaketan laguntzea, eta erabiltzaileei produktu horien erabilerari buruz informatzea, parametro somatometriko sinpleak finkatuz, fakultatiboaren gainbegiratupean.	0101. Farmazia-produktuen banaketa
UC0365_2: Parafarmazia-produktuen eta osasun-produktuen banaketan laguntzea eta erabiltzaileei produktu horien erabilerari buruz informatzea, fakultatiboaren gainbegiratupean.	0102. Parafarmazia-produktuen banaketa eta salmenta
UC0366_2: Formula magistralak eta prestakin ofizinalak, dietetikoak eta kosmetikoak egiten laguntzea, fakultatiboaren gainbegiratupean.	0104. Formulazio magistrala
UC0367_2: Oinarrizko eta normalizatutako analisi klinikoak egiten laguntzea, fakultatiboaren gainbegiratupean.	0105. Osasuna sustatzea
UC0368_2: Osasunaren babes eta sustapenean, gaixotasunen prebentzioan, eta osasun-hezkuntzan laguntzea, fakultatiboaren gainbegiratupean.	0105. Osasuna sustatzea

7.2. Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko

LANBIDE MODULUA	KONPETENTZIA ATALA
0100. Farmazia-bulegoa	UC0363_2: Produktuak eta materialak kontrolatzea eta fakturazioa eta dokumentazioa egitea farmaziako establezimenduetan eta zerbitzuetan.
0101. Farmazia-produktuen banaketa	UC0364_2: Farmazia-produktuen banaketan laguntzea, eta erabiltzaileei produktu horien erabilerari buruz informatzea, parametro somatometriko sinpleak finkatuz, fakultatiboaren gainbegiratupean.
0102. Parafarmazia-produktuen banaketa eta salmenta	UC0365_2: Parafarmazia-produktuen eta osasun-produktuen banaketan laguntzea eta erabiltzaileei produktu horien erabilerari buruz informatzea, fakultatiboaren gainbegiratupean.
0104. Formulazio magistrala	UC0366_2: Formula magistralak eta prestakin ofizinalak, dietetikoak eta kosmetikoak egiten laguntzea, fakultatiboaren gainbegiratupean.
0105. Osasuna sustatzea	UC0367_2: Oinarrizko eta normalizatutako analisi klinikoak egiten laguntzea, fakultatiboaren gainbegiratupean. UC0368_2: Osasunaren babes eta sustapenean, gaixotasunen prebentzioan, eta osasun-hezkuntzan laguntzea, fakultatiboaren gainbegiratupean.



*Instituto Vasco del Conocimiento
de la Formación Profesional*

*Lanbide Heziketaren
Ezagutzaren Euskal Institutua*

Avda. Lehendakari
Aguirre, 184
48015 –Bilbao

T. 944 47 40 37
F. 944 47 38 62

www.ivac-eei.eus
web@ivac-eei.eus



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Formación Profesional